goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-11-21
EGUBAKOITZA
618. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS

TOKIKOM

"Zestoako biltegia segurua izango da"

Martin Garitano | Gipuzkoako diputatu nagusia | 7

Antzuola eta Aiherra, 30 urtez elkarrekin

Ospakizun ekintza ugari egingo dituzte bihar, zapatua | 25

Aretxabaletako gobernuz kanpoko erakundeen lana jendaurrean | 11

Oñatiko I. eslaloma jokatuko dute domeka goizean | 28

Bihar estreinatuko dute 'La rosa del azafrán' zarzuela Arrasaten | 14

TA SEGI AURRERA!

Jul Bolinagari, RIPeko gitarra joleari, agur hunkigarria | 31

Jul Bolinagaren ibilbideak argazki ugari utzi ditu, zuri-beltzetik hasi eta koloreetara iristeraino.

OXEL ARRIETA

Leintz Gatzagan eskola txikia behar dutela esango diote Jaurlaritzari

Hilabeteak daramatzate Gatzagan eskola txikia sortzeko asmoaren gainean lanean. Beharrezko ikusten dute halako bat, etorkizunean udalerri bizia izan dadin, besteak beste. Eusko Jaurlaritzari horren aldeko proiektua aurkeztuko diote laster, eta, besteak beste, bihar, herri argazkia aterako dute. | 2

SINADURAK



Nortasun anitz eta askiak | 8
JOSEBA GABILONDO

40 | **Presidente berria**
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | GAZTEAK 34 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

iker, s.l.
sukaldeak | etxea | armairuak
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
dica

Geroko herri bizia ziurtatzeko eskola txikia gura du oraingo Leintz Gatzagak

Bihar, zapatua, eskola txikiaren aldeko herri argazkia aterako dute, proiektua babesteko

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Zergatik ez? Galdera hori buruan dutela eta espiritu baikorrarekin joango dira gatzagarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera, datorren ikasturtean abiarazi gurako luketen eskola txikiaren proiektuari baiezko eskean.

Baikor joango dira, hilabetetan sukaldeko lan sakona egin ostean, Leintz Gatzagako gurasoen, herritarren eta Udalaren babesa badutelako.

Baikor joango dira, badakitelako Gatzagaren antzerako ezaugarriak dituzten udalerrietan eskola txikia gaur egun errealitate dela.

Baina, batez ere, baikor joango dira Eusko Jaurlaritzara, eskatzeko ez ezik, proiektu horren alde asko emateko gertu daudela erakutsiko diotelako.

Konpromiso handia: Udala

"Udalak oso apustu fuertea egin du. Gaur egungo lokalak handitzeko aukera eskaini du, eskola txikiaren beharretara egokitzeko. Gutxienez, gelak bikoizteko eta psikomotrizitateko gelak ere egokitzeko aukera. Bestalde, ikusten dugu jangelarako azpiegitura ere aukeran dugula herrian", esplikatu du Joannes Mendizabalek, Leintz Gatzagako Gurel gurasoen elkarteko kideak eta eskola txikiko proiektuko kideak.

Konpromiso handia: gurasoak

"Gurasoei dagokienez, berriz, bi arlotan lortu dugu konpromisoa: batetik, Jaurlaritzaren dekretuak eskatzen dituen gutxieneko ratioak (zenbakiak) betetzeko beste neska-mutiko izango ditugula ikasturtea abiarazteko. Jaurlaritzaren ratio minimoak honako hauek dira: 2-6 urte arteko 8 ume behar dira Haur Hezkuntzan, eta 2-12 urte arteko hezkuntzan 18 ume. Gatzagan 9 ume daude erroldatuta 2-6 urte bitartean eta 25 ume 2-12 urteko tartea kontuan hartzen badugu. Beraz, gure errealitateak Jaurlaritzaren baldintza hori gainditu egiten du, baina gertatzen dena da gaur egun umeak sakabanatuta daudela eskualdeko sei ikastetxetan. Pentsa, egunero bi autobus etortzen dira umeen bila... Edozelan ere, gure planteamendua ez da horiek Gatzagako balizko eskola txikira eraKartzea. Ikusita horiek direla gaur egungo zenbakiak, eta pentsatuz etorkizunean ere halaxe izango direla, gure asmoa da dauden umeekin hasi eta jaioko direnei bermatzea hemen eskola izango dutela. Nahiz eta orain 25 ume izan, ez dugu kontatzen 25ak bueltatuko direnik. Akaso, norbait animatuko da, baina ez dugu hor energia jarrita. Azken 20 urteotako batez besteko jaiotzak aztertuta, numeroek ematen dute", gaineratu du Saioa Urrutiak, Gurel elkarteko beste kide batek.

Jangela, bai ala bai

Eta gurasoen bigarren konpromisoari dagokionez, berriz: "Eskolako jangela erabiltzeko konpromisoa ere lortu dugu", esplikatu du Urrutiak.

"Guztiek argi dute hori, gainera. Eta hori da gurasook egin dugun apustu handiena. Zentzu horretan, harritu egin gintuen gurasoen erantzunak, egia esan. Izan ere, horretarako beharra ez dutenek ere argi ikusi dute zerbitzu hori gura badugu gaur egungo umeek erabili egin beharko dutela", esan du hark.

Murrizketen beldur

Baina konpromisoak konpromiso eta baikortasunak baikortasun, eskola txikiaren bultzatzaileek aitortu dute beldur bat badutela proiektu hori Jaurlaritzari aurkezteko orduan: krisi eta horren ondorio diren murrizketa sasoi bete-betean gaudela.

"Hala ere, proiektua aurkeztuko dugu zero gastuarekin, irakasleari dagokiona kenduta. Dena den, euren dekretuaren arabera Jaurlaritzak bi baldintza jartzen ditu: Udalaren inplikazio osoa izatea, eta hemen badugu, eta adin tarte horretan dauden herriko umeen bi herenak matrikulatzeko konpromisoa hartzea. Gu hasiko ginateke 2-6 urte bitartekoekin, eta hori betetzen dugu, guztien konpromisoa dugu-eta eskatuta. Eta begiratuta eskola txikien mapan dauden herriak, adibidez Zerainek 250 bizilagun ditu, Larraulek ere bai... guk antzerako kopurua dugu... Beraz, zergatik ez?".

Bihar, herri argazkia

Gauzak horrela, eskola txikiaren aldeko sinadurak batzen hasi dira, proiektuarekin batera Jaurlaritzara eramateko. Joan den domekan Gatzagan egin zen San Milixan azokan hasi ziren, eta asteotan segituko dute, Labidea dendan jarritako orrien bitartez.

Horrekin batera, biharko, zapatua, herri argazkia ateratzeko hitzordua egin dute Gatzagan, Jaurlaritzari irudi grafiko eran proiektuak duen babesa erakusteko. 13:30ean udaletxe aurrean egingo dute argazkia. Baina horren bueltan, goiz osorako ekitaldiak antolatu dituzte. 10:30ean plazan elkartu eta 11:00 aldera Gatz Museora joango dira gurasoak,umeak eta udal ordezkariak. Han, gatz-lorea ateratzen ikasiko dute eta gatzarekin plastilina eta xaboia egingo dute. Eguerdi partean, berriz, plazarantz abiatuko dira

EUGENIO OTSOA
GATZAGAKO ALKATEA

"Herriarendako garrantzi handia du"

Gurasoen bultzada ez ezik, Udalaren babesa ere badu eskola txikiaren proiektuak, Otsoa alkateak dioenez.

GOIENA

Udalarendako ere garrantzitsua da, beraz...

20 urte pasa daramatzagu horrekin. Garrantzi handia du. Adibidez, umeen arteko harremana indartzeak laguntzen du bertakotasuna barneratzen. Gurasoak seguruago sentitzen dira umeak bertan izanda. Umeak gutxiago mugituko lirateke. Gainera, bikoteek hemen bizi eta umeak hemen hazteko aukera izan dezaten gura dugu. Errepublika garaian egoten ziren antzerako eskolak auzoetan, eta horrek berak adierazten du zerbait.

Udala gertu dago azpiegitura jartzeko?

Bai. Baina aurrekontu txikia du, eta gurasoen inplikazio osoa behar da. Jaurlaritzak, ez du oztoporik jartzen, baina dirurik ere ez. Beraz, esfortzu handia da eta herriari hori esplikatu behar zaio, eta ahalegin handia egin beharko dugu gastua neurtzeko, obrak barne.

Leintz Gatzagako ume eta gurasoak *Gatzan hazi, Gatzan hezi, Gatzan bizi!* esaldia letra bidez eraikitzen. | GUREL

GAURSA
Otaola hiribidea 22 - Eibar
Tel.: 943 82 09 74
www.gaursa.com
Kontsumo mistoa: 5,0 l/100 km. CO_2 jaulkipenak: 117 g/km.
*Prezio gomendatua Penintsularako eta Balear uharteetarako. Barne hartzen ditu: PFF, garraioa, Nissan Assistance, promozio deskontua, Pive NiSSAN Plana, BEZA eta IEDMT (agian, Espainiako merkatuan, zure autonomia erkidegorako ez da aplikagarria). Partikularrentzat eta autonomoentzat baliagarria den eskaintza, Nissan Pulsar Visia 1,0DG_T I 115ZP (85kW) eskuratzen duenarentzat, eroslearen izenean dagoen erabilitako ibilgailu bat trukoan emanda eta Magic Plan RCI Banque S.A. bankuarekin finantzatuta (Espainiako sukurtsala). 24 hilabeteko gutxieneko iraunkortasunarekin, gutxienez 6.000 € finantzatuta. Ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta 2014/11/30era arte da baliagarria. Informazio zabalagoa, Nissan Gaursan. Ikusten den modeloa: Nissan Pulsar Tekna Premium.

DATUA

25

NESKA-MUTIKO

Gaur egun 2-12 urte bitarteko 25 ume daude Leintz Gatzagan erroldatuta eta Debagoieneko sei ikastetxetan daude sakabanatuta.

ESANAK

"Bikoteek hemen bizitzeko eta umeak hemen hazteko aukera izan dezaten gura dugu"

EUGENIO OTSOA | ALKATEA

"Eskola txiki batek gurasoen inplikazio handia eskatzen du, konpromisoa, onerako eta lanerako"

NAGORE IÑURRATEGI | GURASOA

eta han zain izango dute mokadutxoa, gurasoek prestatutakoa. Horren ondoren aterako dute herri argazkia.

100 bat lagun espero dituzte biharko; izan ere, gatzagarrak ez ezik, angiozartarrak ere gonbidatu dituzte ekimenera, Angiozarko eskola txikia eta Angiozarko esperientzia delako gatzagarrendako eredugarri.

Proiektua idazten

Hori guztia eginda, ondo bidean, urtea amaitu aurretik gura diote proiektua aurkeztu Jaurlaritzari.

Une honetan, proiektua bera idazten dihardute Udalaren laguntzarekin, baina dagoeneko Udalak eskatu du aurreneko batzarra Euskadiko organo gorenarekin; erantzunaren zain daude.

Onurak: herri bizia

Baina zeintzuk dira eskola txikiaren aldeko gatzagarren ahaleginerako arrazoiak? Izan ere, gaur egun badute hezkuntza zentrotxo bat bertan: Eskoriatzako Luis Ezeiza eskolaren ikasgela. 6 urtera arteko hezkuntza eskaintzen dute han.

Abiapuntua garbia da: "Herri bezala ezinbesteko ikusten dugu herri bizia izateko eskola txikia, eskola bizia izatea. Azken 18 urteetan Eskoriatzako Luis Ezeizak mantendu duen eskola zerbitzuarengatik esker ona besterik ez dugu. Hala ere, Leintz Gatzagan dauden ume guztiak ez dira hara joaten, ez daudelako behar diren zerbitzu guztiak. Hankamotz geratzen da. Batez ere, ez du jangela zerbitzurik (...) Eta oso familia gutxi gaude eguerdietan umeak hartu ahal ditugunak". Hortik, umeen oraingo sakabanaketa.

"Hala, Gurelek guraso elkarte moduan zein Udalak garrantzitsu ikusten dute herri osasuntsua izateko eskola hemen edukitzea, hemengoa. Gatzaga bizia izateko, bertako populazioa mantentzeko, jende gaztea erakartzeko, bikoteak... Azkenean, Gatzagak oso zerbitzu gutxi ditu. Eta eskola da lehentasunetako bat", diote Gureleko kideek.

Onurak: bertako sustraiak

"Hobetuko litzatekeen beste puntu bat da irakaslea egonkortu egingo litzatekeela. Orain, bi urtean behin-edo irakaslez aldatzen gabiltza. Eta ikasteko moduari ere bentaja ikusten diogu. Proiektuka ikasten dute eskola txikietan. Elkarrekin egiten dute lan. Nagusiak txikiari erakusten dio, zaindu egiten du... gizatasun aldetik beste balio batzuk bereganatzen dituzte umeek, aniztasun horrek ematen dituen baloreak, alegia. Horrez gain, ez dago bertako/herriko proiekturik. Eta herri honek badu mami nahikoa bertan oinarritutako ikasketa egiteko: okin bat daukagu, artzainak, gatza, larrugilea, eztigilea... badago mamia ume txikiei hasierako pausotxo horiek erakusteko. Eta gaur egungo egutegia, jaiak, ekintzak... Eskoriatzatik finkatuta datoz. Adibidez, San Milixanen bueltan ez da ezer ospatzen, eta hori bada Gatzagakoa bertakoa. Edo inguruaren ezagutza-eta antolatzen da Eskoriatzako ikuspegitik, hemen badutenean demaseko ingurua ezagutzeko. Hemengo zerbait landu izan dutenean da gurasook bultzatu dugulako. Eta pentsatzen dugu hemen izango bagenu irakasle bat edo bi herrira begira, eta herriko proiektu bat sortzen, umeak ere herrian gehiago sustraituko liratekeela. Eta bertako errealitatetik abiatuta ikasiko zuketela hemen", azaldu du Urrutiak.

Onurak: harremanak herrian

Bukatzeko, harreman mailan ere hobekuntza gertatuko litzatekeela pentsatzen dute. "Orain gertatzen dena da 25 umeak daudela dispertsatuta sei ikastetxetan eta adinka. Eta egiten dituzten harremanak horren araberakoak dira. Egia da herrian ere egiten dutela harremana, ez dagoelako besterik, baina, adibidez, ostiral arratsaldeetan plazan jolasean ikusten ditugunean, askotan esaten dugu: 'Ume horiek hemen egongo balira, plaza egunero egongo litzateke horrela'. Eta hori bizipoza da herrirako, eta eurak ere sustraitzen dira herrian, eta euren harremanak eraikitzen dituzte herrian. Bestela, gaur egun 7-8 urterekin gurasoei esaten diete Eskoriatzara joan gura dutela. Eta kuadrilla, lagunak... kanpoan egiten dituzte, eta herria hustu egiten da poliki-poliki", dio Mendizabalek.

Horregatik guztiagatik galdetuko diote, baiezkoaren esperoan, Eusko Jaurlaritzari: "Leintz Gatzagan zergatik ez eskola txikia?".

Umeen beharretara egokitutako pedagogia sistema

Joseba Abraldesek 14 urte daramatza Angiozarko eskola txikian irakasle. Duen esperientzian oinarrituta, berretsi du eskola txikien hezkuntza sistema desberdina dela ikastetxe ohikoekiko.

Adibidez, adin aniztasuna berezkoa dute, eta horrek "hezkuntza aberatsagoa" dakar, elkarren arteko harremanetan oinarritutakoa, "askotan talde moduan funtzionatzen" dutelako, adinaren arabera sailkatu beharrean.

Angiozarko eskolako ikasle nagusiak, Abraldes irakaslearekin. |U.M.

Bestalde, "komunitate osoak" parte hartzen du. "Adibidez, lanbideak lantzen ditugunean, gurasoak etortzen dira euren lanbideen gainean berba egitera. Edo eskolan konponketaren bat egin behar bada, (margotu...) gurasoek erabateko inplikazioa dute. *"Auzolana* da sarri erabiltzen den berba eskola txikiekin lotuta", dio Abraldesek. Proiektuka lan egiten dutela esan du hark, inguruarekin, naturarekin... lotura zuzenean, eta giro euskaldunean. Eta oro har, "ikasleengandik oso gertu" daudela dio, "ume bakoitzaren desberdintasunera, errealitatera begira", eta horri egokituta, "ahalik eta modu gizatiarrenean".

U.M.

NAGORE IÑURRATEGI | GURASOEN KOORDINAKUNDEA

"Konpromisoa eskatzen du, baina bueltan ere gehiago jasotzen da "

Nagore Iñurrategi (Bergara, 1978) Eskola Txikien Gurasoen Koordinakundeko presidentea da. "Baina batez ere Angiozarko eskola txikiko gurasoa naiz", azpimarratu du.

Zer ematen dio eskola txiki batek kokagunea duen udalerri horri?

Bizitza. Ez delako gertatzen eskolak ez duten udalerrian gertatzen den fenomenoa: umeak 08:00etan autobusean sartu eta beheko herrira edo herri handira doazela. Horretaz aparte, ematen die aukera bertako umeei bertako identitatean hezteko. Angiozarko umeek Angiozarren dute eskola eta Angiozarkoa den edo gertukoagoa den hezieta jasotzeko aukera eskaintzen die. Gu geu ez gara Angiozarkoak, eta gora igotzen gara; zentzu horretan jasotzen dugu zer den herri txiki bateko nortasun indartsu hori: harrokeria barik, harrotasun hori. Eskola txikiak hori ematen du: aukera dago bertan, bertakoekin, lagunak izango diren horiekin... eta horrek ematen dio aukera etorkizunean gazte horri herrian jarraitzeko. Bergarara jaitsiko balira, bakoitzak aukeratuko luke, seguru askim eskola bat, Bergaran hiru aukera ditugu-eta; horrek ematen duena da bakoizak egingo duela lagun kuadrilla bat Bergaran... eta horrek egiten duena da nerabezaroan Bergarara jaistea... eta bizimodua Bergaran egitea. Eta honek, aldiz, ematen duena da bizitza Angiozarren antolatzeko aukera. Bertakoek, umetan, behintzat, bertan egiten dute bizimodua. Eta horrek gerora badu eragina.

Zer eskatzen dio eskola txikiak udalerriari?

Daukana da bere txikitasun horretan oso gertukoa dela. Eskolak berak bakarrik ezin du umearen heziketa guztiaren ardura hartu. Azkenean, umea eskolara doa, baina umea familia batetik eta herri konkretu batetik dator. Guk esaten dugu hiru hankako aulkia litzatekeela: eskola, udalerria eta familia. Hiruren artean osatzen dute ume horrendako hezkuntza komunitatea. Eskola txiki batek inplikazio handia eskatzen du. Onerako eta lanerako. Konpromisoa eskatzen du. Irakasleengandik oso gertu gaude eta edozein lan bihur daiteke gure lan. Badakigu zerbait lortu nahi badugu eskola moduan geuk egin behar dugula: guk egokitu ditugu eskolako espazioak, bigarren solairua du eskolak... eta Jaurlaritzaren edo beste norbaiten zain egongo bagina, denbora askoz ere luzeagoa itxaron beharko genuke. Eta badakigu zerbait nahi badugu martxan jarri behar garela. Hortaz, guraso elkarte moduan oso aktibo ikusten dugu gure burua. Eta koordinakundetik ere horrela ikusten dugu gure burua: badaukagula zer esan, esan egin behar dugula eta, gainera, egin egin behar dugula. Denon ardura delako umeen heziketa. Baina horrek niri satisfakzio handia ematen dit.

Angiozarko eskolan bost umerekin egon zineten...

Bai, eta orain 24-25ekin gaude. Hala ere, txikietan txikienak gara. Beraz, oso erraza da guraso bilera deitzen dugunean guztiok agertzea. Zuzendaritzatik, adibidez, guraso elkarteko guztiak pasatu behar dugu. Jangela zerbitzuan konpromisoa dugu gure umeak bertan geratzeko, badakigulako bestela ezin dela mantendu. Eskola mota horrek konpromisoa eskatzen du, baina bueltan ere gehiago jasotzen da. (...) Gu, esate baterako, Gabon eskean joaten garenean saiatzen gara *matrikula-potentziak* kaptatzen. Angiozarren ume bat jaiotzen bada, badakigu hasi behar dugula guraso horiekin berba egiten...

Gatzagan duten beldurrik handiena da ez dela halako eskaera batekin joateko sasoi ona...

Baina administrazioari ahalik eta erraztasun gehien emanda doaz: proiektua idatzita, badute lokala... eskatzen dutena da ia-ia baimena eta irakaslea jartzea. Eta hori handik edo hemendik konpentsatuko litzateke, ze ume horiek behera ere jaisten dira-eta. Badakigu ekonomikoki eskola txikiak ez direla errentagarriak, baina ikusi behar duguna da ea epe luzera eskola txiki batek errentagarri egiten duen gastu hori. Herri txiki horrendako oso inportantea da. Bati entzun nion behin: "Garbi dago askoz merkeagoa dela herri bateko kale nagusia urbanizatzea, ehunka herritarrengana iristen zarelako; garestiagoa da baserri baterako bidea asfaltatzea, baina horrek esan nahi du ez dugula asfaltatuko bide hori? Baserria hiltzen utziko dugu?". Eskola txikia ere hori da, apustu bat.

Epaiketa politikoen aurka, Bergarako epaitegia eskutik helduta inguratuko dute

Eskubide zibil eta politikoen defentsa 'alaitasunez eta kolore laranjaz' egiteko deia zabaldu du Librek

Mikel Garaiondo, Ino Galparsoro eta Aitor Arantzabal, Libre plataformako kideen babesean, Bergaran. | MONIKA BELASTEGI

MAIALEN TORRES | BERGARA

Epaiketa politikoen aurkako aldarrikapenean, Bergarako Libre plataformak gogoan izan zituen, eguaztenean, une honetan auzipetuta dauden debagoiendarrak eta herriko tabernak. Horiei guztiei babesa eskaintzeko, ekitaldia prestatu dute abenduaren 13rako.

Bergarako Monzon plazan elkartutako herritarrek salatu zuten epaiketa politikoak "euskal herritarren eskubide zibil eta politikoen aurkako erasoak" direla, eta horietan auzipetua izateko "arrazoi bakarra" lan politikoa egin izana dela.

Une honetan Madrilen den Aitziber Plazaolari bidali nahi izan zioten babesa lehenengo. Baina ez hori bakarrik, *Herriko Tabernen Auzia* gogoan izan zuten, baita orain gutxi martxan jarri duten beste politiko bat ere. Auzi horretan 35 kide epaituko dituzte, Batasuna, ANV eta EHAK erakundeetan 2005etik 2007ra egindako lanagatik. Epaituen artean dira Mikel Zubimendi, Aitor Arantzabal eta Mikel Garaiondo bergararrak, baita Ino Galparsoro arrasatearra ere. Datorren urtarrilaren 12an abiatuko da Auzitegi Nazionalean 04/08 sumarioaren epaiketa. Libre plataformako kide Ane Jauregik Espainiako Gobernuari leporatu dio ez duela asmorik mendeku eta zigorrak bukatzeko.

Eskutik helduta

Horregatik, abenduaren 13an, *Eman eskua, epaiketa politikorik ez* lelopean, ekitaldi berezi eta sinbolikoa egingo dute, 18:00etan. Eskutik helduta Bergarako epaitegia inguratu nahi dute, eta, erronka hori betetzeko, debagoiendarrei parte hartzeko dei egin diete, guztien eskuak beharko dituzte-eta.

Bergarako Elikagaien Bankuan boluntarioak lanean. | I.G.

Elikagai bilketa egingo dute azaroaren 28an eta 29an

Debagoieneko supermerkatuetan ere jarriko dituzte jakiak batzeko puntuak edo kaxak

IRATI GOITIA | ARRASATE

Beharra dutenendako, babarrunak, dilistak, garbantzuak, olioa, gailetak, esnea, kakaoa, barazkiak, kontserbako frutak, arrainak eta lekaleak batu gura dituzte Gipuzkoako Elikagaien Bankukoek. Hain zuzen, elikagaien bilketa nagusia egingo dute datorren astean, azaroaren 28an eta 29an. Jose Antonio Agirrebeñak, Bergarako Elikagaien Bankuko boluntarioak, zehaztu du, baina, umeendako produktuak behar dituztela: "Familiek gero eta eskaera handiagoa egiten digute umeendako, eta arlo horretan nahiko gaizki gabiltza. Beraz, beharko genituzke janari-poteak, esnea, pixoihalak...". Bestalde, aurrez prestatutako jakiak ere eskatu dituzte. Izan ere, gero eta jende gehiagok ditu argindarra ordaintzeko arazoak, eta hori laguntza handia izango litzateke familiendako.

Bilketa puntuak

Jakiak batzeko 32 puntu jarriko dituzte. Debagoienean. Eroski, BM, Super Amara, Lidl eta Dia supermerkatuetan, hain justu. "Normalean, supermerkatu guztietan sarreran egongo dira. Kartel handi batzuekin oso ondo identifikatutako kaxa batzuk izango dira. Gure boluntario batzuk ere egongo dira, txaleko horiekin. Haiek emango dizuete poltsa bat eta bertan sartu beharko da eman nahi duzuen laguntza", azaldu du Agirrebeñak.

120.000 kilo

Aurten bigarrenez egingo dute bilketa nagusia. Iaz esperotakoa baino gehiago batu zuten. Bergaran, 120.000 kilo. "Espero dugu iazkora iristea. Gehiago izaten bada hobeto, baina joan den urtekoaz pozik gelditu ginateke", esan du Agirrebeñak. Bilketa nagusirako boluntarioak behar dituztela esan du, eta herritarrei egiten die dei.

Bergarako bankuak 2011ko apirilean egin zuen lehen banaketa, eta 282 pertsona lagundu zituen; egun, 4.000 pertsonak jasotzen dituzte jakiak bertatik. Hainbat instituzio edo erakundetatik errekuperazio zantzuak ikusten dituztela dioten arren, eurek ez dute horrelakorik nabaritzen.

"Euskal industriaren eredu da Lazpiur"

Diputatu nagusi izateko EAJren hautagaia Lazpiur enpresan izan da. Euskal enpresekin batzartuko dela iragarri du Markel Olanok. Besteak beste, azpimarratu du gazteek enpresan izan behar duten inplikazioa eta Lazpiur eredu dela. Candyren itxiera hizpide hartuta, enpresei bertan eusteko beharra nabarmendu du.

EAJ

Biriketako gaixotasun kronikoaren gaineko hitzaldi irekia antolatu du Debagoieneko osasun erakundeak

Azaroaren 19an BGBK/EPOCen eguna dela eta, Debagoieneko ESIak SEPARekin batera (Pneumologia eta Kirurgia Torazikoko Espainiako Elkartea) gaixotasun horren gaineko hitzaldia antolatu du, BGBK/EPOC jasaten duten gaixo eta zaintzaileak ariketa fisikoak duen garrantziaz sentsibilizatzeko. 16:00etatik 18:00etara egingo dute, Arrasaten, Kulturaten. Lehen neurri ez farmakologikoa da hori gaixotasunari aurre egiteko. Biriketako Gaixotasun Butxatzaile Kronikoa da BGBK.

Mugimendu kooperatiboa sustatu zuten balioen gaineko hausnarketa azaroaren 27an Arrasaten

On Jose Maria Arizmendiarrietaren heriotzaren 38. urteurrenaren bueltan antolatu du mahai-ingurua Arrasate-Bergarako Artzapez Barrutiak, Batzorde Postulatzailearekin batera. Eguenean 19:00etan hasiko da, Arizmendiarrietari buruzko *Hemen* aldizkariaren aurkezpenarekin. Horren ostean berba egingo dute Joxemari Artzalluzek –aldizkariko zuzendaria–, Ainara Udaondok –Lankiko zuzendaria– eta Pako Garmendiak –Deustuko Unibertsitateko Soziologia katedraduna.

Goiena Klubeko azaroko zozketak!

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI

Tableta

9" hazbeteko Edertix tableta
Parte hartzeko sariaren izena:
Tableta

www.harremandenda.org
idezko Merkataritzako produktuak

Otarra
Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra.
Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra

ARRIKRUTZ
oñatiko obak

Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.
Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikrutz

argia

Jokoak
Nairobitarra jokoa, 2 joko ditugu
Parte hartzeko sariaren izena:
Nairobitarra

argia

Jokoak
Kirolaz Badakit jokoa, 2 joko ditugu
Parte hartzeko sariaren izena:
Kirolaz

PARTE HARTZEKO:
SMS: KLUBA [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Hizkuntza aniztasuna ere kontuan hartzeko eskaria NBEren txostena aurkeztean

2.200 milioi pertsona pobrezian edo pobreziaren mugan bizi dira gaur egun munduan

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Unescoren printzipioak, programak eta ekintza-ildoak euskal eremuan zabaltzea helburu duen Unesco Etxea GKEk Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin eta MUrekin lankidetzan aurkeztu zuen eguaztenean, Arrasaten, Nazio Batuen 2014ko *Giza garapenari buruzko txostena*-ren euskarazko laburpena.

Txostenaren arabera, 2.200 milioi pertsona pobrezian edo pobreziaren mugan bizi dira gaur egun munduan. Hori eta beste hainbat datu kezkagarri jasotzen ditu txostenak; hala ere, badio, baita ere, 187 herrialdetako herritarren diru-sarreren eta osasun eta hezkuntza baldintzen arabera egiten den indizeak hazten jarraitzen duela mundu osoan, nahiz eta orain arte baino modu apalagoan.

Aurkezpenean nabarmendu zuten giza garapenerako baldintzak lortzetik hasita, baina horiek iraunkorrak izatea dela erronka. Erresilientzia, garapenerako baldintzon babes moduak eraikitzea ei da kontua, kalteberatasuna murrizteko. Lanki ikertegiko ekonomia sozial eta solidario alorreko ikerlari Leire Uriartek erakundeek martxan jarri beharko lituzketen politikei buruz jardun zuen: "Oinarrizko gizarte zerbitzuak unibertsalak izatea bermatzea", adibidez.

Hizkuntzak ere aintzat

Nazio Batuen Garapenerako Programaren txostenaren edukiak euskaraz ere edukitzea bera nabarmendu zuten, bestalde, Arrasateko aurkezpenean, munduan hogei hizkuntzatan ere ez baita argitaratzen. Hizkuntza Politikarako sailburuordе Patxi Baztarrikak aldarrikatu zuen, bide batez, giza garapena neurtzeko hizkuntza eta kultura aniztasuna ere kontuan hartu behar liratekeela.

Unesco Etxeko, Jaurlaritzako eta MUko ordezkariak. | JULEN IRIONDO

Arrazakeria, gai sozialak eta politikoak gaztetxeen jardunaldietan

JON BEREZIBAR | DEBAGOIENA

Atzo (eguena) hasi ziren Debagoieneko VI. Jardunaldiek asteburuan jarraituko dute. Hala, gaur, bailarako gaztetxeen batzarra egingo da, 17:30ean, eta 19:00etan, hainbat gaztetxe eta zentro sozial autogestionaturen esperientziak azalduko dituzte. Hain justu, *Astra amets fabrika*-ko, Txirbilenea gaztetxeko eta Antzuolako gaztetxeko esperientziak ezagutzeko aukera egongo da.

Bihar, berriz, 11:00etan, *Ezker abertzalearen egokipen estrategikoaren inguruko ekarpena* hitzaldia izango da Iratzar fundazioko kide baten eskutik, eta ondoren, bertan bazkaltzeko aukera egongo da. Arratsaldean, 15:30ean, propaganda tailerra egingo dute, eta 17:30ean, *Tomar el escenario* dokumentala proiektatu eta mahai-ingurua egingo da. Musika alternatiboan emakumeen presentzia normalizatu gabe dagoela landuko dute mahai-inguruan. 22:00etan, berriz, Aran eta Laket taldeek kontzertua emango dute.

Propaganda eta 'fracking'-a

Amaitzeko, propaganda tailerra egingo da domekan, 11:00etan; eta 17:00etan, Fracking Ez! Kolektiboen ibilbidea eta erronka berriak izango dituzte hizpide.

Atzo aurkeztu zuten kros solidarioa, baita haren bueltan antolatutako ekintzak ere. | IMANOL BELOKI

Kros solidarioa egingo dute Kaskarotenearen alde

4.300 ikasle arituko dira Ziburuko ikastolaren alde korrika azaroaren 28an

MAIALEN TORRES | DEBAGOIENA

Azken hilabeteotan egoera zaila bizi du Ziburuko Kaskarotenea ikastolak, prefeturak egun diharduen tokitik kanporatu nahi dituelako bertako ikasle eta irakasleak. Hainbat aldarrikapen eta kexaren ostean ere egoerak ez du onera egin, auzapezarekin hitzordurik lotu ezean ezin baitute irtenbiderik adostu.

Gauzak horrela, Kaskarotenearen alde egiteko kros solidarioa antolatu dute bailarako ikastolek azaroaren 28rako. Hala, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñatiko herriek indarrak batu eta egun osoko egitarau propioa prestatu dute. Ikastoletako 4.300 ikasle arituko dira korrika goizean, eta arratsaldean, edonorentzat zabalik, tailerrak, karaokea, bertsolariak, dantzariak... izango dira.

Kros solidarioan izena eman nahi dutenek dortsala jaso beharko dute herriko plazan, eta izen-emateak euro bateko prezio sinbolikoa izango du. Ibilbidea ere edonork egiteko modukoa izango da, adin guztietara egokitua.

LAIDA MUXIKA | KASKAROTENEAKO LEHENDAKARIA

"Eskertzekoa da jasotako babesa"

EDURNE BALTZATEGI

Zein da egun bizi duzuen egoera?

Argindarra moztuta, baina Marinelako eskolan jarraitzen dugu. Argindar sorgailu bati esker haurrek behar duten argia eta berogailua dute, nahiz eta harrabotsa handia izan. Hori bai, 100 euroko egunerokо isunak indarrean segitzen du eta urri erdian 4.370 euro ordaindu genituen. Gainera, auzapezak berriro ere auzipetu gaitu, isuna 100 eurotik 400era pasatzeko asmoz. Egun ordaindu beharra dugunari jasotzen dugun babesari esker egiten diogu aurre, baina isuna igoko balitz, babesa areagotuta ere, uko egingo genioke ordaintzeari.

Zein konponbide aurreikusten duzue?

Zokoan kokatuak diren aurrefabrikatu batzuk erabiltzea proposatu dugu, eta badakigu Kontseilu Nagusia ados dagoela, baina bertara joateko herriko etxearen onespena behar genuke, eta oraingoz ez dugu auzapezarekin hitz egiterik lortu. Haur batzuei argindarra mozteko gai den pertsona batengandik etorrita, ordea, ez nau harritu auzapezak hartutako jarrerak. Horregatik, irtenbide pribatuan ere pentsatu dugu, erostean edo alokatzean. Hala ere, pentsatzen jarraitzen dugu publikoa den lokal bat erabiltzeko eskubidea izan behar genukeela, ikastolek zerbitzu publiko bat eskaintzen baitute.

Nolakoa izan da debagoiendarrek emandako erantzuna?

Eskertzekoa eta hunkigarria da hamar familiok jasotako babesa. Bultzada ekonomiko handia izateaz gain, herritarren inplikazioaren erakusle ere bada. Bailarako ikastoletan egindako lan pedagogikoa ere interesgarria da, haurrei gure ikastolaren egoera azaltzeko ipuin bat asmatu dutelako. Uste dut gure egoerak balio izan duela Iparraldeko ikastolek bizi duten egoera ezagutzera emateko.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EMPLEGU ETA GIZARTE GAITARAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTO SOCIALES

LANBIDE - %100 DOAN, LANGABEEI ZUZENDUTA (PROF. ZIURTAGIRIA BAI)

KURTSOEN HASIERA: AZAROAK 28

PRESTAKUNTZA UNITATEAK	IRAUPENA	DATA
FMEM0411 – Pieza polimerikoak eta aleazio arinak, ekoizteko moldeak fabrikatzea.	590 ordu	Azaroa - Maiatza. Astelehenetik ostiralera. 07:45–14:00
FMEH0109 – Txirbil harroketa bidezko mekanizazioa	130 ordu	Azaroa – Maiatza. Astelehenetik ostiralera. 07:45–13:00

INFORMAZIO ETA IZEN EMATEA
Isabel Mangana
Tel.: 943 71 21 83
Faxa: 943 71 40 32
E-posta: *imangana@mondragon.edu*

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua Servicio Vasco de Empleo

HOBETUZ Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa

Martin Garitano | Gipuzkoako diputatu nagusia

"Zestoako biltegia segurua izango da; errauste plantan oinarritutako sistema, berriz, ez"

- Foru aurrekontu proiektua aurkeztu berritan, diru partida garrantzitsuen gainean dihardu
- "Gipuzkoa aberats eta aurreratua egin nahi badugu, ezin dugu eliteekin bakarrik egin"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Diputazioak oraintsu aurkeztu duen foru aurrekontu proiektua, Zestoako hondakinen biltegia, garraio publikoa, Deskargako obrak, Candy... Horiek ditu berbetagai Martin Garitano diputatu nagusiak elkarrizketa honetan. Agintaldi amaieran, "egindakoagatik pozik eta harro" joango dela dio.

2014ko foru aurrekontuarekiko ia %5 hazi da 2015erako proposatzen duzuen aurrekontua, eta Foru Aldundiak kudeatzeko 705 milioi euro izango ditu. Aurrekontua esaldi edo titular baten azaldu beharko bazenu, zela adieraziko zenuke?

Iazkoa baino aberatsago; konpromisoei eusten diena, ongizate politiketan bereziki, eta herritarrokin adostutako atala handitu duena.

Udalak Finantzatzeko Foru Funtsera bideratutako kopurua %3,58 haziko da. Gehiago izango dute udalek inbertsioetarako?

Edo bizi ahal izateko. Lurraldean badira udalerri batzuk oso egoera onean daudenak, industria edo fabrikak hobeto doazelako-eta. Baina beste batzuk ez daude horren ondo. Egoera latzean daude. Gutxienekoak betetzeko adina ez dutelako. Urte oparoetan azpiegitura asko egin ziren, baita herri txikietan ere. Urritasunean, ostera, zailtasun handiak izan dituzte azpiegitura horiei aurre egiteko. Diputazioaren nahia izan da horiei laguntzea, eta aurten diru gehiago daukagu horretarako. Eskertuko dute udalek.

Gastu sozialak eroaten du 705 milioi euro horien ia erdia.

Geroago eta jende nagusi gehiago bizi gara Gipuzkoan eta premia soziala gero eta handiagoa da. Ez da nagusi edo zaharren arazoa bakarrik; bestalde, lan barik dauden gazte askoren arazoa ere bada. Gipuzkoa aberats eta aurreratua bultzatu nahi badugu, hori ezin dugu elite batekin bakarrik egin, jendea bazterrean utzita. Hori saihesten ahaleginduko gara.

Mugikortasun eta Bide Azpiegituren Departamentura ere diru dezente bideratzea proposatzen duzue. Aurrekontu osoaren %16. Zertarako, bereziki?

Deskargako autobidea azpiegitura-lan handia da, baina, bestetik, ahalegin handia egin dugu, herritarrekin batera, lurraldean autobus zerbitzu hobea izan dezagun. %36ko inbertsio igoera proposatu dugu horretarako. Autoaren erabilpena murrizteko, estrategikoa da, Foru Aldundiarendako, mugikortasuna bultzatzeko neurriak hartzea. Hortik datoz autobus zerbitzua hobetzea edo bizikletaren erabilpena sustatzeko beste neurri batzuk: bidegorri sarea, eta abar. Errepideetan gutxiago gastatu behar da, beharrezkoa den beste, baina gehiago gastatu behar da herritarren onurarako egitasmoetan. Jakina, errepideak ondo mantendu behar dira eta Deskarga egingo dugu, guretako estrategikoa delako, errepide horrek Euskal Herria zeharkatzen duen heinean.

Enpresa eraikitzaileekin arazoak izan dituzue. Garaiz amaituko dira obrak?

Obren esleipena prezio jakin baten egin zen. Eta egia da arazoak izan direla, beste edozein obra publikotan bezala. Ezberdintasunak ditugu enpresekin, baina konponduko dira.

Ze ezberdintasun?

Batzuk ohituta zeuden esleipena kopuru baten egin eta azkeneko prezioa, ostera, esleitutakoa baino %60 handiagoa izaten. Hori ez dugu onartuko. Ez da zilegi. Azpiegitura-lan handietako arazo logikoak direla eta, %20 edo %25 hazten bada aurrekontua, onar dezakegu, baina, betiere, datuetan onartutako gehikuntza bada. Zintzo jokatu nahi dugu eta enpresei ere zintzotasunez jokatzeko eskatzen diegu. Trankpak egin barik.

Noiz amaituko dira lanak?

Datorren urtean. Apirilerako edo agintaldi honetarako ez bada, hilabete batzuk geroago izango da. Hori ez da inportanteena. Ez dugu protagonismo politikorik nahi horren inguruan.

Garraio zerbitzu berria noizko?

Datozen hilabeteetan. Uste dut eredugarria izan dela egin dugun prozesua. Izan ere, autobus erabiltzaile ohikoekin batzartu gara, haiekin izan gara eta haiek izan dira zerbitzua hobetzeko gakoak eman dizkigutenak. Haiek dakite benetan zer egin behar den zerbitzua hobetzeko: ze ordutegi, ze maiztasun, ze bide... Gure eginbeharra da premiak dituenari erantzutea.

Bidegorriei dagokienez, Bergaratik Elorregirako tartea egiten diharduzue. Eskualdean, aurreikusi duzue besterik aurrekontuan?

Gure asmoa da Gipuzkoa osoa bidegorriz lotuta egotea. Ingurumenaren ikuspuntutik planteamendu egokia iruditzen zaigu eta gure lehentasuna da. Baina, bestetik, uste dugu bere garaian lurraldean izan zen astakeria bati erantzuteko modua ere badela mugikortasun aldetik azpiegitura jasangarriak eraikitzea. Ez dezagun ahaztu lehengo trena, lurraldean barrena zihoana, zela desagertu zen interes partikular batzuen mesedetan. Eta, gutxienez, lehengo trenbidearen azpiegitura aprobetxatu nahi dugu bidegorriak egiteko. Horretan dihardugu AHT baino abiadura handiagoan. Antzuola eta Bergara artekoa, esaterako, laster egingo dugu, Deskargako lanak amaitzearekin batera.



Martin Garitano oraingo martitzenean Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

"Ezberdintasunak ditugu enpresekin Deskargan, baina konponduko dira"

"Bidegorriko lanekin dihardugu AHT baino abiadura azkarragoan"

"Candy bezalako multinazionalena ez da gure eredua, eta ezin dugu ezer egin"

Hiri hondakinen gainean, Epeleko konpost-planta ere atzerapenarekin doa. Zergatik?

Atzerapen logikoak ditu horrek ere, edozein etxetan gertatzen diren bezalakoak, baina aurrera doaz lanak hor ere eta datorren urtean amaituko dira. Diru zatiak onartuta daude eta aurrera doa guztia.

Zestoan kokatuko den inerteen biltegia segurua izango da?

Erabat inertea izango da hara eroaten den hondakin hondarra. Ez die inolako kalterik eragingo zestoarrei. Gehiago esango dut: zestoarrendako onerako, mesederako, izango da. Hainbat sistema daude, baina hiri hondakinen tratamendu biologiko eta mekanikorako metodorik zorrotzena, onena eta frogatuena alemana da. Horixe aukeratu dugu guk. Katalunian, Cerdanyolan egin zuten esperimentu bat eta ez zaie erabat ondo atera. Gure eredua beste bat da. Munduko onena. Ez daukat inolako zalantzarik, teknikariek hala ziurtatu digutelako, metodo erabat segurua izango dela. Erabat segurua ez dena da errauste plantan oinarritutako sistema. Lehen proposatzen zena. Ekonomikoki ez zuen etorkizunik. Bizkaikoak ez daukan moduan. Zabalgarbi porrot handia izango da eta hori agertuko da egunen baten. Gaur ez bada, bihar edo etzi, baina ez da bideragarria. Bestetik, osasunaren aldetik ere, errauste plantak ez dauka inolako bermerik. Eta okerrena: errauste plantak uzten ditu errauts toxikoak, ez dira inerteak eta nonbait gorde behar dira. Aurreko foru gobernuak ez zuen esaten non gordeko zituen. Guk planteatzen dugu azken hondar horiek, tratatu ostean inerteak izango direnak, Osinbeltzen gordetzea. Zestoa herriarendako ona izango da.

Zestoan kokatu edo ez, datorren agintaldian zestoarrek erabakitzea proposatzen duzue.

Datorren agintaldian ez, gaurtik hasita. Prozesu luzea izango da. Informazioa, parte-hartzea, ikuspuntuak kontrastatzea... Hori egin ostean, herritarrek erabakiko dute. Ni ez naiz ordurako egongo Foru Aldundian, baina Xabier Olano EH Bilduko hautagaia egongo da. Ziur naiz.

Candyren itxierak gogor jo du Bergaran. Zerbait egiten ari zarete Diputazioan honen gainean?

Candyren eredua ez da guk bultzatzen edo nahi duguna. Mayc izan da bergararrondako beti. Bergarar batzuek sortua. Baina multinazional bati saldua izan zen. Eta, halako krisi egoera baten aurrean, etorri da gizon bat Madrildik, auto baten, eta esan du fabrika itxi egiten dela. Horren aurrean inork ezin dezake ezer egin. Ez daukagu ahalmenik. Berriro diot: ez da gure eredua.

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

ZABALIK

JOSEBA GABILONDO
goiena.eus/komunitatea/

Nortasun anitz eta askiak

Nortasuna edo identidadia urtien poderixoz sortu, eraiki eta aldatzen faten gare. Gure portaerak, sentimenduak eta pentsamenduak nortasun horren araberakuek izateraiño.

Norberaren nortasunaren eraikitze hortan, identidade ezberdiñak ikusi geike. Identidade horreik askatasun osoz bestien aurrien adieraztian sendotzen dogu gure nortasuna. Tamalez, identidade asko historikoki zapaldu izen dittuenik eta egun zapaltzen dittuenik badau gure herrixen, ez duskue-eta ixten gure benetako izaeria edo identidadia gure dogun moduen adierazten.

Batzuk oso inportantiak die; gaiñera, azkenaldixen nahikotxo diskutiduteko aukeria emun dustie. Genero-identidade, identidade sexual eta genero rol eta orientaziño sexuala. Zapalketia historikua izen da eta izeten dabil, instituziño omnipresente batek gidatutako zapalkuntza, Elixiak. Gizon izeteko modu bakarra dauela erakutsi duskue, baitta emakume izeteko be. Sexualidadia bizitzeko modu bakarra, sexualidadiaz berba egin izen danetan. Elixiak instrumentalizautako instituziñuetatik inposatu izen daue eredu heteropatriarkala, gizon heterosexualak boterian jarritta. Bedinttasunaz eta pakiaz bete izen jakie ahua, baiña ahaztu jakue pertsonok pakien eta berdintasunien bizitzeko gure nortasuna askatasun osoz eraiki biherra daukogule, eta pertsonon askatasuna gizon-emakume izeteko eta sexualidadia bizitzeko aniztasuna onartzetik datorrela.

Siñismenak siñismen, Elixiak gauzak barriz planteau biher dittu. Arrasateko San Juanen irudixa barritzera eruen daue. Ia lifting bat egin eta bueltan Santa Juana, Santa Juan edo San Juanaren bat etorten dan, anitza bezain askia.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea

GUTUNAK

Maritxuren familiakoen partetik, eskerrik asko, Aita Menni

Rosarito Zeziaga, Loli Zeziaga eta Maitane Gomez de Segura
Arrasate

Lerro hauen bitartez, Maritxu Lasagabasterren familiakook gure esker ona adierazi nahi dizuegu Aita Menniko RAM1 unitateko langile guztioi.

Egun gutxi dira Maritxu hil dela, eta ordura arteko 11 urteetan, zuen zaintzapean egon da.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu egin duzuen lan guztiarengatik.

Maritxu zaindu duzue, jaten eman, garbitu, berarekin barre egin duzue, haserretu behar zenean haserretu, abestu... azken finean, maitasuna eman diozue.

Azken aste honetan ere, Maritxuren ondoan egon garen familiakooi babesa eman diguzue; gure malkoak errespetatu dituzue, besarkatu gaituzue, oroitzapenak elkartrukatu ditugu, gure mina elkarbanatu dugu, gure dolua eramaten lagundu diguzue.

Horregatik guztiagatik, benetan, bihotz-bihotzez, mila-mila esker.

Eskerrik asko, Josevi, Elena, Egoitz, Espe, Nerea, Goiatz... eta Maritxuren eta gure ondoan egon zareten guzti-guztioi.

Lehen Munduko gaixotasunak

Josu Garitaonandia
(Oparitu Zuhaitz Bat taldekoa)
Bergara

Ekonomia dago gure Lehen Munduko ardatzean, eta ez pertsonak; horren adibide da ebola, Hirugarren Munduan 1976a ezkero pertsona asko hil dituen gaixotasuna.

Herrialde pobreak astintzen dituen beste gaixotasun asko bezala, ez da ia ikertu ere egin, ez baita errentagarria, ez baitute dirurik medikamentuak erosteko.

Lehen Munduak diruarekin neurtzen ditu eman behar dituen pausoak eta jarrera hau da Lehen Munduan daukagun gaitz handiena, begirunerik ez edukitzea beste pertsonen sufrimenduei; denborarekin handitu egiten da sufrimendu hori, eta, ebolarekin gertatu den moduan, Lehen Munduan sartu denean, orduan hasten gara presaka ikertzen medikamentu baten bila.

Elkartasuna Candy Hooverko langileekin! Posible da erasoa geratzea!

Ibon Artola
(Euskal Herria Sozialistako kidea)
Bergara

Candy multinazionalak Bergarako fabrika itxi nahi duela iragarri du. Txinan lan eskuaren prezioa merkeagoa dela argudiatuz 150 langile kale gorrian utzi nahi dituzte.

Aitzakiak aitzakia, irabazi ikaragarriak dituen multinazional honen helburua argi dago zein den: fabrika itxi eta langileak kalera botatzearen kontura are gehiago irabazi.

Lehiakortasunaren izenean azken hamar urteetan zortzi fabrika itxi ditu Candy multinazionalak, hiru Italian, lau Erresuma Batuan eta bat Portugalen.

Honen aurrean, Euskal Herria Sozialistak babes osoa eman nahi die Bergarako Candy Hooverko langileei eta antolatzen ari diren mobilizazio guztiei, eta, bide batez, gure proposamenak egin borroka garaipenean laguntzeko.

Multinazionalaren eraso honek tamaina bereko erantzuna behar du. Egia da borrokak ez direla errazak, enpresak gogor doazela eta langileak asko jokatzen ari direla. Baina enpresak eta multinazionalak ez dira ahalguztidunak, langileok indarra dugu, handia, ondo erabiltzen bada.

Helburu honetan, funtsezkoa da gatazka kanporantz ateratzea. Kapitalisten beldur handiena, alde batetik, borroka bateratua eta, bestetik, langile klasearen antolakuntza dira. Horregatik, pauso garrantzitsua litzateke Bergaran eta Debagoienean gatazkan dauden fabrika ezberdinetako borrokak eta gatazkak bateratzeko eta koordinatzeko lan egitea, eta borrokan dauden enpresen koordinadora bat sortzea enpresa guztietako langileak sufritzen ari diren eraso berberei indar handiagoz aurre egiteko.

Honekin batera, funtsezkoa da eskualdeko biztanleria borroka honetan inplikatzea, itxieraren aurkako mobilizazioak antolatzeko herrietan, auzoetan, poligonoetan eta ikastetxeetan, euren borroka ere baden milaka langile eta gazteren babesa lortzeko.

Elkartasunezko Komiteak antolatu behar dira ezkerreko kolektibo eta erakunde sozialak, sindikalak eta politikoak gehitu daitezen eta ekintza konkretuekin mobilizazioaren arrakastan lagundu dezaten.

Gainera, beharrezkoa da elkartasuna eta batasuna bilatzea multinazionalak Italian, estatu frantziarrean, Turkian, Errusian eta Txinan dituen fabriketako langile eta sindikatuekin.

Candyko zuzendaritzak zatiketa eta beldurra erabiltzen baditu, langileek >

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo, Oxel Arrieta
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

> batasunaren eta elkartasunaren alde egin behar dute apustu. Bergarako lantegiko langileen borroka milaka langileren erreferentzia puntu bihur daiteke. Hau gertatzen bada, multinazionalak jasan beharko lukeen presioa ikaragarria izango litzateke eta beren planak atzera botatzea posible izango litzateke.

Enpresa itxieraren mehatxuaren aurrean langileek fabrikaren okupazioaren alternatiba dute. Hau gertatu da, adibidez, Madrilgo osasun publikoaren aldeko borrokaren garaipenean. Langileek ospitaleak eta anbulatorioak okupatu zituzten pribatizazioari eta kaleratzeei aurre egiteko, eta biztanleriaren gehiengo handi baten babesa lortu zuten. Azkenean, PPren gobernuak atzera egin behar izan zuen.

Eta bai, langile klaseak badu alternatiba lanpostuak eta ekoizpenaren bideragarritasuna bermatzeko: enpresaren nazionalizazioa langileen kontrolpean.

Bergarako Candy publiko batekin, langileen kontrolpe demokratikoan kudeatuta, lan baldintzak eta lanpostuak bermatu ahalko lirateke, eta enpresaren irabaziak ez lirateke gutxi batzuentzat izango, osasun eta hezkuntza publikoa bezalako behar sozialak asetzeko baizik.

Debekuaren aurrean, demokraziaren bidea

Joxe Miel Uribarren Azpiazu
(EAJren GBBko kidea)
Debagoiena

Katalunian azaroaren 9an gauzatutakoagatik inbidia sentitzen dut, inbidia sanoa, geuretzako nahiko nukeenarengatik inbidia.

Gizarte antolatutik sortutako indarrak, alderdi politikoen eta horien buruzagien konpromisoa... Kataluniako herriak bere gogoa askatasunez eta demokratikoki adierazteko aukera izan dezan bat hartu duten osagaiak.

Alderdien artean, bi baiezkoen aldeko apustu garbia egin dutenak batzuk (Bai/Bai), Kataluniak duen herri izaera aitortuz, bere etorkizunaren erabateko jabe izateko duen eskubidearen aldeko hautua ezbairik gabe egin dutenak. Erabakitzeko eskubidearen bitartez, independentziaren aldeko hautua.

Beste batzuk, independentziaren alde egin gabe, erabakitzeko eskubidearen aldarria egin dutenak, kontsultaren alde azalduz.

Horien guztien aurrean, berriz, demokraziari ezetz esan diotenak, erabakitzeko eskubidea ukatu dutenak, beraien burua Espainiako hiritar huts eta ez beste ezer sentituz, hala sentitzen ez direnen eskubide demokratikoa hutsaren parekotzat hartzen dutenak.

Betiko Espainia Bakar, Handi eta Hautsezinaren mendekoak.

Hautetsontzietan 2.305.290 boto pilatu dira, antolatzaileen aurreikuspen baikorrenak ere galanki gaindituz. Kontrakoen amesgaiztoenak ere txiki utziz.

Igandean kataluniarrek gizalegezko lezioa eskaini ziguten. Baita ilusiozkoa, eta indarrezkoa ere bai.

Eta guztiaren erantzule eta aitzindari, Mas president-a, hain gordin kritikatua izan dena: batzuentzat sinesgarritasunik ezagatik, beste batzuen ustetan irtenbiderik gabeko bideari egin diolako. Batzuentzat epelegia, besteentzat ausartegia. Espainolentzat, iseka eta irainaren aitzakia.

Argi dago liderrak zentzuzkoa behar duela izan, herritarren batasuna lortzeko gai, eta Mas-ek ezaugarri horiek dituela egiaztatu du, Kataluniako herritarrek emandako aginduari behar bezala erantzunez. Jendaurrean, eta bereziki Madrilgo gobernuaren aurrean, guztiaren erantzule bezala agertu zuen bere burua, igandean gauzatutako ariketa demokratikoaren *errudun,* etorkizunean Kataluniak hartuko duen ibilbidearen arduradun: "Errudunen bila badabiltza, hemen neu eta neure gobernua", esan zuen.

Katalunian gertatzen ari denaren lekuko izanik, gu ere Espainia *hautsezinari* aurre egiteko gai izango garela espero dut, horretarako herriaren eskuetan utziz erabaki demokratikoa.

Behingoz elkarrekin jardun beharra dugula sinetsi behar dugu, hamarkadetako atzerapena gaindituz, behin betikoz bide politiko eta erabat demokratikoa geureganatuz, eta gutxieneko elkarrekiko begirunea ikasiz.

Iruña–Veleia, SOS

Mikel Errasti Legazpia
Aretxabaleta

Izenburu hau irakurtzen duenak, agian titular handi zein argigarri baten esperoan agertzen bada, ez dezala horrelakorik espero. Horren bila bazabiltza, hobe duzu Juan Mari Elexpuru bergararrak honen inguruan eginda dauzkan artikuluetara jotzea.

Nire asmoa gai honek sortzen didan haserrea adieraztea da. Sei urte luze dira, Iruña-Veleiako grafitoak faltsuak izan daitezkeen akusaziopean ondorioz, epaiketa baten sartuta dagoela. Sei urte luze, non, grafitoak egiazkoak ez direla frogatu nahian, instrukzio penalerako egin diren frogetan, ikuspegi zientifikotik harturik, akats larriak egin dituzten eta susmagarria den gardentasunik gabe jokatu denean. Profesionaltasun falta ala nahita egindako utzikeriaren ondorioz?

Bitartean, akusaturik agertzen den Eliseo Gil-ek ezin du bere errugabetasuna frogatu eta bere burua defendatzerik ez du bere lan profesionala publikoki zalantzan jarri denean.

Horregatik, egoera hau irmoki salatu guran eta Eliseo Gil-i hain beharrezkoa duen elkartasuna eskaintzeko, azaroaren 22an, larunbata, kontzentrazioa egingo da, 12:30ean, Gasteizko Andre Maria Zuriaren plazan.

Oharra: nire ustez, gauzak ez dira kasualitatez gertatzen. Denak dauka zentzu bat. Hasieran, gure iragana, kultura eta ohiturak barregarri uzten eta zokoratzen saiatzen dira, eta, azkenean, inongo errurik ez daukaten haurtxo batzuei elektrizitatea mozten bukatzen dute euskaraz ikasi ez dezaten, Ziburuko ikastolan gertatu den bezala.

Santa Juana, irainak, gaitzespenak, eskubideak, eta abar

Janire Axpe
Arrasate

Pasa den urriaren 31n burututako ekimena eta Arrasateko Udalaren gaitzespena direla eta, honako hau adierazi nahi dugu ekimen hura aurrera eraman genuenok:

-Gure ekintzak ez duela zerikusirik aurretik San Juan Bataiatzailearen irudiak jasandako erasoekin; hau da, besoaren eta bildotsaren lapurretarekin. Arrasateko historia ondarearen parte diren elementu guztiak errespetatzen ditugu.

-Ekintza sinboliko honetan santuaren irudiak ez zuen kalte fisikorik jaso (ez zen apurtu, ez margotu, ez lekuz aldatua izan...). Gau hartan egindako aldarrikapen politiko baten kanpaina baten barruan sartzen da.

-Gure helburua eredu patriarkalaren inguruko eztabaida bat sortzea da, non, gure ikuspuntutik, Eliza den eredu horren motor.

-Ez dugu uste San Juanen "sexualitatea" dudan jartzeak inor irain dezakeenik, guztiz kontrakoa, sexualitatea ez da gizon edo emakume izateaz definitzen, askoz zabalagoa da. Norbait iraindua sentitzen bada, ez du pertsonen arteko berdintasunean sinisten, eta ondorioz hetero-arauen menpe bizi da.

-Eliza da gizartearen askatasunei muga jartzen diena. Berak mantentzen ditu emakumeenganako bazterkeria eta, zer esanik ez, heterosexualak ez diren pertsonenganako jazarpen eta irainak.

-Udaleko hainbat alderdik gure ekintza iraingarri eta profanazio bezala jo dute edo "elkarbizitza eta errespetuaren aurka" doala esan dute, baina Eliza Katolikoa da gure gizartean elkarbizitza eta errespetuaren aurkako erasoaren paradigma. Guk iraingarri jokatu badugu, zelan definitu beraien jokaera? Ahaztu al ditugu homosexualen kontrako jarrerak, "familiaren" izenean? Eta abortuaren aurka egindako adierazpenak?

-Zuzentasun politikoari gehiegizko garrantzia ematen ari zaiola uste dugu, garrantzi handiagoko gai batzuk alde batera uzten diren bitartean. Hau bereziki larria da, protesta eskubidea bera zalantzan jartzen delako. Guk protesta egiteko eskubide osoa dugu. Horregatik, baten bat irainduta sentitzen bada, bere arazoa da. Baina ezkertiarra eta abertzalea ei den udal batek elkarbizitzaren izenean (!) protesta soil bat kriminalizatzeak zer pentsatua ematen du, benetan.

Honenbestez, lanean jarraituko dugu gizarte hetero-patriarkala amaitu arte! Amen.

EAJri, Arrasateko Azoka Plaza proiektutik desbinkulatu egin dela eta

Maider Sagredo (Emaus), Elena Zarate (Arrasateko Garagunea), Gorka Martinez (Harreman denda), Nagore Iraola (Bagara), Eneko Barberena (Txatxilipurdi) eta Jesus Mari Elkoro (Ibai-Arte)
Arrasate

Gure nahien kontra iritzia prentsan azaltzera beharturik sentitu gara Gureztatuko Talde Eragilea osatzen dugun eragileok.

Hiru urte daroagu azokaz hausnartzen, norbanako eta eragile askoren iritzia jasoaz, eta duela bi urte erabaki zen Azoka Plaza egun den kokagunean ezartzea. Lehen sakoneko erabakia, asko pentsatua, ekonomia, herri antolaketa eta plano soziala aintzat izan zituena. Han zen EAJko bozeramailea, ez zuen ezadostasunik. Erabaki horrek bideratu du urteotako lana.

Sorturiko lantalde ezberdinek eraikin horren gainean egin zuten lan, kokagune hori buruan.

Udalak ere, zuen aldeko botoaz, eraikin hori kontuan izan du, eta horren seinale da igogailua edo herribusaren ibilbidea aldatzea.

Udan kokagune berria proposatu zenuten, erabakiak aldatzeko oraindik ez ei zen berandu. Zenbait eremutan, prentsan esaterako, gaiak izan duen isla ez dugu gustuko izan. Utz dezagun Azoka Plaza alderdi lehiatik at.

Talde Eragileak ikusirik zuentzat eskaerak zuen garrantzia, Hirigintza Sailari txosten bat eskatu zitzaion Biteri plazan azoka jartzeko aukera aztertuz. Txostena eskuan, ez dugu bideragarri ikusten azokaren osotasuna berton jartzea. Zuen asmoak ez du jasotzen Azokarako eginiko egitasmoa eta azken urteotan adostutakoa zakarrontziratzen du.

Biteri estrategikoa da aire libreko ekitaldiak antolatzeko. Estaliz gero, zein da geratzen zaigun aukera, Iturripe? Prezio altuegia da hori, herrian eztabaida merezi duena. Azoka Plazak ez du kokaleku txarra, gertu dago Seber Altube, Kulturate edo Biteritik. Eraikinak berak uste dena baino aukera gehiago ditu, eragileok praktikan egiaztatu moduan.

Sinatzaileok uste dugu eraikina ez dela berme, atzetik jarduerarik ez bada. Biterik oso metro karratu gutxi ditu jarduerak egiteko, eta eragozpen teknikoak (zimentazioa, etab.). Honela ezin dugu azoka bultzatu ez beste hamaika kontutarako baliatu. Bideragarriena da egungo kokagunea, zentzudunena eta arrisku gutxien asumitzen dituena.

Eskertzen dizkizuegu orain arte egin dituzuen ekarpenak, ateak zabalik dituzue gurera itzultzeko. Dugun sentsazioa da benetan ez gaituzuela ez gu ez gure lana aintzat hartu.

Espero dugu prentsan gai honekin idatziko dugun azken gutuna izatea, ez dugu xestran aritu nahi urte delikatu honetan.

Halere, prest gaude herritarren aurrean azoka proiektu ezberdinak aurkeztuko badira publikoki eztabaidatu eta iritziak elkartrukatzeko.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

DUELA 10 URTE

2004-10-29

Iñurrategik, Kalitate saria

Kalitate saria eman zioten Kursaalen Alberto Iñurrategi aretxabaletarrari. Kalitatea Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak sortutakoak dira Kalitate sariak. Hiru sari banatu zituen eta horietako bat Alberto Iñurrategik jaso zuen, euskal mendizaletasunaren izenean, Euskal Herriaren irudi ona kanpora ateratzen laguntzeagatik. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eman zituen sariak.



Iñurrategi | ARGAZKI PRESS

2004-10-29

Lagun Arotik Osakidetzara

2004ko urrian jakin zen Lagun Arok utzi egingo ziola kooperatibetako bazkideei osasun zerbitzu berezia eskaintzeari. Horren onuradun ziren 15.000 debagoiendarrak 2015eko urtarriletik Gizarte Segurantzako afiliatu egingo zirela jakin zen. Urtarriletik aurrera familia-medikua eta farmazia zerbitzua Osakidetzatik hartuko zituztela. Egokitze hori epeka egingo zela ere esan zuten; bost urtean egingo zela.

DUELA 5 URTE

2009-10-23

Errotarria Atxorrotzen

"Oso ondo landutako" errotarri bat topatu zuten Atxorrotzeko indusketan. Sorpresa izan zen; izan ere, lan haietan ibili zen Iñaki Sagredo historialariak adierazi zuenez, ez zuten halakorik aurkitzea espero. Horrez gain, balezta-punta bat, lantza bat, ezpata bat eta txanponak ere aurkitu zituzten, besteak beste.

HERRITARRAK

OÑATI

Luis Maiztegi Zigilu eta txanpon artean ordu asko pasatzen ditu, "bildumak ondo egitea" gustatzen zaiolako. Zapatuetan, baina, mendira joaten da lagunekin. | OIHANA ELORTZA

"Kalean galdetuz gero, inork ez luke jakingo zigilu batek zenbat balio duen"

Luis Maiztegi, Errementeri plazan, joan den astean. | O.E.

Zeka Oñati taldeko kide da Luis Maiztegi. Lauzpabost lagun dira taldean, baina herrian 30 lagunek inguruk ei dute zigiluekiko eta txanponekiko zaletasuna. "Gero eta gutxiagok, tamalez", dio.

Zenbat urte daramatzazu zigiluen eta txanponen bildumak egiten?

Duela 23 urte sortu zen Zeka Oñati taldea. Aurretik, nork bere kontura egiten zituen, eta taldetxo baten batu ginen gero.

Zenbat ordu eskaintzen diozu zaletasun, afizio, horri?

Uf... Ez nuke jakingo erantzuten. Bulegora egunero etortzen naiz, hori bai.

Jende askok du zaletasun hori?

Gero eta gutxiagok, egia esan. Australiako eta Kanadako bi zalerekin harreman ona nuen. Zigiluak elkarbanatzen genituen, eta baita istorio asko ere.

Historia ikasteko modu bat ere bada zigiluak eta txanponak biltzea?

Bai. Zigilu asko, esaterako, gai baten ingurukoak ateratzen dituzte, tematikoak dira. Adibidez, animaliei, trenei edo eraikinei buruzkoak. Horien bilduma egiten hasiz gero, gai horri buruz gehiago jakitea lortzen da.

Zuk zeri buruzkoa egiten duzu?

Txantxikuei buruzkoa. Txantxikuak ageri diren zigiluak lortzen saiatzen naiz, mundu osokoak. Behin lortuta, fitxa egiten diet: txantxiku hori non bizi den, ze tamaina duen, zein kolore...

Nola lortzen dituzu?

Espainiak, esaterako, hiru hilean behin aldatzen ditu zigiluak, eta berriak dauden bakoitzean etxean jasotzen ditut. Batzuk gorde eta beste batzuk trukatu egiten ditut.

Estatu bakoitzak erabakitzen du noiz eta zenbat zigilu atera?

Bai. Frantzian, Alemanian, Suitzan eta Ingalaterran, esaterako, oso gutxi ateratzen dituzte urtean. Horretan estatu serioak direla esan daiteke. Afrikako edo Hego Amerikako estatu batzuetan, aldiz, 300 edo 400 zigilu berri ateratzen dituzte urtero.

Zuek ere bat baino gehiago atera dituzue Oñatiko edo Oñatirekin lotura izan duten pertsonaiak eta ekitaldiak kontuan izanda.

Urteurren seinalaturen bat baldin badago, haren ingurukoa ateratzen dugu, bai. Turismo Bulegoan egoten dira gero. Letradun zigiluak izaten dira gureak. *A* letra dutenak, zehatz esanda. Hau da, ez du jartzen zenbat balio duen, baina gaur erositakoa erabil daiteke hamar urte barru ere. Ez du baliorik galtzen. *B* letra dutenekin ere berdin gertatzen da. Horiek, baina, nazioarteko balioa dute.

"Mundu osoko txantxikuen zigilu bilduma ari naiz egiten"

"Lortzeko txanpon zailenak Monako eta Vatikanokoak dira; oso garestiak dira"

Kalean galdetuz gero zigilu batek zenbat balio duen, zenbatek erantzungo lukete zuzen?

Inork ez. Jendeak ez ditu zigiluak erabiltzen.

Berdin gertatzen da txanponekin ere?

Bai. Normalean, bilduma konkretuak egiten ditugu bildumazaleok. Adibidez, dolar laurdeneko balioa duen txanpona atera zuen AEBetako estatu bakoitzak eta AEBetako parke naturalen inguruko txanponak ere atera zituzten. Nik bi eurokoen bilduma egiten dut.

Oroimenezkoak ere izaten dira batzuk, ezta?

Bai. Frantzian eta Belgikan, esaterako, I. Mundu Gerrari buruzkoa atera dute. Alemaniak urtero ateratzen du 10 euroko zilarrezko txanpona. Espainian ere badaude horrelakoak. Lortzen zailenak, hala ere, Vatikanokoak eta Monakokoak dira. Oso garestiak izaten dira horiek.

Egin duzue mendi ibilaldien aurtengo egutegia?

Horretan gabiltza. Joan den zapatuan egin genuen lehen irteera. Perusaroin bazkaldu genuen denok, aurtengo irteeren egutegia zehazteko.

Korrika egiten duzu oraindik?

Gustatzen zait, bai, baina tarteka egiten dut.

Ez zaitugu Behobia-Donostian ikusiko, beraz?

Ez, ez. Gainera, horrelako lasterketa jendetsuak ez zaizkit gustatzen. Aralarko eta Gasteizko mendi martxetan parte hartu izan dut, baina utzi egin nion. Korrika ere berdin, nire kasa ibiltzen naiz, baina lasterketetako jendetza ez dut atsegin. Torreauzoko krosa, esaterako, hogei urtean ibili naiz antolatzen, beste batzuekin batera.

NIRE HERRIAN

INGURUAK ETA LOPE AGIRREKOA

Herriko eraikinak, monumentuak eta parajea gustatzen zaizkit. Asentzio eta Bixain aldeko inguru horretan, adibidez, herritar asko ibiltzen dira paseatzen. Bestalde, Lope Agirrekoa ere gustukoa dut, neurri baten, koloreen kontra egin zuelako. Uste dut jarrera hori gehiagotan edo gehiagok hartu beharko genukeela.

ZIKINKERIA ETA HERIOTZA

Ez zait batere gustatzen, esaterako, kaleak eta erreka bazterrak zikin ikustea. Horiek garbi behar dute egon. Bestalde, herritarren bat hiltzen denean gogorra egiten zait. Hildakoa edadetua bada, pentsatzen dut betiko desagertu direla lehengo bizimodua, lehengo ohitura zaharrak, lehengo istorioak. Horrek pena ematen dit.

HERRIAK

ARETXABALETA

Hemengo laguntza, hango garapenerako

Udalak diruz laguntzen dituen gobernuz kanpoko erakundeek proiektuak aurkeztuko dituzte hilaren 24an

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Bertako mugetatik harantzago begiratu eta milaka kilometrotara dauden herri txikiak laguntzen diharduten gobernuz kanpoko erakunde asko eta asko daude, baita hemen ere. Aretxabaletako Udalak hainbati ematen die laguntza, proiektuak dagokien herrialdean aurrera eroateko. Eta herritarrek ere proiektu horien berri izan dezaten, datorren astelehenean, azaroaren 24an, aurkeztu egingo dituzte Arkupen, 18:00etan.

Aurkezpena eta eztabaida

"Iaz hasi ginen aurkezpenokin. Uste dugu oso interesgarria dela herritarrek jakitea, batetik, Udalak zeini ematen dion laguntza; eta bestetik, talde horiek zertan dabiltzan lanean", argitu du Myriam Beltran de Herediak, Udaleko Prebentzio teknikariak.

Iaz legez, Debagoieneko sei GKEk jaso dute laguntza; horien artean, bi aretxabaletarrek: Hiruatxek eta Baltistan Fundazioak. Talde bakoitzak hamar minutu izango ditu astelehenean proiektuaren berri emateko; ondoren, herritarren galderak erantzungo dituzte eta eztabaidarako tartea zabalduko dute.

Baltistan eta Hiruatx

Baltistango Hushe bailarako komunitateetan bizi direnen giza garapenean eta bizi kalitatean laguntzeko sortu zen Baltistan Fundazioa, 2001ean. "Beharrezko gaitasunak eta azpiegiturak eskaintzea izan da helburua, gizon eta emakumeentzat berdintasunezkoa izango den garapen ekonomikoko eredu propio eta iraunkorra sustatu eta kudea dezaten han bertan", diote fundazioko kideek.

Hiruatx taldeak, ostera, hogei urtetik gora daramatza lanean. Indian (esne bufalen ekoizpena, eskolak...) hasi zuen lehen proiektua, eta gero etorri dira asko: Ekuador (oilategiak, onddoen ekoizpena...); Ekuatore Ginea (nekazaritza proiektuak...); Brasil; eta orain, Mozambike. "Balama distrituan nekazaritza sustatu eta elikadura hobetu gura ditugu. Hala, anakardo-zuhaitzak landatzeko proiektuan gabiltza Mundukiderekin elkarlanean. Fruitu horiek saldu eta nekazarien bizi baldintzak hobetzea da asmoa", jakinarazi du Iñigo Truebak, Hiruatxeko kideak.

Anakardo landareei begira Balaman (Mozambike). | HIRUATX

Baltistanen nekazariak. | BALTISTAN FUNDAZIOA

Amsogra

EGOITZA Arrasate.

PROIEKTUA NON Mozonte, Nueva Segovia (Nikaragua).

PROIEKTUA Etxebizitza duinak eta osasuntsuak eraikitzea.

HELBURUA Coco errekaren hegoaldean bizi diren nekazarien bizimodua hobetzea, batez ere emakumeena.

ONURADUNAK Familia bat (dagoeneko hamahiru etxe eraikita).

Hiruatx

EGOITZA Aretxabaleta.

PROIEKTUA NON Cabo Delgado (Mozambike).

PROIEKTUA Balama distrituko garapen sozioekonomiko programa, anakardoen ekoizpena.

HELBURUA Nekazarien bizi baldintzak hobetzeko, era zuzen eta iraunkorrean aldaketarako prozesu endogenoan sortzen lagundu.

ONURADUNAK 126 nekazari (guztira, 271).

Baltistan fundazioa

EGOITZA Aretxabaleta.

PROIEKTUA NON Hushe bailara, Baltistan (Pakistan).

PROIEKTUA Emakumeen eta orokorrean bailarako oinarrizko osasun baldintzak hobetzeko jarduerak bultzatzea.

HELBURUA Emakumeen eta jaioberrien osasun baldintzak hobetzea.

ONURADUNAK 5.470 emakume eta jaioberriak.

MSH (Mundu Solidarioa Helburu)

EGOITZA Arrasate.

PROIEKTUA NON Diriamba (Nikaragua).

PROIEKTUA Gaitasun urrituak dituzten gazteen integrazioa lortzea (2000n abian jarrita).

HELBURUA Gaitasun urrituak dituzten gazteen lan eta gizarte integrazioa babestea eta sustatzea.

ONURADUNAK 48 nerabe eta heldu.

Ndank Ndank

EGOITZA Bergara.

PROIEKTUA NON Senegal.

PROIEKTUA Dionwar 02ko eskolako egokitze proiektuaren bosgarren fasea: liburutegiaren eraikuntza.

HELBURUA Eskolan liburutegia eraikitzea eta egokitzea: liburuak, lanerako materiala eta ordenagailuak.

ONURADUNAK 321 ikasle, zazpi irakasle eta ikasleen gurasoak.

Oscar Romero

EGOITZA Bergara.

PROIEKTUA NON Tabuka, Ahuachapen departamendua (El Salvador).

PROIEKTUA Ura eta ekosaneamendua, genero ikuspegiarekin, Chagüite zentro komunitatean.

HELBURUA Baldintza higienikoak eta osasungarritasuna hobetzea, genero ikuspegiarekin.

ONURADUNAK 2.167 lagun.

Errekei erabilera ludikoa emateko SUDC elkartearen proposamena

Zerrajera inguruan "ibai-portu" bat eta Munarren "ibai-parke" bat jartzeko babes bila dabiltza

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

SUDC elkarteak beste proiektu "interesgarri" bat dauka esku artean. Zerrajeran "ibai-portu" bat eta Munarren "ibai-parke" bat egokitu gura dituzte, arrasateарrek erabilera ludikoa eman diezaieten. Orain, errekak garbiago datozela aprobetxatuta, bertan bainua hartu edo askotariko jarduerak egiteko "ametsa" errealitate bihurtu gura dute, duela 50 bat urtera arte ematen zitzaion erabilera berreskuratu: "Gazte denboran errekak sekulako jolaslekuak ziren guretako, denbora luzeen bertan ematen genuen. Oso zaila da hori ezagutu ez duenari azaltzea; horretan gabiltza, herriko elkarte eta eragileak konbentzitu guran. Izan ere, inbertsio oso txiki batekin errekak berreskura ditzakegu", adierazi du SUDC elkarteko Jesus Markaidek.

Markaide eta Arkauz, Zerrajeran, Aramaio erreka atzean dutela. | JOKIN BEREZIARTUA

Harrera ona orokorrean

Proposamena proiektu bihurtzeko herriko zenbait eragilerekin egon dira dagoeneko, eta, diotenez, ona izan da erantzuna orokorrean, baita Udaletik ere. Hori bai, proposamena da oraindik, eta, besteak beste, Ura agentziaren baimena beharko lukete aurrera egin dezan: "Saiatu egingo gara proposamena aurrera eramaten. Jendearen babesa behar dugu eta Ura agentziakoak konbentzitu behar ditugu baimena eman dezaten", dio Markaidek. Askotariko jarduerak egiteko aukera ikusten dute sustatzaileek. Zerrajeraren kasuan, adibidez, esklusa bat jarrita errekaren maila bost metrora igotzeko aukera egongo litzateke, horrela gune hori nabigagarria izatea lortuta.

SUDC elkarteko presidente Juan Luis Arkauzek ere uste du proiektu polita izan daitekeela: "Erreketan ura garbi dator orain. Zergatik ez erabili erreka horiek, lehen moduan, bainatzeko edo bestelako ekintzetarako?". Igeriketa, piraguismoa, jaietan kukaña, arraunketa... Hainbat ekintza egin daitezkeela uste dute. Proposamen irekia da, oraingoz, eta herritarrak gonbidatu dituzte iradokizunekin bat egitera, ahalik eta babes handiena lortzeko. Aurrerago, Udalan aurkeztuko dute proposamena zehaztasun handiagoekin.

OHARRAK

1959AN JAIOTAKOAK

Bihar, hilak 22, elkartuko dira kintada ospakizunerako. Egun osorako egitaraua antolatu dute: Kajoi tabernan elkartuko dira, 11:30ean; ardo dastatzea egingo dute han, eta horren ostean, poteoa egingo dute herriko kaleetan zehar. 14:00etan talde argazkia aterako dute Herriko Plazan eta 14:30 aldera hasiko da bazkaria Uarkapen.

1988AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 29an egingo dute ospakizuna. 13:00etan elkartuko dira Arbolapetan eta poteoa egin ostean bazkaria egingo dute, kopuruaren arabera orain-dik zehaztu gabe dagoen jatetxean. Izena emateko 3035 0001 50 0010139146 kontu korronte zenbakian 40 euroko ordainketa egin beharko da, norberaren izen-abizenak adierazita.

100 kilo gaztaina erre banatuko ditu gaur Arrasate Herri Eskolak

Duela 20 bat urteko ohiturari eutsiz, Arrasate Herri Eskolakoek gaztaina erreak banatuko dituzte, doan. Ekitaldia gaur izango da, 17:30ean, Herriko Plazan. "Herritarrekin bat egiteko" asmoz antolatzen dute jaia urtero, eta, beraz, deialdi irekia da erabat. 100 kilo inguru banatuko dituztela aurreratu dute antolatzaileek.

Osasuna eta elikadura hizpide hartuta, saio interesgarria domekan

Ongizatea eta osasuna izenburupean, elikaduraren eta ohitura osasuntsuen gaineko hitzaldia antolatu du domerako Elkarhezitzen-ek. Elkartearen egoitzan izango da, Altamirako Jose Luis Iñarra plazan. Pedro Mari Bastegieta baserritar ekologiko ezaguna izango da hizlaria.

Heziketa emozionala lantzeko hitzaldia azaroaren 27an

Hiesaren Kontrako Borrokaren Nazioarteko Egunaren harira antolatutako egitarauaren barruan, Eli Moreno psikologoak hitzaldia egingo du hilaren 27an *Zoriontasunaren bila: heziketa emozionalaren garrantzia* izenburupean. Kulturateko Jokin Zaitegi gelan izango da (18:00).

Euskararen kale erabilera orokorra %34koa da

Euskararen Eguneko ekintzen barruan egin da azken azterketaren aurkezpena

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Euskararen kaleko erabilera orokorra 20 puntu igo da Arrasaten 1988tik 2013ra: %14tik %34ra, hain justu. Hortaz, ondoriozta daiteke euskararen erabilerak nabarmen egin duela gora azken 26 urteotan, Soziolinguistika Klusterreko teknikari Belen Urangak eguazten iluntzean Kulturaten aurkeztu zituen datuen arabera.

Datuok Udalak eta AEDk batutako informaziotik atera ditu Urangak. Hiztuna behatua izaten da konturatu gabe eta azken ikerketak herriko kalerik jendetsuenetan, eskolen atarietan, BAZen eta pintxo-potean egin dira.

Hainbat faktore aintzat hartzen

Hainbat eta hainbat datu eman zituen Urangak eta guztietan kontuan hartu beharreko faktoreak ere azaldu zituen. Adibide bat jartzearren: eskolak euskaldunak direnez eta BAZ Udaleko zerbitzu bat denez, ikertzaileek uste dute leku horietan euskaraz egiteko joera handiagoa dela. Datuen artean nabarmentzekoa da pintxo-potean arrasatearren %44k euskaraz egiten dutela. Kopuru hori handiagoa da gazteen kasuan, haietako %62k euskaraz hitz egiten dute-eta. BAZen, berriz, euskara ahoz erabiltzen dute herritarren %32k, idatziz %35ek eta telefonoz %60k.

Ezagutzari dagokionez, hona hemen datu interesgarri bat: ume arrasatearren artean, %90koa da ezagutza, duela 25 urte baino 36 puntu handiagoa –1986an %54, 2011n %90–. Igoera nabarmena, herriko hamar haurretatik bederatzi euskalduntzeraino.

Euskararen aldeko 'selfie'-ak

Aurkezpena Euskararen Eguneko ekintzen barruan egin zen, eta ekintzak hasi besterik ez da egin: hilaren 26an, Andoni Egañak *Euskara: zelan goaz?* izeneko hitzaldia egingo du Kulturaten (19:00). Abenduaren 3an, Euskararen Eguna, *Zu ta Gar* ekitaldi nagusia egingo da, txokolate-janarekin batera. Herriko Plazan izango da, 18:00etan. Amaitzeko, AEDren *Erdaldun berrien kluba* antzezlana eskainiko dute abenduaren 4an Kulturaten (19:00).

Erronka moduan 365 *selfie* edo auto-argazki lortzea jarri dute aurten AEDkoek. Epea azaroaren 24tik abenduaren 8ra artekoa izango da eta, horretarako, *#365egunArrasaten* traola erabili behar da. GOIENA paperean erakutsiko dira horietako batzuk.

Soziolinguistika Klusterreko teknikari Belen Urangak egin zuen datuen aurkezpena eguazten iluntzean. | JOKIN BEREZIARTUA

Urriaren 31n San Juanen sexualitatea "zalantzan" jarri zuten. | GOIENA

San Juanen irudiari eginikoa, "aldarrikapen"

Urriaren 31ko "ekintza sinbolikoaren" egileek diote protesta egiteko "eskubide osoa" dutela

J.B. | ARRASATE

Urriaren 31n San Juan Bataiatzailearen irudiari "San Juan edo Santa Juana?" mezua jarri ziotenek gutun bidez jakinarazi dute ez dutela zerikusirik izan abuztuko apurketa eta lapurretarekin: "Arrasateko ondarearen parte diren elementu guztiak errespetatzen ditugu". Eurena "ekintza sinbolikoa" eta "aldarrikapen politikoa" dela diote: "Gure helburua eredu patriarkalaren inguruko eztabaida sortzea da. Eliza da gizartearen askatasunei muga jartzen diena".

Era berean, protesta egiteko "eskubide osoa" dutela diote: "Ez dugu uste San Juanen sexualitatea dudan jartzeak inor irain dezakeenik. Sexualitatea ez da gizon edo emakume izateaz definitzen, askoz zabalagoa da. Iraindua sentitu denak ez du pertsonen arteko berdintasunean sinisten, eta hetero-arauen menpe bizi da. Lanean jarraituko dugu gizarte hetero-patriarkala amaitu arte". San Juanen irudia berritzen ari dira orain. Gutuna osorik irakurtzeko, jo 8. orrialdera.

Etxaluze eta Musakola arteko bizikleta bidea, aurrera

J.B. | ARRASATE

Bizikleta Mahaian adostutako irizpideen arabera idatziko da Etxaluzetik Musakolara joango den bizikleta bidearen proiektua. Udal gobernuak asteon onartu du proposamena, eta proiektua datorren urtearen hasieran erakutsiko da jendaurrean. Bi irizpide nagusi adostu dira Etxaluze eta Musakola lotuko dituen bizikleta biderako. 30 kilometro orduko abiadura muga duen errepide tartean, bizikletendako segurtasuna bermatzen bada, bidea partekatuko da autoekin.

Aldiz, 40 kilometro orduko abiadura muga dagoen errepide tarteetan bizikletendako bide berezitua egongo da, beti ere bideak eta espazioak uzten badu. Bigarren irizpidea izan da bizikleta bideak egiteko ez zaiela oinezkoei lekurik kenduko. Bestalde, obren exekuzioaren inguruan, mahaiaren proposamena da obra osoa ahalik eta lasterren eta aldi berean egitea. Edozelan ere, faseetan eginez gero, obrak bi zatitan egin beharko lirateke: Maala eta Musakola arteko zatia, batetik, eta Kontzezino eta Maala artekoa, bestetik.

ARRASATE HERRI ESKOLA

Herri eskolakoak Pagoetara

Pagoeta inguruan ibili ziren Arrasate Herri Eskolako neska-mutikoak joan den aste bukaeran. 2 eta 11 urte bitarteko umeak Urdanetatik hasi eta Aiaraino joan ziren eskolako guraso elkarteko kideen gidaritzapean. Hilero egiten dute halako irteeraren bat, eta, beraz, abenduan egingo dute hurrengo txangoa.

zenbaki
aholkulariak-abokatuak

CERT ISO 9001

GARANTÍA DE ALQUILER

• **Juridikoa:**
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

Udalbatzak, 2014ko azaroaren 4an egindako bilkuran, hasiera baten onartu zuen Arrasateko hiri antolamenduaren plan orokorra.

Plan orokor hori osatzen duten agirien artean dago *Ingurumen jasangarritasunari buruzko txostena*. Plan orokorra, bere osotasunean, jendaurrean jarri da, **2015eko urtarrilaren 27ra arte**, dagozkion alegazioak aurkez ahal izan daitezen.

Agiria udaletxeko Hirigintza Departamentuan dago ikusgai, eta baita ere Udalaren webgunean (**www.arrasate-mondragon.org**).

Adierazten da plan orokorrari hasierako onespena emateak berekin ekarri duela edozein eratako onarpenak, baimenak eta lizentziak emateko aukera etetea planean xedatutakoaren ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldaketak izan dituzten eremuetara. Etete horren gehieneko epea bi urtekoa izango da.

Arrasate, 2014ko azaroaren 12a

Amaia Larrañaga Galdos
JARDUNEKO ALKATEA

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal Saila

Bihar estreinatuko da 'La rosa del azafrán' zarzuela, Amaian

Gaztela-Mantxan kokatuta dago zarzuela, azafrai-lorea jasotzeko garaian

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Zarzuela iritsi da Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren eskutik, eta *La rosa del azafrán* zarzuelaren lau emanaldi egingo dituzte Amaia Udal Antzokian, bi asteburutan banatuta; asteon izango da estreinaldia. Bihar egingo dute ikuskizunaren lehenengo emanaldia, 19:30ean. Hilaren 23an eta 29an ere, ordu berean izango dira emanaldiak eta 28an, aldiz, 20:00etan hasiko da.

Prestaketa lana itzela izan da; martxoan hasi ziren prestaketa lanekin, eta talde handi bat koordinatzea ez da erraza. 100 lagundik gora arituko dira taula gainean Arrasate Musikaleko orkestrarekin batera. Aipatzekoa da aurtengoa hamabosgarren aldia dela elkarte lirikoak zarzuela egiten duena.

Emanaldiaren entseguetako bat. | OIHANA ELORTZA

Dekorazioa eta eszenografia

Abeslariez gain, oso garrantzitsua da zarzuela batean ikusten dena. Gaztela-Mantxan girotuta dago obra hori, azafrai-lorea jasotzeko garaian, eta giro horren ezaugarrietara moldatu behar izan dute dekorazioan eta eszenografian aritu direnek. Ana Cristina Zabala ibili da horretaz arduratu den laukotea gidatzen: "Ni ibili naiz taldea zuzentzen, baina guztiok eman ditugu ideiak, eta, horrela, denon artean joan gara eszenografia moldatzen", azaldu du.

Dekoratua egiteko orduan, Amaia antzokiko dimentsioak kontuan hartu behar izan dituzte; izan ere, pertsona askok hartzen dute parte zarzuelan eta espazioa ere neurtu behar da.

Gaztela-Mantxako lurraldearen ezaugarriak islatzea ez dela zaila izan gaineratu du Zabalak. "Ekintzak non garatzen diren begiratu genuen. Etxalde edo kortijo antzeko bat irudikatu behar izan dugu; atari bat dute eraikuntza horiek, eta hori garatu gura izan dugu. Bestetik, zelaiak daude; garia jasotzen dute bertan, eta hor errota bat irudikatu behar izan dugu. Oso garrantzitsua da dekoratua, baina esan beharra dago inportanteagoak taula gainean daudenak direla", gaineratu du Zabalak.

Santa Zezilia omentzeko Arrasate Musikaleko ikasleen kontzertua

A. L. | ARRASATE

Bihar, azaroak 22, Santa Zezilia eguna da, musikarien eguna. Hura da musikarien patroia. Hori dela eta, Arrasate Musikaleko ikasleek, urteroko ohiturari jarraituz, euren patroiari eskainitako kontzertua emango dute: gaur izango da, 18:30ean, Kulturaten. Kontzerturako sarrera doakoa izango da.

Askotariko piezak

Ikasturte hasieratik daramate Arrasate Musikaleko ikasleek gaurko kontzertuan eskainiko dituzten piezak entseatzen. Hain zuzen, askotariko instrumentu eta musikariak ikusi eta entzuteko aukera izango da, taldean zein bakarka.

Klasikoetatik doinu modernoenetaraino egingo dute salto Arrasate Musikalekoek: *Ixil-ixilik* kantu herrikoia, Led Zeppelin-en *Starway to Heaven* eta One Republic-en *Counting Stars* kantu ezagunak izango dira, besteak beste, Kulturaten entzungai egongo diren piezetako batzuk. Ez dute, ordea, gaztetxoenek bakarrik erakutsiko euren abilezia musikala; izan ere, Arantzazu Idigorasek zuzendutako Senior's taldeak ere entzuleen belarriak goxatuko ditu (ikasle helduxeagoek eratutakoa).

Arrasate Musikaleko ikasleak. | EDORTA AIASTUI

Uarkape dantzan jarriko du Herrixa Dantzan saioak

Askotariko dantzak egongo dira: Euskal Herriko eta Europako doinuekin izango dira gaur

A. L. | ARRASATE

Ikasturte hasieran hasi zituzten dantza ikastaroak Herrixa Dantzan-ekoek, eta, hilero legez, jendea dantzan egitera animatzeko saioa antolatu dute Portaloi elkartekoek, Uarkape pilotalekuko tabernan. Ikasturte honetako hirugarren saioa da; izan ere, hileko hirugarren egubakoitzetan egiten dituzte saio horiek. Aste honetakoa, noski, gaur izango da, 19:30etik 21:00era.

Orain arteko partaidetza azpimarratzekoa da. Portaloi Elkartetik adierazi dutenez, 30-50 pertsona inguru joaten dira Uarkapera dantzan egitera, betiere, astearen arabera. Aipatzekoa da saio horietako partaidetza doakoa dela.

Askotariko dantzak

Patxi Monterok gidatutako dantzaldia musika eta dantza tradizionalekin osatutakoa da: sokan, bikoteka, soltean, taldeka, korroan... egiteko dantzak dira.

Normalean, euskal erromerietan plazetan jotzen dituzten abestiak dantzatzen dira: fandangoak, arin-arinak, zortzikoak... Hala ere, ez dira soilik hemengo doinuan entzungo; Europako kontradantzak egiteko kantuak ere izango dira.

Pozik daude antolakuntzakoak partaidetzarekin. Saio horien helburua da animatzen diren herritarrek elkarrekin dantzan ondo pasatzea. Gainera, Portaloitik saio horietan herritar gehiago parte hartzera animatu gura dituzte, batetik, doinu horiek motibagarriak direlako, eta bestetik, gorputza, burua eta bihotza lantzeko dantza egitea onuragarria delako.

Bertso-jinkana eta Azkaiter Peloxen kontzertua gaztegunean

A. L. | ARRASATE

Bi hitzordu izango dira asteburuan gaztegunean: batetik, bertso-jinkana egingo dute bihar, 17:30ean, eta bestetik, etzi, domekan, Azkaiter Peloxen kontzertua egongo da, 18:30ean hasita.

Bertsolaritza euskal kulturaren ikono nagusienetako bat dela esan daiteke, sortzailetasunaren isla eta mugimendu oso baten oinarri. Hori ikusita, Txatxilipurdikoek euren aisialdiko zerbitzuetan bertsoen mundua gaztetxoenei ezagutarazi eta gerturatu nahi izan diete. Orain arte, bertso-afariak antolatu izan dituzte, baina ikasturte honetan, bertso-afariak egiteaz gainera, bertso-jinkana antolatzea egoki ikusi dute, hemengoa den ohitura hori bultzatzeko eta zabaltzeko.

Dokumentala ere bai

Esan bezala, Azkaiter Peloxek kontzertua eskainiko du, baina, horretaz gain, primizian *11 urte Azkaiter Pelox* dokumentala ere aurkeztuko du. Gainera, bergararraren bisita *Gazte tentsioa* irratsaioa egiteko ere baliatuko dute.

arbolapeta
arrasate
beinke

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian
Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak
Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Gili Gili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Joan den domekan, UDA B-ren eta Mondraren arteko derbia. | IMANOL SORIANO

Partidu garrantzitsua izango du Mondrak Getariaren aurka etzi

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Aurreko astean UDA B-ren aurkako derbia 0-1 irabazi ostean, etxean jokatuko du talde arrasatearrak 10. jardunaldi honetan. Bosgarren garaipenaren bila joango da eta Getariako mutilen aurka lehiatuko da. Mojategin izango da norgehiagoka, etzi, domekan, 16:30ean.

Burua altxatzen, baina umil

Liga hasiera eskasa egin zuten arren, apurka-apurka burua altxatzen doaz arrasatearrak, lau partidu jarraian irabazita. Hala ere, hemendik aurrerako partiduak ez dituztela "irabazitzat" ematen adierazi du Gotzon Urtzelai atezain zuri-moreak, eta, orain arte bezala, umiltasunez jokatzen jarraituko dutela gaineratu du.

Aipatzekoa da datozen bi partiduak oso garrantzitsuak izango direla Arrasateko mutilendako; izan ere, Erregional Preferente mailan Getariakoak bigarren daude sailkapenean 20 punturekin eta datorren asteko aurkaria, Amaikak Bat taldea, hirugarren da, 18 punturekin.

Hori horrela, bistakoa da jardunaldi gogorrak datozela Arrasateko mutilendako, eta euren joko-estrategiak lantzen jarraitu beharko dituztela berdegunean, azken lau jardunaldietako emaitza positiboak lortu gura badituzte, behintzat.

Uribealdearen aurkako biharko partidua gogorra izango da Kanpanzarrendako

A. L. | ARRASATE

Lider izaten segitzen du Arrasateko Kanpanzar taldeak. Zazpigarren jardunaldi honetan, Uribealdea taldearen aurka jokatuko dute, Mungian; bihar, zapatua, izango da partidua, 16:00etan.

Talde arrasatearra ezin hobeto dabil; edozelan ere, garrantzitsua izango da biharko norgehiagoka. Esan beharra dago Uribealdea bigarren postuan dagoela sailkapenean, Kanpanzarrengandik bost puntura.

Talde faboritoaren aurka

Uribealdea talde indartsua izateaz gainera, zorteak euren alde jokatzen duela esan daiteke.

Kanpanzar taldeko entrenatzaile Igor Isasik adierazi duenez, partidu gogorra aurreikusten dute. "Etxetik kanpo jokatzea beti izaten da gogorra. Gainera, orpoz orpo ditugu sailkapenean eta gure taldearen egoera ez da onena. Joan den astean Arratiko taldearekin lortutako garaipen politean jokalari asko lesionatu ziren; haien artean, taldearendako oso garrantzitsuak diren bi jokalari daude. Erritmoa geuk jartzen saiatu beharko dugu", azaldu du.

Duda barik, Uribealdea da faborito biharko norgehiagokan, esperientziadun taldea baita: beraz, hori horrela, arrasatearrek dena eman beharko dute.

Formigalen egingo den alpinismo glaziar ikastarorako izen-emate epea ireki dute

A. L. | ARRASATE

Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak antolatuta, abenduaren 13rako eta 14rako Formigalen izango den alpinismo glaziar ikastarorako izen-ematea zabalik dago.

Mailari dagokionez, hastapeneko ikastaroa egingo dute. Helburua ezagutza teoriko praktikoak eskuratzea izango da, ingurune glaziarrean autonomiaz eta segurtasunez 40-45 graduko inklinazioa duten aldapak bide errazetatik igotzeko. Soken, pioleten eta kranpoien oinarrizko erabilera ere erakutsiko dute glaziarreko tenkaketarik gabe. Izena *www.gmf-fgm.org* webgunean eman behar da: federatuendako prezioa 120 euro da; federatu ez direnendako, 144.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Ostantz - Iluntz	1-3
Jibaros F. C. - Haizea's weah	3-2
Alytis FK 2.0 - Drink Team	3-3
Lasagabaster - Abokajarro	3-2
Betrayer - Kantzerlauten	5-2
Aldatz - Arrasate taberna	6-1
Sonografos - Dribling 2.0	1-6

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1.	Aldatz	9	3
2.	Alytis 2.0	7	3
3.	Dribling 2.0	7	3
4.	Sonografos	6	3
5.	Lasagabaster	6	3
6.	Jibaros F. C.	6	3
7.	Betrayer	4	3
8.	Drink Team	4	3
9.	Kartzelauten	3	3
10.	Abokajarro	3	3
11.	Iluntz	3	3
12.	Haizea's weah	1	3
13.	Ostantz	1	3
14.	Arrasate Taberna	0	3

PARTIDUAK

AZAROAK 22, ZAPATUA

10:00 Dribling - Abokajarro / **Jibaros**
11:00 Jibaros - Drinking team / **Abokajarro**
12:00 Lasagabaster - Betrayer / **Drink Team**
13:00 Aldatz - Kantzerlauten / **Betrayer**

AZAROAK 23, DOMEKA

11:00 Ostantz - Alytis FK / **Sonografos**
12:00 Sonografos - Iluntz / **Alytis FK**
13:00 Haizea's weah - Arrasate / **Iluntz**

Laugarren jardunaldia Zaldibarko areto futbol txapelketan

Azaroaren 29-30rako, talde guztiek jokalarien zerrenda eta inskripzioa beteta eduki beharko dute.

ESKERRIK ASKO

arrasatearrei eta batez ere, urte guzti hauetan, gugan konfiantza jarri duzuenoi.

Karmele, Ione eta Luma.

Uribesalgo Aseguruak S.L.

Kontzezino 18, behea. Arrasate
Tel.: 943 09 06 29

Gabonetarako kiroldegian ze jolas nahi dituzten erabaki dute umeek

Udal ordezkariek 9 eta 12 urte artekoekin egindako batzarraren emaitza da hori

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Aurreko egubakoitzean Udaleko Gazteria eta Hezkuntza arduradunek herriko neska-mutikoekin egindako batzarrak eman ditu fruituak. *Gabonetako oporretan zer egotea nahi duzu?* galderari erantzuna emateko batzarra egin zuten udal ordezkariek Lehen Hezkuntzako 9 eta 12 urte arteko neska-mutikoekin eta galderak dagoeneko badu erantzuna: urtarrilaren 3an, 4an, eta 5ean –egun horretan goizez bakarrik– Labegaraietako kiroldegia jolasgune bilakatuko da adin tarte horretako gaztetxoendako, eta, besteak beste, tirolina, zezen mekanikoa, eskulan tailerrak eta dantzarekin lotutakoak egongo dira, gaztetxoek hala erabakita.

Herriko hiru ikastetxeetako –gonbidapena ikastetxeen bitartez egin zitzaien gaztetxoei– 38 neska-mutikok hartu zuten parte osoko bilkuren aretoan egindako batzarrean, eta, taldeka jarrita, idatziz zein marrazki bidez azaldu zituzten euren proposamenak.

Taldetan banatuta egin zituzten proposamenak neska-mutikoek egubakoitzean, osoko bilkuren aretoan. | GOIENA

Egoki baloratu dute ekimena

Gaztetxoek oso ondo baloratu zuten bileran Udalak euren iritzia eskatu izana eta eurekin batera Gabonak planifikatzea. Udaletik, bestalde, Leire Iruin Gazteria eta Hezkuntzako zinegotzia eta Nagore Narbaiza sail horretako teknikaria izan ziren bileran eta eurek ere bileraren oso balorazio positiboa egin dute: "Umeek jarrera positiboa eta parte-hartzailea azaldu zuten", esan du Nagore Narbaiza teknikariak.

Parte-hartze kultura hedatu

Udaletik aurreratu dutenez, batzar hori egitea erabaki zuten umeak eurak izan zitezen protagonista Gabonetan antola daitezkeen ekintzak erabakitzeko orduan. Baina beste helburu sakonago bat ere badu egitasmoak: umeen artean herri dinamikan parte hartzeko kultura zabaldu nahi dute Udaletik, "eta horretarako ezinbestekoa da txikitatik hastea", esan dute udal arduradunek. "Argi daukagu parte hartuz ikasten dela parte hartzen", azpimarratu dute.

Helburua hori izanik, eta egubakoitzeko bileraren balorazio positiboa egin ostean, aurrera begira halako batzar gehiago egingo dituztela aurreratu dute Udaleko Gazteria eta Hezkuntza Sailetik.

Gabonetan ekintza gehiago

Umeen Gabonetako oporretako aisialdi eskaintza oparoa izango da aurten. Esandako 9 eta 12 urte arteko gaztetxoendako kiroldegiko guneaz gain, beste bi gune ere egongo dira, 8 urtera arteko neska-mutikoendako.

Alde batetik, eta berrikuntza moduan, Martinez de Iralako gimnasioan tailerrak eta ikuskizunak egongo dira abenduaren 26tik 30era bitartean. Jardun euskara elkarteak kudeatutako txokotan banatuta, globoflexia, sukaldaritza eta makillajea bezalako tailerrak egongo dira eta horren guztiaren osagarri, egunero, 18:30ean, ikuskizun bat.

Beste alde batetik, urtarrilaren 2tik 4ra urteroko jolasgunea jarriko dute Udal Pilotalekuan, hori ere 8 urtera artekoendako.

Izaskun Marañonen hitzaldia gaztetxean

Bergarako Haur eta Guraso Asanbladak antolatuta, Izaskun Marañon psikologoak berbaldia egingo du domekan, hilak 23, 11:30ean, gaztetxean. *Anai-arreben arteko zeloak: errealitate edo asmakizuna?* izeneko berbaldia egingo du. Sarrera doan izango da. Euro baten truk txokolate beroa emango dute.

Jolasak Osintxun umeendako

Domekan, Azaroa Gaztañatan egitarauaren barruan, umeendako jolasak eta eskulanak egongo dira Osintxun. Txatxilipurdi taldeak kudeatuta, interesa duten neska-mutiko guztiek izango dute parte hartzeko aukera. 12:00etatik 14:00etara izango da jolasgunea, plazan –eguraldi txarrarekin, pilotalekuan.

Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra

Gaur, hilak 21, Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra egongo da Seminarioko karpan, Jarduneko begiraleekin batera, 17:00etatik 19:00etara. Udalak antolatu du eta adin guztietako umeei zuzenduta dago. Material berrerabilgarria erabiliko dute eta bertan egiten dituzten apaingarriak etxerako zein herria hornitzeko erabiliko dira. Azken tailerra datorren barikuan, izango da, hilaren 28an.

Umeek egindako apaingarria. | GOIENA

UDALEKO KIROL ZERBITZUA

Kirol Zerbitzuaren kalitatea saritu dute

Kirol Zerbitzuak 3K –Kalitatea Kirol Kudeaketan– ziurtagiria jaso du. Barikuan banatu zituzten agiriok, Gasteizen, eta han, Kirol Zerbitzuak azken hiru urteetan egindako lanaren fruitua jaso zuen. 2013ko azaroan, oinarrizko mailari dagokion diploma jaso zuen eta, oraingoan, goreneko maila eskuratu du. "Beste urrats bat, bergarar aktibo kopurua handitzeko asmoz, herritarrei behar duten kalitatezko kirol zerbitzuak eman ahal izateko".

OIHANA MARZAN

Ixabel Belarrek 100 urte bete ditu

Angiozarko Ixabel Belar Olabarriak 100 urte bete zituen eguaztenean, hilaren 19an. Umore onarekin eta pozik ospatu zuen etxekoekin. Jaione Isazelaia alkatea ere joan zitzaion etxera zoriontzera, eta lore-sorta eta diploma eroan zizkion. Domekan familia osoa batuko da haren urtebetetzea ospatzeko.

Irala kalean dauden lur azpiko edukiontziak. | IMANOL GALLEGO

Udalak kaleko lur azpiko edukiontziak kenduko ditu

Udalak auzoetako edukiontziak batzen diren miniguneak hesitu egingo ditu

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Atez ateko hondakinen bilketa sistema jarri zenetik, hainbat hobekuntza egin dira. Duela hilabete batzuk, adibidez, kuboek haizearen eraginez ihes egin ez zezaten goma berezi bat jarri zitzaien esekitokiei.

Bada, bilketa sistema egonkortu den honetan, hobekuntza sakonagoak egingo ditu Udalak.

Lur azpiko edukiontziak

Domingo Irala kalean dauden lur azpiko edukiontziak kendu egingo dituzte. "Beste edukiontzi batzuk ere kentzeko asmoa dugu", azaldu du Leire Iruin zinegotziak. Horiek, baina, aurrerago egingo diren lanak izango dira. "Beharren eta aurrekontuaren arabera egingo ditugun aktuazioak dira horiek", dio Iruinek.

Lan horiekin, hondakinak batzeko sistema berria martxan dagoenetik erabiltzen ez diren eta oztopo izan daitezkeen elementuak espaloietatik kendu nahi dituzte.

Miniguneak hobetu

Auzoetan dauden miniguneetan ere zenbait aldaketa egingo ditu Udalak. Gune horiek ez dira tokiz aldatuko eta espazio bera izango dute, baina Udalak hesitu egingo ditu. "Hobekuntza estetiko bat dela iruditu arren, herritarrek eta langileek eskertuko dituzten lanak izango dira", esan du zinegotziak, edukiontziak babestuago egongo dira-eta.

Hesiak krisketadun atea izango du, eta barruan, auzotarrek egun dauden edukiontzi berberak topatuko dituzte.

Bulegoak ordutegi berria

Astelehenetik aurrera ordutegi berria izango du hondakinen kudeaketarako informazio bulegoak. Astelehenetik egubakoitzera bulegoa zabalik egongo da 10:00etatik 14:00etara. Orain arte eguazten arratsaldeetan ere irekita egoten zen udaletxearen sarreran dagoen bulegoa, baina, aurrerantzean, astelehen arratsaldeetan 15:00etatik 19:00etara baino ez da egongo zabalik.

Orain arte bezala, baina, kontsultak mezu elektroniko eta telefono bidez egiteko aukera egongo da. Bi bide horiek ez dira aldatu, eta beharra duten guztiek *atezate-bergara@debagoiena.com* helbidera mezu bat bidali edo 943-76 46 18 nahiz 688 65 72 43 telefono zenbakietara dei dezakete.

Herriko hikan egin nahi badon/k ikastaro aproposa dun/k hau

I.G. | BERGARA

Gurean hitanoa gehiegi entzuten ez den arren, Bergarak garai batean hika propioa zeukan. Bada, hitz egiteko era hori guztiz galdu aurretik, Udalak, Jardun euskara elkarteak eta Udal Euskaltegiak hikaz berba egiten hasi eta ikasteko helburuarekin, abendura begira ikastaroa antolatu dute.

Zortzi orduko ikastaro laburra izango da, eta eskolak abenduaren 15ean hasiko dira. Hurrengo eskola egunak 16an, 17an eta 18an izango dira. Ikastaroa arratsaldean izango da, 18:30etik 20:30etara. Ohikoa den moduan, ikastaroa Irizar jauregian dagoen Udal Euskaltegian egingo da.

Izen-ematea euskaltegian

Izen-ematea abenduaren 10a baino lehen egin behar da. Bada, interesa dutenek Udal Euskaltegiko 943-76 44 53 telefonora dei dezakete edo udaletxean nahiz euskaltegian dauden inprimakiak bete eta Irizar jauregian laga ditzakete.

Ikastaroak 10 euroko kostua dauka, eta, antolatzaileek zehaztu dutenez, euskaraz berba egiten dakien eta Bergarako hitanoa ikasteko edota praktikatzeko interesa duen edozein herritarrentzat da egokia.

Hitanoa lantzeko ikastaroa norberaren euskara maila hobetzeko aproposa izateaz gain, inguru hauetan neurri handi batean galdu den hitz egiteko era hori ezagutzeko gonbita erakargarria da. Ez hadi etxean geratu, eta anima hadi.

DJ Humbertoren erritmoak piztuko du Zabalotegi zapatuan

I.G. | BERGARA

Gaztetxoek doinu dantzagarriekin ondo pasatzeko aukera izango dute, beste behin, Zabalotegi aretoan egingo den DJ jaialdiarekin. Bihar, zapatua, 18:30ean hasiko da festa eta gaztetxoek euren gustuko abestiekin disfrutatu ahal izango dute.

Oraingoan ere, Humberto DJa izango da musika jartzen, eta, euskal abestiez gain, bestelako kantuak ere entzun ahal izango dira. Beti bezala, gaztetxoek eurek nahi dituzten abestiak eskatu ahal izango dituzte, eta Humbertok haien eskariak beteko ditu.

Betiko moduan, dantza egin, elkarrekin egon eta giro sanoan ondo pasatzeko aukera ezin hobea izango da.

Hurrengo jaialdiak

Zapatukoa ez da urteko azken DJ jaialdia izango, abenduan beste bi saio egingo baitira: abenduaren 6an eta abenduaren 20an. Beti bezala, dantzaldiak 18:30etik 21:30era izango dira, Zabalotegi aretoan, gaztetxoendako, doan.

Ez galdu egun gris hauetan etxetik irten eta musikaren erritmora ederto pasatzeko aukera bikain hori.

JUANJE ARGAZKIDENDA

38 erretiratuk 75 urte omen dituzte

Argazkian azaltzen diren 38 gaztetxoak zapatuan epailearen aurrean izan ziren 75 urte dituztela frogatzeko. Izan ere, hain lirain eta gazte daude, familiakoek ere ez dute euren benetako adina sinesten. Bada, epaileak euren adina egiaztatzeko frogek luze joko zutela ikusita, haren erabakiaren zain egon beharrean, batzokian ospatu zuten euren bigarren gaztetasuna.

OHARRAK

1980KO KINTOEN BAZKARIA

Azaroaren 29an, 13:00etan, Irrintzin hasita poteoa egingo dute eta 14:30ean Xirimirin bazkaria. Joan nahi dutenek Caja Ruraleko 3030858520 kontuan 35 euro sartu behar dituzte hilaren 26a baino lehen. Dirua sartzean, izena jartzeaz gain, okela edo arraina aukeratu behar da.

1970EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA TARTUFON

Urteko bazkaria azaroaren 22an egingo dute Tartufo jatetxean. Mahaiaren bueltan eseri aurretik, Ariznoa tabernan elkartuko dira, 13:00etan. Bazkarira joan nahi dutenek izena Sugoi dendan eman beharko dute (943-76 59 54).

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Bidekurutzetako eremu horretan egingo dira lanak. | IMANOL GALLEGO

Autoen eta oinezkoen arteko elkarbizitza bermatzen duen herri erosoagoa helburu

Bidekurutzetan, Leturia harategiaren eta Lasa zaharraren arteko eremuan, espaloiak kendu eta plataforma bakarreko 'plazatxo' bat egingo dute

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Bidekurutzetatik oinezko eta auto ugari pasatzen dira egunero, eta, espazio hori hobeto ordenatzeko, Udalak plataforma bakarreko kalea egingo du. "Espaloiak kendu eta kale guztia maila berean geratuko da", dio Hirigintza zinegotzi Joseba Moñuxek. Hirigintzako arduradunaren arabera, oinezkoen eta autoen espazioa ezberdinduta egongo den "plazatxo" moduko bat egingo da han. Bidekurutzetak, baina, ez du bere izaera galduko, eta, oinezkoek protagonismo handiagoa izango duten arren, autoek handik pasatzen segituko dute.

Oinezkoek lehentasuna

"San Pedro kalean egindako lanen antzeko zerbait egingo dugu", azaldu du proiektua idazten ari den Iñaki Arregi arkitektoak. Han, baina, prentsatutako asfaltoa erabiliko dute.

Agintaldi honetan bukatuta

Exekuzioak hasiera-data zehatzik ez duen arren, Arregik "hiru astean" proiektua prest izango duela aurreratu du: "Hortik aurrera esleipena eta horrelakoak geratuko dira". Moñuxek Bidekurutzetako berrantolaketa agintaldi honetan egitea espero du. Horrez gain, auto kopurua jaistea gustatuko litzaiokeela onartu duen arren, bigarren fase hori "aurrerago" egingo dela esan du.

Esperientzia artistikoak guztiontzat, baita familian ere

KOMUNITATEA GOIENA | BIZIKAZI | BERGARA

Esperimentatzeko espazio sortzailea eskaintzen dizuegu. Sormenak komunikazioa eta ongizatea sustatzen baitu. Guztion artean tarte atsegina pasatzeaz gain, teknika piktoriko berriak ikasiko ditugu. Horretarako, gorputzetik eta jokotik hasita, betiere, gure burua eramaten utziz, gozatu eta ikasiko dugu.

Norentzako ikastaroa?

Sormena interesatzen zaion 4 eta 100 urte bitarteko edonorentzat da ikastaro interesgarri hori. Eskolak kultura etxean izango dira abenduaren 13an eta 20an, 10:00etatik 13:00etara.

16 urtetik gorakoek 20 euro ordaindu beharko dituzte, eta gazteagoek 5. Prezio horretan materiala ere sartuko da.

Pol-Poleko beteranoak Toloñon egon dira

Domekan, Pol-Poleko beteranoak botak jantzi eta motxila soinean zutela Toloño mendia igo ziren. Igoeran izandako behe-lainoak garrantzirik izango ez balu bezala, erraz lortu zuten gailurra egitea. Mendizaleek adierazi dutenez, primerako eguna igaro zuten. Bada, dagoeneko hurrengo irteera prestatzen hasiko ziren...

POL-POL MENDI TALDEA

Datorren urterako herriko frontoiak alokatzeko epea zabalik

I.G. | BERGARA

Abenduaren 14ra arte erreserba daitezke orduak udal frontoietan, 2015erako; Agorrosinen erreserbatu beharko dira.

Ze frontoi?

Hileko alokairu sistemarekin, ondorengo frontoi hauek ipintzen ditu herritarren eskura: Ubera, Osintxu, Basalgo, Angiozarko Arbiaska eta Elorregi. Fraiskozurin dagoen Udal Pilotalekua, aldiz, ez da sistema horren bidez alokatuko, erreserba eta ordainketak tabernan bertan egiten dira-eta.

Egun bererako eskaera bat baino gehiago badago, zozketa bidez erabakiko da nori eman.

Abenduaren 14tik 16ra behin-behineko zerrendak egongo dira ikusgai Agorrosingo iragarki-taulan eta webgunean.

Hitzek min emateko duten ahalmenaz jabetzeko antzezlana

I.G. | BERGARA

Indarkeria fisikoaz gain, hitzen bidezko indarkeria ere existitzen dela azaleratuko du Hika Teatroak. *Hitzak* antzezlanak horixe izango du oinarri, hitzen bidezko indarkeria, eta horrek sortutako mina eta ondorioak. Gaur, 22:00etan, Zabalotegin, "hitz mingarriak" entzungo dira antzezlanean, zehaztu zuen Agurtzane Intxaurraga obraren egile, zuzendari eta aktoreak.

Benetako istorioa

Intxaurragak berak duela urte gutxi bizi izandako gertaera baten harira sortu du antzezlana: "Gertuko bikote batean ikusi nuen gizonak hitz txarrak esan zizkiola emakumeari, eta emakumea isilik geratu zela. Isiltasun horrek pentsarazi egin zidan. Min batetik sortutako antzezlana da".

Emakumeek jasaten duten *epaia* baino harago doa antzezlana, ikuslea emakumearen azalean jarriko da-eta. Obrak oso eszenografia zaindua dauka, eta, hutsik dagoen oholtzan argiteria zaindu eta melodia samur batekin, ikusleak detaile guztiak ulertuko ditu.

Udal Musika Bandak domekako kalejirarekin eta kontzertuarekin ospatuko du Santa Zezilia eguna

10:30ean kalejirarekin ekin dio bandak musikarien zaindariaren eguna ospatzeari; kaleetan zehar Artatse elkartearen ereserkia joko dute. 12:30ean Udal Pilotalekuan kontzertua eskainiko dute, eta, ohi bezala, pasodoble eta abesti ezagunez osatutako emanaldia egingo dute. Amaitzeko, musikariek lagunarteko bazkaria egingo dute Artatsen.

Joan den asteko garaipena, ilusioa baino gehiago, sailkapenean gora egiteko aldia hasteko garaia

Zarautzen kontra lortutako garaipenari esker, eskubaloiko Bergara KE taldeko jokalariak pozik daude. Badirudi azken postuetatik irteteko bideari ekin diotela, eta zapatuan (16:00) Donostian Egia Kosko Taberna taldearen aurka apustu hori berretsi gura dute. Donostiarrak sailkapenean beherago dauden arren, bergararrek gogoz jokatu beharko dute.

Soraluce Bergara KE taldeko jokalariek hasierako postuei eusteko aukera ezin hobea izango dute

Lezon gaur iluntzean (20:00) Allerru SBT taldea parean izango duten arren, Soraluce Bergara KE taldeko jokalariak sailkapenaren goiko aldean mantenduko dituen garaipena eskuratzera irtengo dira. Allerru sailkapenean beherago dagoen arren, bergararrek azken asteetako mailari eusten badiote bi puntu gehiagorekin bueltatuko dira etxera.

Neguko ligako bigarren igeriketa jardunaldiek bustiko dute bihar Agorrosingo igerilekua

Goizeko hamarretan, herriko igerilariez gainera, Eibarko, Oñatiko, Azpeitiko, Azkoitiko eta Legazpiko igerilariak lehiatuko dira Agorrosingo igerilekuan; guztira, 150 bat kirolari batuko dira. Ohiko erabiltzaileendako bihar goizean Agorrosingo igerilekuak itxita egongo diren arren, bainuontzi txikian, umeendako ikastaroak normal emango dira.

Joan den urteko lehiaketan Juanitosak irabazi zuen lehen saria. | AMAIA ARREGI

Eraskusleiho birtualak ere saria izango du aurten

Abenduaren 7an hasiko da aurtengo Gabonetako erakusleiho lehiaketa; sariak txantxitan emango dira

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Zazpigarren aldiz antolatu dute Gabonetako erakusleiho lehiaketa, eta berritasunak ditu: batetik, orain arteko sariez gain, erakusleiho birtualaren saria ere emango dute; eta bestetik, irabazleek txantxitan jasoko dituzte diru sariak.

Sare sozialak

"Aurtengo sari berri hori emateko hartuko da kontuan herriko denda edo komertzio horrek sarean eta sare sozialetan, adibidez, ze mugimendu duen. Zertarako eta zenbateko maiztasunarekin erabiltzen dituen sare sozialak eta sareak ematen dituen beste aukerak, adibidez. Sari hori erabakitzeko Mondragon Unibertsitateko bi irakasle egongo dira aurtengo epaimahaian", azaldu du Jesus Mari Ugartek, Enplegu teknikariak. Irakasle horiez gain, Itziar Arkauz, Maialen Lizarralde, Edurne Otxoa-Aizpurua eta Gipuzkoako komertzio ganberako kide bat egongo dira aurtengo epaimahaian.

Zazpi sari

Aurtengo lehiaketan parte hartu gura duten denda eta komertzioek abenduaren 3a aurretik bete behar dute horretarako izen-emate orria, eta udaletxeko harrera bulegoan, Turismo Bulegoan edo Enplegu Sailaren bulegoan (Bidebarrieta 12) entregatu beharko da.

Abenduaren 7rako erakusleiho guztiek apainduta egon beharko dute eta horrela egon beharko dute, gutxienez, abenduaren 31 arte. Sariak abenduaren 20an emango dituzte. Bost sari emango dituzte, eta, horiez gain, erakusleiho birtualarena eta herritarren gustukoena. Iritzia ematen parte hartzen dutenen artean 200 txantxiko saria zozkatuko da.

EDURNE OTXOA-AIZPURUA

"Erakusleihoa trastez ez betetzea aholkatuko nieke dendariei"



O.E.

Orain arteko Gabonetako erakusleiho lehiaketa guztietan izan da epaimahaikide Edurne Otxoa-Aizpurua. Aurten ere izango da.

Nolakoa izan behar du Gabonetako erakusleiho erakargarri batek?

Batetik, Gabonak direla ikusi behar da erakusleiho horretan eta elementu horrek agertu behar du nola edo hala. Bestetik, sormena erabiltzea, originala izatea.

Ze elementu erabil daitezke hori lortzeko?

Argiztapena, esaterako, oso lagungarria da eta gauza politak egiten dira argi puntu ezberdinak erabilita.

Epaimahaian ez zaude bakarrik. Nola erabakitzen dituzue sarituak?

Erakusleiho guztiak ikusten ditugu eta hortik 10 onenen zerrenda egiten dugu. Eta aukeratu ditugun horiek puntuatzen hasten gara gero. Puntuen batuketaren emaitza dira saridunak.

Ze aholku emango zenieke?

Erakusleihoa trastez ez betetzea. Saltzen dituzten gauza guztiak erakutsi gura dituzte askok, eta kargatuegiak gelditzen dira.

Tratu onen aldeko dekalogoa aterako dute Udalak eta ikasleek

Azaroaren 25ean elkarretaratzea ere egingo dute

O.E. | OÑATI

Tratu onen aldeko dekalogoa prestatzen ari dira hiru ikastetxeak Udalarekin batera, eta horixe kaleratzea eta erabilgarri jartzea izango da Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunari begira herrian egingo duten ekintza. Horrez gain, martitzenean, azaroaren 25ean, elkarretaratzea egingo dute, Andraitzek deituta, 19:00etan, Foruen plazan eta egueneko zineklubeko filma ere data horri lotutakoa izango da.

Puntu morea ere bai

Lantzen ari diren dekalogo hori herriko ikastetxeetan banatzea da asmoa. "Hiru ikastetxeetako ikasleak tratu onen aldeko esaldiak, mezuak, ari dira prestatzen orain. Guztiak jasoko ditugu, eta, eman behar zaien forma emanda, edo txukundu behar badira txukunduta, dekalogoan jasoko ditugu. Dekalogo hori ikastetxeetan banatuko dugu gero, ikasleek eskura izan dezaten", azaldu du Ainhoa Moiuak, Berdintasun teknikariak.

Bestalde, aste honetan zehar puntu morea agertzen den orria banatu du Udalak etxez etxe, emakumeen kontrako indarkeria salatzeko.

Puntu morea Kortabarrian. | O.E.

Euskararen Eguna hezkuntza mahaiarekin egingo da aurten ere

O.E. | OÑATI

Abenduaren 3an da Euskararen Eguna eta aurten ere herriko hezkuntza mahaiak antolatuta ospatuko da. Udal ordezkariak ez ezik, hiru ikastetxeetako ordezkariek osatzen dute mahai hori, eta guztien artean koordinatu eta prestatu dute, beste behin, abenduaren 3a. Aurreko urteetan bezala, lau multzotan banatu dituzte antolatutako ekitaldi guztiak. Goizean zehar, esaterako, LH-4 artekoendako jolasak egingo dituzte Zubikoa kiroldegian. Bestetik, *Berba eta txokolatea* egitasmoa egingo da gaztelekuan. Eguerdian, gainera, *Lingua Nabajorum* antzezlana egongo da Santa Anan. Arratsaldean, berriz, euskal kantuak abestuko dituzte familia giroan kontzejupean. Urtero egin ohi duten afari tertulia, berriz, abenduaren 4an egingo dute aurten Makalenan, hurrengo egunean. Aurretik, *Desentxufados* antzezlana egongo da gaztetxean. Ikasleek, gainera, kazetari lanak ere egingo dituzte.

Ideien Azoka egingo du bihar Sarek, ekintzez berba egiteko

Ideien Azoka egingo du bihar, zapatua, Oñatiko Sarek. Gaztelekuan elkartuko dira, 10:00etan, eta dispertsioa salatzeko eta presoen eskubideak errespeta daitezela eskatzeko egingo dituen ekintzak, ideiak eta ekimenak trukatu, proposatu eta konpartitu gura ditu ahalik eta herritar gehienekin. Bilera irekia da.

Landa-bide publiko nagusien azterketa, jendaurrean

Oñatiko bide publiko nagusien inbentarioa egin du Udalak. Dokumentu hori jendaurrean dago orain, alegazioetarako. Abenduaren 15era arte egongo da. Udalak enpresa baten laguntzarekin egin du inbentario hori, herriko bide publikoak zeintzuk ziren zehazteko; gutxienez, zoladura dutenak. Lan horri alegazioak jartzeko epea dago orain zabalik.

Larreratuko diren abelburuak zenbat diren esateko garaia

Datorren udaberrian larreratuko diren abere kopurua jaso behar du Udalak, eta, horretarako, abenduaren 31 aurretik eman behar dute datu hori herrik abeltzainek. Aurreko urteetan bezala, Aloñako larreetara eta Artia-Txirikilaleku-Aitzgainera eramango diren abereen berri eman beharko dute.

Errekalde eskolako jolas eta kirol gunea zabalik abenduaren 1etik

10:30etik 20:00etara zabalduko dute herritarrendako asteburuetan eta jaiegunetan

T.M. / O.E. | OÑATI

Urgaineko Errekalde eskolako jolas eta kirol gunea zabalik egongo da herritarrendako asteburu eta jaiegunetan abenduaren 1etik aurrera. Akordio horixe egin dute Urgainek eta Udalak, eta erabilera baldintzak jasotzen dituen akordioa lortu dute.

Urgaineko Errekalde eskola. | OIHANA ELORTZA

Oztoporik ez

Errekaldeko eskolako kirol gunea betidanik erabili izan dute auzotarrek, baina orain, erabilera hori arautu eta osatu egin dute. "Urteetan erabili izan da gune hori. Orain arte, baina, hesian egindako zuloak erabiliz sartu izan dira gune horretara eta horrek hainbat arazo ekarri ditu; zikinkeria, esaterako. Hango guraso elkarteak eskatu zigun zulo horiek ixteko, segurtasuna bermatzeko. Hala, erabilera egokia nola arautu adostea pentsatu genuen", adierazi du Nerea Zubiak, Hezkuntza zinegotziak.

Errekaldeko herri eskolak, bestalde, ondo hartu du Udalak egindako proposamena. "Ikastetxe publikoa da gurea eta garbi dugu publikoaren zentzua zein den. Beraz, ez diogu inongo oztoporik ikusi proposamenari. Gunea aproposa da gurasoek euren seme-alabekin egoteko. Gure baldintza bakarra izan da, kontuan izanda astelehenetan 07:30etik aurrera eskaintzen dugula zaintza zerbitzua, ordurako ingurua txukun egotea, besterik ez", azaldu du Errekalde herri eskolako zuzendari Virginia Azpiazuk.

Udaltzainak atezain

Hala, abenduaren 1etik aurrera asteburu eta jaiegunetan ere erabili ahal izango da hango patioa. Lehentasuna, baina, eskolak izango du. "Orain arte bezala, gero ere 18:00ak arte eskolak erabiliko du gune hori eskola egunetan, eta hortik aurrera zabalik egongo da. Egun horietan eskolako atezaina arduratuko da atea ixteaz eta zabaltzeaz. Asteburuetan, berriz, 10:30etik 20:00etara egongo da zabalik herritarrendako, eta udaltzainek egingo dituzte atezain lanak. Baita abuztuan eta jaiegunetan ere", argitu du Nerea Zubiak. Sasoi bereziak ere egongo dira; esaterako, eskolak zaintza zerbitzua baino ematen ez dituen egunak. Kasu horietan, arratsaldeetan zabalduko dute.

Asteburu eta jaiegunetan ere, beraz, zabalik egongo da eskolako sarrerako ate nagusia, baina jolas eta kirol gunean ez da zaintzailerik edo begiralerik egongo. Bertan dauden altzarien mantenuaz, berriz, Udala arduratuko da. Aseguru zibila ere kontratatu du Udalak.

Proba moduan hasiko dira horrela erabiltzen, baina akordioa erabat malgua da, erabileraren arabera eta egon daitezkeen arazoen aurrean egokitzeko moduan.

'Black friday' egingo dute hainbat dendak hilaren 28an

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Black friday ekimena egingo dute herriko hainbat dendak datorren egubakoitzean, azaroaren 28an. Hala, egun horretan 22:00ak arte egongo dira zabalik Txandako hainbat denda, eta promozioak eta deskontuak izango dituzte bezeroendako.

Txandaren 25 denda eta komertzio inguruk hartuko dute parte *Black friday* edo Egubakoitz Baltza izeneko ekimen horretan. "Denda horiek 22:00ak arte egongo dira zabalik eta bakoitzak erabakiko du zer promozio, zer deskontu edo beste zer eskaini bezeroei. Esaterako, denda batek azken bi orduetan egingo diren erosketetan egingo ditu deskontuak. Beste batek, berriz, jatekoa edo zuzeneko musika eskainiko die bezeroei. Egun osoko bezeroen artean zozketak egin litezke, edo baita egun osorako prezio bereziak eskaini ere", adierazi du Mendizabal kirol-dendako Mari Jose Mendizabalek. Lekeitioko Deabruak taldearen piroteknia ikuskizuna ere egongo da.

Herriko bost iturri margotzen eta txukuntzen ari dira egunotan

O.E. | OÑATI

Maiatzaren Bata plazatxoan, Santa Marinan, Etxaluzen, Foruen plazan eta San Anton plazatxoan dauden iturri historikoak konpontzen ari dira egun hauetan. Iturri horietan dauden elementu metalikoak margotzen eta tratatzen ari dira, hain zuzen ere.

Harria eta metala

Bost iturri horiez gain, Iturritxokoa eta Kanpantxokoa ere konpondu eta eraberritu gura zituen Udalak. "Hasieran, horixe zen asmoa, zazpi iturri horiek eraberritzea, baina eskatutako aurrekontua handiegia zen, eta, azkenean, erabaki da elementu metalikoak bakarrik eraberritzea. Eta horretan ari dira. Iturri horietan dagoen metala garbitu, herdoila kendu, eta margotu egingo dituzte", azaldu du Udaleko aparejadoreak, Xabier Berridik.

Zazpi iturriak XIX. mende amaieran jarritakoak dira eta harria eta metala dira haien osagai nagusiak. Metala harria baino gehiago desitxuratu denez, atal hori eraberritzea erabaki dute.

Dagoeneko lehen eskua eman diete bost iturri horiei eta datozen egunetan bigarren eskua ematen bukatuko dituzte iturriak txukuntzeko egiten ari diren lanak.

Langile bat Santa Marinako iturria margotzen martitzenean. | O.E

200 gai inguru jaso ditugu bertso txapelketarako

Ze bertsolari ze kanporaketatan jardungo duen ere erabaki dugu; finala abenduaren 20an izango da

KOMUNITATEA GOIENA | OÑATIKO BERTSO ESKOLA | OÑATI

Saioen eguna, ordua eta lekua jarrita egon arren, bertsolariak banatzea falta zen, eta egin dute zozketa Oñatiko Bertso Eskolakoek. Azaroaren 29an, Antixena gaztetxean, 18:00etan, Maider Arregi, Iñaki Olalde, Andoni Goitia, Ander Lizarralde, Egoitz Aizpuru eta Urko Egañak abestuko dute. Abenduaren 6an, berriz, Arrano tabernan, 18:00etan, Gontzal Belategi, Josu Igartua, Urko Arregi, Xabi Paskual, Joseba Lasagabaster eta Gorka Larrea arituko dira.

Finala abenduaren 20an izango da Oñatiko gaztelekuan, 18:00etan. Saio bakoitzean lehenengo postuan sailkatzen dena zuzenean pasako da. Gainontzekoek jasotako puntuazioaren arabera lortuko dute txartela.

Azpimarragarria da gai proposamenak jasotzeko tabernetan jarritako kutxek izan duten harrera. 200 gai inguru batu dira. Oñatiko produktuekin osatuta otarrea prest dago, eta, parte-hartzaileen artean zozketatuta, finalean banatuko da.

Txapelketan parte hartuko duten hamabi bertsolariak. | OÑATIKO BERTSO ESKOLA

Astelehenean egin zuten aurkezpenean musika eskoletako eta Udaleko ordezkariak, kultura etxean. | ANDER LARRAÑAGA

Emusik jaialdiaren egoitza izango da Oñati datorren urtean

Bi kontzertu egingo dituzte Europako musikari gazteek 2015eko maiatzean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

2016ko Europako musikari gazteen jaialdiko egoitzetako bat izango da Oñati. Jose de Azpiazu musika eskolak eta Oñatiko Udalak hitzarmena sinatu dute Donostiako musika eskolarekin. Hala, bi kontzertu izango dira Oñatin: 2015eko maiatzaren 6an eta 7an.

Elkarlanerako aukera

Jaialdiaren inaugurazio ekitaldia Anoetan egingo dute eta itxiera Zurriolan. Tartean, urte eta erdian, laurehundik gora emanaldi egingo dituzte Emusik 2016 jaialdiaren baitan Euskal Herrian zehar. "Emusik 2016 musika eskolen jaialdia da. Etorriko dira 10.000 musikari europar, eta denok batera egingo dugu musika. Gure erronka handia da Europatik etorriko direnak hemengoekin biltzea, elkartzea eta musika batera egitea. Izan ere, musika da elkar hobeto ulertzeko modua", adierazi du Mikel Matek, Donostiako musika eskolako zuzendariak. Ildo beretik mintzatu da Jaione Intxausti, Jose de Azpiazu musika eskolako irakaslea: "Oñatik parte hartzea egokia izango zela pentsatu genuen, ez agertoki bat soilik izateko, baizik Europako musikari guztien arteko lankidetzaren oinarria izateko. Herriko zein kanpoko musikariek elkarlanean aukeratuko dituzte errepertorioak, beharrezko moldaketak egin, agertokian interpretatu... Hizkuntza bat edo beste izan, musikarekin elkarlanean aritu".

Jose de Azpiazu musika eskolak 2012ko Europako musikari gazteen jaialdian parte hartu zuen Italian. Hango esperientzia aberasgarria kontuan hartuta eman dio baietza Donostiatik jasotako gonbidapenari.

Ekitaldi irekia

Oñatiko emanaldiak antolatzeko gonbidapena jasoko dute herriko ikastetxeek eta baita musika arloan diharduten talde eta eragileek ere. Ekitaldi irekia antolatu gura dute.

Udalak ere babes osoa eman dio Oñati egoitza izatearen aukerari. "Proiektua aurkeztu ziguten unetik iruditu zitzaigun interesgarria, ikusten dugulako kultura eta lurralde ezberdinetako esperientziak trukatzeko eta sarea sendotzeko aukera", esan du Kultura zinegotzi Nerea Zubiak.

Donostia 2016ko Europako kultura hiriburuaren ekitaldien barruan dago Europako musikari gazteen jaialdia.

Santa Zeziliaren bueltan, Ganbarak kontzertua eta Ibarrondoren omenezkoa

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasle eta irakasleak eguaztenean irten ziren kalera

IRATI GOITIA | OÑATI

Musikegunak egitasmoaren baitan, eta Antonino Ibarrondoren omenezko emanaldien barruan, kontzertua eskainiko dute Oñatiko musika taldeek domekan. Parte hartuko dute: musika bandak, txistulari taldeak, Ganbara Abesbatzak, parrokiako koruak eta Oñati Abesbatzak. Iñaxio Ibarrondok egingo ditu zuzendari lanak, eta Antonino Ibarrondoren musika bilduz grabatu den diskoaren aurkezpena izango da. Kontzertua San Migel parrokian izango da, 19:00etan. Sarrera doakoa da.

Ganbarakoen kontzertua

Ganbara kantu eskolako taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, 19:00etan, Santa Ana antzokian. Bremengo musikarien istorioa oinarri hartuta, emanaldi berezia egingo dute. Hiru taldetan banatuta, hiru musika estilo landuko dituzte. Zehazki, tailerretakoek eta hasiberriek Ameriketako Estatu Batuetatik datozen rap kantariak antzeztuko dituzte. Ganbara Txikitxoakekoek opera abeslariak eta Ganbara Txikikoek punk kantariak. Antzokia entsegu areto bilakatuko dute, eta hasiera batean talde bakoitzak bere aldetik kantatuko duen arren, amaieran denek elkarrekin abestuko dute. Errepertorioa askotarikoa izango da. Sarrera bost euro da.

Musika kalean

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasle eta irakasleek eguaztenean ospatu zuten Santa Zezilia. Hala, kalejira egin zuten herriko kaleetan barrena, eta ondoren, jaialdia eta txokolatada izan zituzten berdura azokan. Denera ehun ume inguru irten ziren kalera euren instrumentu eta guzti. Batez ere, euskal dantzak jo zituzten.

Bosgarren urtez antolatu du Euskal Herriko Musika Eskolen elkarteak *Musikalean* egitasmoa eta 50 musika eskolatako irakasle eta ikasleek hartuko dute parte; tartean, oñatiarrek.

Jose de Azpiazu musika eskolakoen jaialdia, eguaztenean. | AITOR MADINA

Inauteriak hurbiltzen ari direla eta, abenduaren 10ean ekingo diete dantzak ikasteko entseguei

I.G. | OÑATI

Inauteriak gero eta gertuago daudela-eta, Oñatiko Inauteri Taldekoak hasi dira prestakuntza lanetan dagoeneko. Entsegu egunak ere zehaztu dituzte.

2015eko Aratusteak otsailaren 14an ospatuko dituzte eta euren helburua beste urte batez Oñatiko kaleak kolorez betetzea eta umorez alaitzea dela adierazi dute taldetik.

Entseguak eta oharrak

Egunean bertan egingo diren dantzak ikasteko entseguak eguaztenetan 20:00etan eta zapatuetan 12:00etan izango dira. Lehenengo entsegua abenduaren 10ean izango da. Horretarako, Oñatz dantza taldearen Errekaldeko lokalean bilduko dira. Antolatzaileek herritarrak animatu nahi izan dituzte parte hartzera, eta deialdia egin dute. Hala ere, interesatuta egon daitezkeenei pare bat ohar ere eman nahi izan dizkiete: 16 urtetik gorakoek soilik parte har dezakete, 1999a baino lehenago jaiotakoek. Bestalde, jakinarazi nahi izan dute dantza egin nahi ez dutenek ere badaukatela aukera pertsonaia bezala parte hartzeko.

Iazko inauteriak. | GOIENA

Yakuzas talde madrildarrak kontzertua eskainiko du Pako tabernan domeka honetan, 19:30ean

Matogrosso izeneko azken lana aurkezten izango dira Yakuzas taldeko kideak etzi, domeka, Oñatin. Pako tabernan izango da emanaldia, arratsaldeko zazpi eta erdietan. Madrilgo Chamberi auzotik datoz, eta, hain zuzen ere, euren lehen LParen izenburua *Chamberí Rock City* izan zen. Bada, lan berrian, sei abesti batu dituzte, rock-and-roll doinuak hainbat eraginekin nahastuak. Laukoteak Rock Villa de Madrid-eko 34. lehiaketa irabazi zuen.

Ondo ekin dio denboraldi berriari Aloña Mendiko atletismo sailak, eta podiumera ere igo dira

Aloña Mendiko atletismo sailak ondo ekin dio denboraldi berriari. Aurreko asteburuan Irunen jokatu zen Txingudiko probarekin ekin zioten ikasturteari. Guztira, 30 korrikalari joan ziren probara eta emaitza onak lortu zituzten. Podiumera ere igo ziren. Senior mailan, Sergio Gartzia hirugarren izan zen helmugan. Mikel Ugartek ere hirugarren egin zuen, promes mailan. Taldeka, lehen postua lortu zuen Aloña Mendik seniorretan eta infantiletan ere talde onena izatea lortu zuen.

Hondakinen gaikako bilketa tasa %83tik gorakoa izan da irailean

Udal Gobernuak jakinarazi du hondakin organikoaren bilketa tasa, iazko iraileko datuarekin alderatuta, %328 igo dela; errefusa, ostera, %76 jaitsi

A. EZKIBEL/M. ALTUBE | ARETXABALETA

Hondakin bilketaren gaineko datuak eman dituzte Udal Gobernuko kideek. Aurreikuspenak bete bakarrik ez, "gainditu" ere egin direla azaldu dute, pozik. Uztailaren 14an hasi ziren hiri hondakinak atez ate batzen Aretxabaletan, eta, horri esker, organikoaren bilketa %328raino igo da. Gaikako bilketa tasa, ostera, %83,42 da.

Datu guztiak hobera

Irailean jasotako datuak izan dituzte kontuan alderaketa egiteko orduan; atez ateko bilketa sistema uztailean abian jarri arren bitartean abuztua egon delako. Gaikako bilketa tasa %83,42 da atez ateko bilketa sistemarekin; iaz, bosgarren edukiontziarekin, %40,79 izan zen; eta 2012an, %32. "Datuok oso esanguratsuak dira, eta, hain zuzen, esaten dute tamainako herria dugula, tamainako herritarrak ditugulako", esan zuen Ana Bolinaga alkateak, pozik.

Hondakin organikoaren bilketak egin du gora nabarmen, %328, baina gainerakoen bilketak ere hobera egin du: papera eta kartoia, esaterako, %82 igo dira eta ontzi arinak, %67 (taulan datu guztiak).

Uztailera bitartean bosgarren edukiontziaren aukera egon da Aretxabaletan. Ordura arte, hilabetez hilabete, gero eta organiko gehiago jaso izan dela edukiontzi marroian jakinarazi zuten; hala, aurtengo maiatza izan da gehien jaso den hilabetea: 21.909,53 kilo organiko. Irailean, ostera, 61.910 kilo organiko izan ziren, eta errefusa 29.780 kilo.

Datuez gain, Udal Gobernuko kideek azaldu dute ez dela arazo larririk egon. Hala ere, zera ekarri zuen gogora Lore Martinez Axpek, Ingurumen zinegotziak: "Egunero ateratzen diren pixoihalen eta konpresen poltsak itxi egin behar dira, batez ere haizeagatik. Gainerakoan, oso ondo dabiltza egiten herritarrak", zioen.

KONPARAKETA TAULA

	5. EDUKIONTZIA 2013KO IRAILA	ATEZ ATEKO BILKETA 2014KO IRAILA	% PORTZENTAIA
Organikoa	14.470	61.910	328
Papera/kartoia	15.686	28.527	82
Ontzi arinak	8.611	14.340	67
Beira	11.319	16.119	42
Olioa	466	539	16
Arropak	1.744	2.478	42
Errefusa	126.426	29.780	-76

*Datuak kilogramotan (olioa litrotan)

ITURRIA: UDALA

Informazio bulegoa

Informazio bulegoak zabalik jarraituko du herritarren zalantzak argitzeko. Ordutegia honako hau da: astelehen, eguazten eta egubakoitzetan 10:00etatik 14:00etara, eta baita eguazten arratsaldeetan ere, 15:00etatik 19:00etara.

Bestalde, Arrasaten sistema berria martxan jartzen dutenean, urtarril inguruan, ontzien bilketa ordutegia aldatu egingo da. Gauez pasatuko dira ontziok jasotzera orduan, zapatuetan legez, eta egunez industrialdeetakoak eta komertzioenak jasoko dituzte.

Ekoizleekin elkartuko dira Erein Da Jan-ekoak

M.A. | ARETXABALETA

Erein Da Jan elkarteak bilera egingo du datorren astean ekoizleekin. Eguaztenean, azaroaren 26an, izango da, 19:00etan, Bagarak duen egoitzan (Laboral Kutxa gainean). Leintz aldeko ekoizle guztiekin elkartu gura dute, Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasatekoekin.

Debagoienean lehen sektorea eta kontsumo arduratsua indartzeko eta bultzatzeko sortu zuten iaz Erein Da Jan elkartea. Eta proiektu horren gaineko nondik norakoak aurkeztuko dizkiete ekoizleei eguazteneko bileran, helburuak eta jardueraren gakoak, batik bat. Ekoizleek eta produktuek duten garrantzia ere azalduko dute, eta elkartearen funtzionamendu orokorra zein den deskribatu.

Proiektuaren hasiera da oraingoa, baina aurrera begira asmo asko dituzte. Hauxe gaineratu dute: "Aurrerago, proiektuan parte hartzeko interesa dutenekin beste bilera bat egingo dugu, denda-ekonomatuaren horniketan sakontzeko, besteak beste".

'Indarkeria matxistarik ez' aldarrikatzeko eguna badator

Elkarretaratzea deitu dute martitzenerako eta gero antzezlana dago Arkupen

M.A. | ARETXABALETA

Emakumeen kontrako edozein eratako indarkeria salatzeko egun izango da martitzena, azaroak 25, eta, Udalak deituta, Aretxabaletan elkarretaratzea egingo dute *Indarkeria matxistarik ez* leloarekin; 19:00etan izango da, Herriko Plazan.

Udal ordezkariek aldarrikatuko dute emakumeen aurkako indarkeriarik ez dutela onartuko ez herrian, ezta beste inon ere, eta herritarrak horretara animatu gura dituzte: "Herritar guztiak gonbidatu gura ditugu martitzenean plazara. Eta ondoren, asmoa da ikus-entzunezko bat eskaintzea han bertan", jakinarazi du Maider Aizkorbek, Berdintasun zinegotziak.

Herriko hainbat emakume, gainera, afaltzeko elkartuko dira martitzenean udaletxe zaharrean. Afari horretarako txartelak salgai dituzte Loramendin, Orlyn eta Urbaltzen, 5 eurotan.

Udal ordezkariek eta herritarrek erakutsiko duten pankarta. | M.A.

Maitasunaren ostean...

Ados teatroaren antzezlana izango da elkarretaratzearen ostean Arkupen, 19:30ean (sarrera, 4 euro). *Maitasunaren ostean, maitasuna* eskainiko dute, Dora Salazar eskulturagile euskaldunaren bizitzan oinarrituta Garbi Losadak sortutako antzezlana. Salazar bera arduratu da lan plastikoarekin, eta diote eskulturagilearen lanen "berrinterpretazioa" dela. Izan ere, antzezlana bi sortzaileek, Salazarrek eta Losadak, elkarlanean egindako lana da. Hala, hiru ahotsetan planteatu du Losadak maitasun istorioa, eta, panpina errusiarrak balira bezala, istorio batek beste istorio bat dauka gordeta, eta horrek beste bat. Sortzaileak luxuzkoak eta taula gainean izango diren protagonistak ere bai: Ane Gabarain, Sara Cozar eta Dorleta Urretabizkaia.

Berdintasun teknikaria

Bestalde, astean hasi da lanean Berdintasun teknikaria hainbat azterketa eta proba pasatu ostean. Amets Beltran de Gebara arrasatearra da hura eta egun erdiko lan jarduna izango du (ordutegia zehazteko du oraindik).

'Zeuk egindakoa oparitu' ikastaroak egingo ditu Loramendik abenduan

M.A. | ARETXABALETA

Zeuk egindakoa oparitu izenarekin hiru ikastaro antolatu ditu Loramendi elkarteak abendurako. Bitxigintza ikastaroa gidatuko du Ane Gonzalez aretxabaletarrak eta hiru egunean egingo dute: abenduaren 2an, 9an eta 16an. Fimo ikastaroa Nere Uribetxeberriarekin egingo dute hiru egun hauetan: 4an, 11n eta 18an. Eta artilezko lanen eskolak *Pitu*-k emango ditu: 10ean, 15ean eta 17an. Saio guztiak 18:30etik 20:00etara dira.

Izena emateko, Loramendira jo: *loramendielkartea@gmail.com*; 943-77 09 70 eta 685 75 67 29. Prezioa: bazkideek 8 euro eta gainerakoek 10 euro.

M.A.

Kantuan, Santa Zezilia gogoan

Musikarien zaindariari dagokion legez, musika kalera eramanda eta plazan kantuan eginda ospatu zuten Santa Zezilia eguna martitzenean Leizarra musika eskolako ikasleek eta irakasleek; horien artean, trikitilariek eta pandero-joleek eta bandako kideek. Txokolatea hartu zuten haren omenez.

Hamabi bikotek hasiko dute bihar frontenis txapelketa

Aretxabaleta kirol elkarteak antolatu du mutilendako eta finalak datorren astean jokatuko dituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Mutilen frontenis txapelketa antolatu du Aretxabaleta kirol elkarteak eta hamabi bikotek eman dute izena. Partiduak Iturrigorri pilotalekuan jokatuko dituzte bihar, 09:00etan hasita.

Finala hilaren 30ean

Lehenengo partiduak, bihar eta etzi, ligaxka erara jokatuko dituzte bi multzotan banatuta (taulan partiduak), eta 25 tantora izango dira. Hurrengo aste bukaeran, ostera, kanporaketak jokatuko dituzte, eta azaroaren 30ean, domeka, finalerdiak eta finala.

Irabazleek garaikurra eta afaria jasoko dute; bigarren sailkatuek, garaikurra; eta parte-hartzaile guztien artean bi txartel zozketatuko dituzte.

FRONTENIS TXAPELKETA

Aste bukaerako partiduak

AZAROAK 22

09:00 Julen Lozano - Aimar Cebrino / David Gracianteparaluceta - David del Palacio
09:45 Gus Rubio - Txemi Ramon / Asier Valle - Joseba Fraile
10:30 Aitor Regaño - Ibon Bollon / David Gracianteparaluceta - David del Palacio
11:15 Mikel Moreno - J.Javier P. Corcuera / Asier Valle - Joseba Fraile
12:00 Julen Lozano - Aimar Cebrino / Aitor Regaño - Ibon Bollon
12:45 Gus Rubio - Txemi Ramon / Mikel Moreno- J.Javier P. Corcuera

AZAROAK 23

09:00 Xabier Jauregi - Asier Markiegi / Beñat Zubizarreta - Gorka Gartzia-Etxabe
09:45 Jon Etxeberria - Danel Soria / Mikel Zubillaga - Gorka Perez de Labeaga
10:30 Jon Diez - Aitor Artolazabal / Beñat Zubizarreta - Gorka Gartzia-Etxabe
11:15 Iban Ayala - Markel Davila / Mikel Zubillaga - Gorka Perez de Labeaga
12:00 Xabier Jauregi - Asier Markiegi / Jon Diez - Aitor Artolazabal
12:45 Jon Etxeberria - Danel Soria / Iban Ayala - Markel Davila

Herri boterearen gainean jardungo dute gaur gazteek

Gazte Ekimenaren Azaro Iraultzailia egitarauko hitzaldia da Askapeneko kideek egingo dutena

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Azaroarekin batera jarri zuten abian Azaro Iraultzailia egitasmoa Gazte Ekimeneko kideek, eta gaur, egubakoitza, herri boterearen gaineko hitzaldia izango dute Askapeneko ordezkariek gidatuta udaletxe zaharrean, 19:00etan.

Domekan, ostera, *Bide berriak: elikadura burujabetza Euskal Herrian* dokumentala ikusiko dute, 17:00etan, eta ondoren eztabaidarako tartea izango da.

Lanerako gogotsu

"Oso hilabete interesgarria izaten dabil, eztabaida politak izan ditugu geure artean, eta asko gabiltza ikasten", jakinarazi du Nerea Zubillagak, Gazte Ekimeneko kideak, eta gaineratu: "Jon den astean, esaterako, herri mugimenduen gainean berba egitera etorri zen Joxebi Zumalabe fundazioko kide bat, eta militantzia ereduak, botere banaketa, banaketa horretan eragiten duten faktoreak eta beste hainbat kontu izan zituen berbetagai". Jakinarazi du jende askorik ez dela elkartu egunotako jardunaldietan, baina elkartutakoak "gogotsu" ibili direla: "Ikasteko eta lanerako gogoz gerturatu gara guztiok, eta entzun eta ikasi dugun hori benetan aplikagarria dela iruditu zaigu, gainera".

Azaroaren 29an Gazte Eguna

Lan kontuak oraingo domekan bukatuko dituzte, eta hurrengo aste bukaera ospatzeko izango da. Hala, azaroaren 29an, zapatua, Gazte Eguna egingo dute. Egun osoko jaia izango da, eta horien artean izango dira bertso saioa Lekaixokako kideekin eta bazkaria. Bazkaltzera joan gura dutenek aurrez erosi beharko dituzte txartelak Urbaltz edo Orly tabernetan, 5 euroren truke.

Haur masajeen onurak erakusten

KOMUNITATEA GOIENA | MIREN BEREZIBAR
KURTZEBARRI ESKOLA | ARETXABALETA

Orain dela urte batzuk, Kurtzebarri eskolako irakasle talde bat haurren masaje ikastaroak antolatzen eta ematen hasi zen herriko familiendako. Masaje ikastaroak Kurtzebarri eskolan izaten dira. Irakasleek (Idoia Viteri eta Dorleta Gaztañaga) beraien borondatez ematen dituzte saio horiek. Dorletak hauxe aipatu du: "Haur masajeak erlazio familiarrak pizten eta indartzen ditu. Masajeak haurrei denbora bat eskaintzeko aukera eman diezaguke; horrela, maitatzeko, entzuteko, onartua izateko, autoestimurako oinarriak sendotzeko eta errespetatzeko aukera izan dezakegu". Aurtengo ikastaroan ere jendea gustura dagoela ikusi dute. Azaroaren 11n, 13an, 18an eta 20an izan dira.

Haur masajeek onura asko dituzte; sistema gastrointestinala hobetzen laguntzen du, haurrak erlaxatzen dira, harremanak osatzen laguntzen du (ukimena, begirada, ahotsa, usaimena...). Masajeen onurak ikusita, haurrei ematera animatzen ditu Dorletak.

Hainbat lagun masajeak ematen ume txikiei. | KURTZEBARRI ESKOLA

ENERITZ URRUTIA

Aitaitek gertatutako gaztainak

Udazkenarekin batera, eta ohiturari jarraituz, Gaztaina Erre Eguna ospatu dugu Arizmendi Ikastolako Basabeazpin. Eguraldi ederra lagun, haurrak eta aitaita-amamak izan dira protagonista. Abestiak, dantzak eta aitaitek gertatutako gaztaina goxoak dastatu ditugu lagunartean. Umore ezin hobean eta alaian igaro dugu goiza.

KOMUNITATEA GOIENA | E. URRUTIA
ARIZMENDI | ARETXABALETA

'Bizkarra ezagutu, bizkarra zaindu' berbaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Ibarra kiroldegian

Bizkarreko minak zelan saihestu azalduko du Alazne Madariaga adituak gaur, azaroak 21, kiroldegian, 17:30ean. David Spine Concept metodoaren berri emango du; makina batzuen bitartez indartze eta mugimendu ariketa kontrolatuak egiten dira bizkarrezurrean, eta, ondorioz, bizkarreko mina txikitu egiten da. Jende askok agertu du interesa, eta plazak beteta daude.

'La isla mínima' filma izango dute helduek aste bukaeran eta 'Pancho el perro millonario' umeek

La isla mínima filma (Espainia, 2014, 105 minutu) emango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00), Arkupen. Alberto Rodriguezek zuzendutako filma da eta Raul Arevalo du protagonista, beste batzuekin batera.

Umeek, ostera, *Pancho el rey millonario* (Espainia, 2014, 90 minutu) izango dute bihar eta etzi (17:00).

Poxpolo Ta Konpainia berriro datoz domekan Arkupera, urrian izandako arrakastaren ostean

Domekan, hilaren 23an, Poxpolo Ta Konpainia izango dira berriro Arkupen, 11:30ean (sarrera, 3 euro). Tolosa aldetik datorren pailazo ezagunari, urrian izandako arrakastaren aurrean, berriro etortzeko eskatu diote. Orduan legez, oraingoan ere ipuinak, kantuak, txisteak eta kontu xelebreak ekarriko ditu Zaraia aretora konpainia onean.

Euskal Herriko hilarrien gaineko erakusketa egongo da Arkupen azaro bukaerara arte

Azaroa bukatu arte dago Arkupen *Euskal Herriko hilarriak* erakusketa. Hamabi panel daude gaika sailkatuta: sinbolo astralak, giza irudia, gurutzea... Eta hilarrien lau erreprodukzio ere bai. Pedro Zarrabeitia adituaren *Estelas discoidales de Euskal Herria* liburuaren hainbat ale ere badaude kontsultatzeko.

Laguntza areto futbol taldeari

M.A.

Aretxabaleta kirol elkarte barruan dagoen areto futboleko taldeak jertseak (20 euro) eta bufandak (10 euro) jarri ditu salgai taldeari diruz laguntzeko (argazkian biak). Haizea tabernan dauzkate horiek eta partidu egunetan ere saltzen dituzte kiroldegian.

Porrotx. | KATXIPORRETA

Jose Mari Agirretxe
| Porrotx

"Txo, mikmak txikia' ikuskizunarekin ilusio handiz gabiltza"

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek ikuskizun berria estreinatuko dute Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian. Bihar izango da, zapatua, 17:30ean, eta, oraingoan, *Txo, mikmak txikia* ikuskizunarekin etorriko dira.

Nolakoa izango da *Txo, Mikmak* ikuskizuna?

Gaur egun, plastikozko kontinente bat sortzen ari garela uste dugu. Plastikoek itsasoan bukatzen dute eta arrainak arriskuan daude. 50.000 mikmak indiar inguru bizi dira Ternuan, eta gu, euskaldunak, mikmak txikiak bezalakoak gara. Hala, mikmak bat etorri da ea natura-eta zaintzen dugun ikusteko. Izan ere, denok dugu Plastiker txiki bat gure barruan; hura ikuskizuneko gaiztoa izango da. Albaola proiektua ardatz izanik, San Juan baleontzia eraiki eta itsasoa salbatzera joango gara.

Nola egingo duzue?

Historian zehar atzera begiratuko dugu, gaur egungoa islatzeko. Lehen, baleak harrapatzen genituen; orain, berriz, salbatu egingo ditugu. Auzolanean, kulturan eta naturan oinarrituta egongo da.

Zein helbururekin zatozte?

Hausnarketarako bidea eman nahi du ikuskizunak: nondik gatozen, eta nora goazen...

Martitzenean aurkeztuko dute tratu txar egoeretarako protokoloa

Clara Campoamor elkarteko kideekin batera gertatu du Udalak

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Tratu txar egoeretan jarraitu beharreko protokoloaren aurrerapena aurkeztuko diete eskoriatzarrei udal ordezkariek datorren martitzenean, azaroaren 25ean. Kultur etxean izango da hitzaldia, 18:00etan, eta, hain zuzen, protokoloa lantzen ibili diren Clara Campoamor elkarteko kideak ere han izango dira.

Myriam Beltran de Heredia eta Elena Sagaseta. | MIREN ARREGI

Derrigorrezko jarraibidea

"Herriko hainbat eragile eta elkartetako ordezkariekin egin ditugu bilerak protokolo hori zehazteko", jakinarazi du Myriam Beltran de Herediak, Udaleko Prebentzio teknikariak, eta gaineratu: "Elena Sagasetarekin, Clara Campoamor elkarteko gizarte langilearekin batera zehaztu dugu aurrerapen bat. Hori aurkeztuko dugu martitzenean, eta herritarren iradokizunak jasotzeko epea zabaldu".

Sagasetak dio, bestalde, ezinbestekoa dela halako jarraibide bat zehaztuta izatea: "Berdintasunaren alde jardun behar dute udalek, eta, gainera, horrekin erakusten du indarkeria matxista jasandakoen emakume eta umeenganako ardura". Garrantzitsua dela herritarrek ere protokoloarekin "bat egitea" dio. Eta gaineratu du erasoren bat jasandakoek bakarrik ez daudela sentituko dutela horrekin: "Tratu txarretan oinarritutako harreman horiek apurtzeko laguntza eska dezaketela ikusiko dute".

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko, azaroan 29rako egun osoko egitaraua prestatu dute

I.B | ESKORIATZA

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da, urtero bezala, Euskal Herri osoan. Hori dela eta, azaroaren 29rako egun osoko egitaraua prestatu dute Eskoriatzako euskalgintzako eragileek.

Egunari hasiera emateko, 12:30ean euskal dantzak izango dira herriko plazan. Gero, 13:00etan, *Euskaraz bizi nahi dut* argazkia egingo dute, eta ondoren, bertso-kalejira izango da Aitor Sarriegi eta Eneritz Artetxe bertsolariekin batera.

Kalejiraren ostean, 14:30ean herri bazkaria egingo dute Egokiena elkartean, eta bazkalostean bertsolariak izango dira. 18:00etan, berriz, egunari amaiera emateko, Mihiluze erraldoia egingo da kontzejupean, 12 eta 99 urte bitartekoendako.

Bazkarirako txartelak salgai

Egokiena elkartean egingo den herri bazkarirako txartelak Goxo Txiki, Inkernu eta Aldatz tabernetan daude salgai, 10 eurotan.

Herrikok, Hankamotx bertso eskolak, Auzokok, Berbalagunek, gaztelekuak, Musika Eskolako dantza taldeak eta Eskoriatzako Udalak ekitaldira joateko gonbidapena egin dute.

Abenduan ere ekintza gehiago

Euskararen Nazioarteko Eguna azaroaren 29an ospatuko da, baina, egun horretaz gain, hainbat ekintza egongo dira abenduko lehenengo astean. Jostailu erakusketa, plaza apainketa, gaztaina-jana Luis Ezeizako kantxan, buruhandiak, umeentzako jolasak, karaokea, spinning saio irekia euskarazko kantuekin, eta abar.

Zazpigarren ardo dastatzea egingo dute zapatuan

I.B | ESKORIATZA

Bihar, zazpigarren ardo dastatzea izango da, 18:30 inguruan, Eskoriatzako plazan. Hain zuzen, 400 ardo botila inguru eroango dituzte Aitzorrotz Kultur Elkartekoek, eta, urtero bezala, giro ederra izango da. Bost stand egongo dira, lau ardoentzat eta bat pintxoentzat. Euskal Herriko, Kataluniako, Alacanteko, Errioxako eta Ribera del Dueroko ardoak egongo dira. Baita ardo bereziak ere: Australiakoa, Argentinakoa eta Burdeoskoa, eta hiru ardo zuri mota.

Bereizgarri bezala, aurten odoloste pintxoak eta foie pintxoak egongo dira. Azken horiek, Zubia Pateen laguntzari esker.

'Eredu energetikoari alternatibak' hitzaldia

I.B. | ESKORIATZA

Goiener kooperatibako Diego Egizabal ordezkariak *Eredu energetikoaren aldaketarako alternatibak* hitzaldia egingo du Ibarraundi museoan. Astelehenean, azaroaren 25ean, 19:00etan izango da, euskaraz eta gaztelaraz. Energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba da Goiener eta 2.347 bazkide ditu. Hortik abiatuta energi eredua aldatzeko zein alternatiba dauden jakinaraziko du Egizabalek.

Egun berean, baina goizean, 10:00etatik 12:00etara, etxeko kontsumoan aurrezteko azken aholkularitza zerbitzua egongo da Eider Roaren eskutik, Ibarraundin.

Musika eskolako bandaren Santa Zezilia kontzertua

Beheko Errota musika eskolakoek kontzertua antolatu dute Santa Zezilia egunerako. Emanaldia elizan egingo da, zapatuan, 20:00etan, eta hainbat kantu eskainiko dituzte Angel Bañaresen gidaritzapean: *Puente areas pasodoblea, Nada y mucho, Scheherazade* eta *Coppelia,* besteak beste. Kantu horiez gain, egitaraua borobiltzeko beste bat joko dute emanaldia amaitzeko.

Herrixa Dantzan dantza saio irekia izango da Huhezin

Patxi Montero arrasatearraren gidaritzapean Herrixa Dantzan saioa egingo dute domekan Huheziko kaperan. Doako saioa izango da, eta ez dago aldez aurretik izena eman beharrik. 18:30ean hasiko da. Musika eta dantza tradizionalekin osatutako dantzaldia da egingo dutena: sokan, bikoteka, soltean, korroan, taldeka... modu errazean, gainera.

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI
KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika
Aingeru Guarda Pasealekua 31. • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 40 10

Jean Mixel Barbier | Aihertarra

"Senidetzearen helburua ez da aldatu: elkar aberastea"

- Askotariko ekintzak egingo dituzte zapatuan, 30. urteurrena ospatzeko
- Lehen aldiz bi orduko gaubeila egingo dute Aiherratik kanpo

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Antzuolaren eta Aiherraren arteko senidetzearen 30. urteurreneko ospakizuna egingo dute bihar Antzuolan. Aiherratik 60 bat lagun datoz; tartean, Jean Mixel Barbier. Senidetzearen lehen urratsen ondotik, buru-belarri dihardu.

30 urte bete ditu senidetzeak. Ze da hori aihertarrendako?

Batez ere, anai-arreba garenok elkartzeko une bat. Familia bereko kideak elkartzea. Elkar aberasten lagundu diguten hartu-emanak izateko bidea eman digu senidetzeak. Aurten hirugarrengoz egingo ditugu ekitaldi ofizialak senidetzea ospatzeko.

Nolako bilakaera izan du senidetzeak urte hauetan?

Gure arteko istorioa oso sinplea da: mendian elkar ezagutu zuten bikoteek emandako urratsetatik abiatu zen. Lagun egin ziren eta haietako batek egindako gonbitari erantzunez joan ginen lehen aldiz Antzuolara. Ni Aiherrako jai batzordeko kide nintzen lehen aldiz parte hartu nuenean. Andre Martinonen asmoa zen senidetze bat egitea Antzuolarekin.

Hortaz, mendian gauzatutako elkartze hura bi herrien arteko partekatze bilakatu da.

Senidetzearen sorreran zehaztutako helburuak bete direla esango zenuke?

Lehen helburua elkar aberastea zen. Frankismoaren ostean muga pasatzea ez zen erraza. Hasierako urteetan Antzuolara joan aurretik kontu handiz ibiltzeko aholkatzen ziguten Aiherrako nagusiek. Mugak poliki-poliki apurtzen goazela esango nuke. Elkar aberastearekin batera, elkar

Jean Mixel Barbier. | JONE LARRAÑAGA

ezagutzea eta euskarari bultzada ematea zen gure asmoa. Euskalki ezberdinak erabili arren. Oso inportantea da guretzat ikustea Antzuolan jendeak euskaraz berba egiten duena kalean, normaltasunez.

Nolakoak dira antzuolarrak?

Irekiak eta adeitsuak. Euren beharra izan dugunean, eskuzabal lagundu gaituzte. Adibidez, ikastolarendako laguntza behar izan genuenean.

Lehen aldiz ospatuko duzue gaubeila Aiherratik kanpo. Zer da gaubeila?

Azken 23 urteetan urtero egin dugu gaubeila Aiherran. Hiru bat orduko kantaldi-jaialdia da. Guk beti antolatu izan ditugu kantaldiak, baina kanpoko jende gutxi joaten zen. Antzerkia, musika eta bertsolaritza batzen zituzten jaialdiak egiten hasi ginen. Hori zen aitzakia inguruko herrietako bizilagunak elkartzeko. Bina bertsolari, musikari eta antzerki aktore gonbidatzen ditugu. Gaubeila azaroaren 10ean egiten da urtero. Bada, aurten, antzuolarrek gaubeila egin gura zuten euren herrian, eta gure laguntza eskatu zuten. Aiherran bat eta Antzuolan beste bat egin ordez, bakarra egingo dugu.

ANTZUOLAKO EGITARAUA

AZAROAK 22

16:00 Ongietorria aihertarrei.

16:30 Hitzarmena sinatzea eta bandera ematea Beltzuntze elkarteari. Ostean, aihertarrek eskainitako gaztainondoaren landatzea Buztinzurin.

18:00 Gaztaina erre dastatzea Herriko Plazan.

19:00 Gaubeila Torresoroan.

- Bertsolariak: Eneritz Zabaleta baionarra eta Aitzor Iturbe antzuolarra.
- Kike Amonarriz eta Pantxo Hirigarai.
- Niko Etxarten kantaldia.

23:00 Neke Politikoa eta D-Pintxos taldeak gaztetxean.

100 aldiz odola emateagatik sarituak

Aurreko aste bukaeran, 100 aldiz odola eman duten emaileak saritu zituzten Donostian, Kursaalen. Omenaldia eta aitortza jaso zutenen artean bi antzuolar zeuden: Luis Mari Jauregik eta Begoña Letek 100 alditan eman dute odola. Hala, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartekoen eskertzarik beroena jaso zuten.

BEGOÑA LETE

Bergarako Orkestra Sinfonikoa. | GOIENA

Bergarako Orkestra Sinfonikoaren emanaldia

Torresoroan egingo du kontzertua eta lau zati nabarmen izango ditu (22:00)

M.B. | ANTZUOLA

Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Torresoroan, 22:00etan. Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzentzen duen orkestra ikusi gura duenak hiru euro ordaindu beharko ditu; ikasle eta langabeek, berriz, 1,5 euro ordaindu beharko dituzte.

Lau zati

Bergarako Orkestra Sinfonikoaren kontzertuak lau zati nagusi izango ditu: lehen zatian, metal taldea izango da protagonista, Corelliren, Borodinen eta Bachen pieza bana eskainita; bigarrenean, tronpa lauko teak Haendel, Sibeliu, Wagner, Badelt eta Williamsen piezak joko ditu; hirugarrenean, Romero, Schaars eta Mahr musikarien piezak interpretatuko ditu egur hirukoteak; eta laugarrenean, Orkestra Sinfonikoa izango da protagonista. Azken zati horretan, sei pieza eskainiko dituzte elkarrekin: *Palladio*, *Bi malko*, *Moon River*, *Bacchanale*, *Scheherazade* eta *Love Actually*.

Bazkide kanpaina ipiniko du martxan ziklismo elkarteak

M.B. | ANTZUOLA

Aiastui Txirrindulari Elkarteak ezohiko batzarra egin zuen aurreko astean, eta bazkide kanpaina martxan ipintzea adostu zuten. "Aspaldian utzita daukagu bazkide zerrenda eta bultzada berria eman gura diogu. Bazkide egin gura duenak 10 euro ordaindu beharko ditu urtean", diote zuzendaritza batzordeko kideek.

Bazkide kanpainarekin batutako dirua, bereziki, Uzarragako Igoera finantzatzeko erabiliko dute. "1986an Euskal Herriko Itzuliak utzitako diruarekin dihardugu probak antolatzen. Oraindik badaukagu dirua, baina, guk antolatzen ditugun probak mantendu gura baditugu, bazkideen eta babesleen laguntza behar dugu", diote zuzendaritzakoek.

Bi proba urtero

Aiastui Txirrindulari Elkarteak bi lasterketa –gazteendako Uzarragako Igoera eta 23 urtez azpikoendako Antzuola saria– eta umeendako *challengea* antolatzen ditu urtero. Uztailean egiten den Antzuola saria Udalak ordaintzen du. Aldiz, Uzarragako Igoera babesleen diruari esker estaltzen da. "Gaur-gaurkoz Uzarragako Igoera ez dago arriskuan, baina diru-iturriak topatzea komeni zaigu etorkizunari begira", diote.

Elkarretaratzea egingo dute hilaren 25ean Herriko Plazan

Azaroaren 25ean Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da, eta, urteroko aldarrikapenak egiteko, elkarretaratzea egingo dute Antzuolan. Herriko Plazan elkartuko dira , 19:00etan. Udaletik dei berezia egin diete herritarrei.

Karta jokoetan izena emateko epea zabalik Landatxopen

Abenduaren 1etik 4ra –hurrenez hurren, puntxo, briska, tute eta mus txapelketak– egingo dituzten karta joko txapelketetan izena emateko epea zabalik dago. Interesatuek Landatxopen eman beharko dute izena hilaren 28a baino lehen.

Indarkeria matxistari aurre egiteko hainbat ekintza antolatu dira elkarlanean

Udalak, Itur-Zurik, Alaiak-ek eta Gazte Asanbladak bat egin dute azaroaren 25era begirako ekimenekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Azaroaren 25eko Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunera begira hainbat ekintza antolatu dituzte Udalak, Itur-Zuri Emakumeen Kultur Elkarteak, Alaiak erretiratu elkarteak eta Gazte Asanbladak. Azken urteetan puntu morea banatu izan du Udalak –baita udaletxean modu ikusgarrian jarri ere– eta azaroaren 25ean egin izan den elkarretaratzean jende asko elkartu izan da. Aurten, baina, beste buelta eman gura izan diote aldarrikapenari.

Emakume talde bat artileei begira, erretiratuen egoitzan. | EDURNE URIBARREN-ITURRIETA

Indarkeria artilez borrokatu

Aurtengo nobedadeetako bat da domeka honetako ekintza. Ibarran 40 bat emakume aritu dira iraila ezkero artilezko artelanak egiten, gero horiekin kultura etxe aurreko parkeko zuhaitzak forratzeko. Artelanak amaitu dituzte dagoeneko eta orain zuhaitzetan jartzea falta da bakarrik. Oletan ere gauza bera egingo dute. Bederatzi zuhaitz forratuko dituzte guztira.

Udala oso pozik dago ekimen horrek izan duen erantzunarekin: "Genero indarkeriaren salaketa modu orijinal baten bistaratzeko balio izango du", diote. Zuhaitzak forratu ostean Bizente Goikoetxea plazan elkarretaratzea egingo dute. Baina ez da hori aste bukaera honetako ekintza bakarra izango: herriko gazteek ere bat egin dute aldarrikapenarekin, eta indarkeria matxista salatzeko mural bat margotuko dute bihar, zapatua. Egitarauarekin amaitzeko, beste nobedade bat izango da hilaren 29ko autodefentsa feminista tailerra. Aurretik eman beharko da izena, azaroaren 26 baino lehen, Añai edo Eki tabernetan. Tailerrak bi zati izango ditu: 10:00etatik 12:00etara arlo psikologikoa landuko dute eta ondoren teknika fisikoak ikasiko dituzte. 30 lagunendako lekua egongo da.

INDARKERIA MATXISTA SALATZEKO EKINTZAK

HILAK 22, ZAPATUA

Goizean zehar Gazte lokalekoek eta Gazte Asanbladakoek mural bat margotuko dute.

22:00 *Piedras* filma kultura etxean. 16 urtetik gorakoendako.

HILAK 23, DOMEKA

10:30 Herriko emakumeek Ibarran eta Oletan zuhaitzak artilez forratuko dituzte.

13:00 Elkarretaratzea Bizente Goikoetxea plazan.

HILAK 29, EGUBAKOITZA

10:00-14:30 Autodefentsa feminista tailerra eskolako gimnasioan. Izena eman behar da azaroaren 26a baino lehen.

ERRETRATU ZAHARRA

Bertako baserria ikertu zenekoa

Josemari Velez de Mendizabal ikerlariak Aramaioko baserrien gaineko artikulua idatzi du asteon *Hots Begi Danbolinak* blogean. 1982ko maiatzaren 9an Arabako Diputazioak *Arquitectura rural alavesa. Valle de Aramayona* liburua aurkeztu zeneko eguna ekarri du gogora idazle aramaioarrak: "Edozein herritako arkitekturak herri-nortasuna adierazten du", dio, besteak beste, artikuluan. Osorik irakurtzeko: *http://txemax3.blogspot.com.es*.

Argazkiaren iturria: Josemari Velez de Mendizabal. **Data:** 1982ko maiatzaren 9a.

Azken bi saioak biomasa proiektuaz informatzeko

Pedro Inazio Barrutia kaleko bizilagunendako hitzaldiak hilaren 25ean eta 26an izango dira

J.B. | ARAMAIO

Biomasa proiektuaren gaineko informazio eta sentsibilizazio kanpaina azken txanpan sartzera doa. Azken bi bilerak falta dira, Pedro Inazio Barrutiako bizilagunei zuzendutakoak. Hilaren 25erako, 1. zenbakitik 7A-ra arteko bizilagunak daude deituta eta hilaren 26rako, berriz, kale bereko gainerako zenbakietan bizi direnak. Saioak euskaraz zein gazteleraz izango dira. Udala pozik dago kanpainak orain arte izan duen harrerarekin. Atzo, prentsaurrekoa eskaini zuten Gasteizen.

Aramaioko egurra erabiliz –ezpala litzateke erregaia– ur beroa lortzean datza. Proiektuak aurrera egiten badu, ezpala Udalak erosiko du eta etxebizitzen jabeek aukera izango dute euren egurra erabiltzeko. Gero, enpresa espezializatu batek galdarak instalatuko ditu eta hura arduratuko da banaketaz. Fakturazioaz Aramaioko Argindar Banatzailea enpresa arduratuko da.

Santa Zezilia ospatzeko kontzertua domekan

Bizente Goikoetxea abesbatzak urteroko emanaldia egingo du etzi elizan, meza ostean

J.B. | ARAMAIO

Azaroaren 22an ospatzen da Santa Zezilia, musikarien zaindaria. Eta urtero moduan, Bizente Goikoetxea abesbatzak kontzertua eskainiko du San Martin elizaren barruan, domekako mezaren ostean. Abesbatzako presidente Bittor Kortabarriak iragarri duenez, ordu erdi inguruko kontzertua izango da: "Zortzi bat kantu abestuko ditugu, saio motza izango da".

Gabonetakoak hutsik ez

Kontzertua amaitu ondoren, Arrasateko Garagartza auzoko Arteaga jatetxean bazkalduko dute abesbatzako kideek eta beste zenbait gonbidatuk.

Hurrengo emanaldia Gabonetan eskainiko dute. Urteroko kontzertua da eta aurten abenduaren 21ean eskainiko dute. Urtarril hasieran ere abestuko dute, Gasteizen. Kontzertu hori kalean izango da.

Bidelapurrak taldearen zuzenekoa eta Agirre eta Xabi Igoa bertsolariak bihar Eki tabernan (18:30)

Gasteizko Bidelapurrak bikoteak kontzertua eskainiko du bihar Eki tabernan (18:30). Folk, rock eta country doinuak eskainiko dituzte. Zuzeneko musikaz gain, Manex Agirre eta Xabi Igoa bertsolari aramaioarrak ere gonbidatu dituzte antolatzaileek. Zozketa bat ere antolatu dute: Zerb garagardoa eskatuz gero, marka bereko maillotak irabazteko aukera egongo da.

'High Over Todra' dokumentala proiektatuko du Jon Ander Beristain alpinistak hilaren 28an Sastiñan

Orixol mendizale elkarteak Jon Ander Beristain alpinista gonbidatu du azaroaren 28rako Sastiñara (19:00), *High Over Todra* dokumentala erakusteko. Beristainek *Snack line* diziplina berria erakusten du; bi hitzetan esateko, mendian jarduten diren *funambulistak* dira protagonistak; hau da, soka baten gainean amildegira erori barik oreka mantentzeko gai diren adituak dira. Marokoko Todra deritzon inguruan kokatzen da dokumentala.

Denboraldi hasiera eskasari buelta ematen saiatuko da Aramaixo taldea hirugarren sailkatuaren aurka

Aramaixo areto futboleko taldeak lau partidu jokatu ditu 2014-2015 denboraldian eta horietatik bakarra irabazi eta beste hirurak galdu egin ditu. 10 gol sartu dituzte eta 23 jaso. Denboraldi hasiera kaskarrari buelta emateko asmoz joango dira bihar Gasteizera. Hirugarren sailkatua den Bar Onopkoren aurka jokatuko dute aramaioarrek; aurkari zaila izango da, beraz. Arabako talde onenen aurka jokatzen du Aramaixok.

ELGETA

Beldurrezko bi kontaketa saio gaur liburutegian

Zabalik dago, bestalde, azaroaren 28ko sormen tailerrerako izen-ematea

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Bihotz taupadak azkartu egingo dira gaur, barikua, Elgetako liburutegian. Baliteke ikarazko oihuak ere entzutea behin baino gehiagotan. Kontua da beldurrezko bi ipuin saio egingo dituztela. 9 urtetik gorako neska-mutikoendakoa 19:00etan izango da eta helduendako saioa, berriz, 22:00etan hasiko da.

Bereziki apainduko dute liburutegia, eta umeendako saioa 19:00etan hasiko da. Herriko boluntario talde baten eskutik etorriko da umeendako saioa, eta izena ere ipini diote: Dardartien Kluba. Helduendako saioa 16 urtetik gorakoendako iragarri dute, eta Elorrioko boluntario Roman Martzanak egingo du, 22:00etan, gazteleraz. *Morir... ¿y luego?* da saioaren izenburua.

Sormen tailerra

Datorren barikurako, hilak 28, *Kexak uxatzen* izeneko tailerra antolatu dute liburutegitik. Ipuin kontaketa eta sormen lantegia egingo dituzte 6 urtetik gorako neska-mutikoendako. Apika taldeak gidatuko du, 17:00etatik 18:00etara. Plaza mugatuak dira, 25 zehatz esanda, eta astelehenean zabaldu zuten izena emateko epea.

'Ezetz igarri!' lehiaketa

Martxan da, bestalde, 12-16 urte bitarteko Elgetako gaztetxoei zuzendutako *Ezetz igarri!* lehiaketa. Bi idazleren izenak asmatu behar dira, eta pistak ematen dituzte astelehenero liburutegitik. Irabazlearendako saria ere badago: e-reader bat. Adi ibili behar da, astelehenean emango dituzte-eta azken pistak.

Geaxi Ezpeletak liburutegian jarraituko du

Elgetako Udalak egin berri dituen liburuzain lanposturako hautaketa probetan Geaxi Ezpeletak atera du puntuazio onena. Baloratu dituzte ikasketak, esperientzia eta azterketa idatzia. Ezpeletak 75 puntu lortu ditu, bigarren emaitzarik onena 36 puntukoa izan da, hirugarrenak eta laugarrenak 15na puntu batu dituzte eta bosgarrenak 13 puntu. Udalak urtebeterako berrituko dio lan kontratua Ezpeletari, eta bi aldeen adostasunez beste urtebeterako luzatu ahal izango da.

Kubo eta txartel banaketa martxan da

Martitzenean hasi ziren hondakinen bilketa sistema berrirako materiala banatzen. 1.200 kubo eta 600 txartel banatuko ditu Udalak. Egokitutako egunetan jaso ezin izan dituzten herritarrek zabalik aurkituko dute udaletxean astelehenean, martitzenean eta eguaztenean, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etara 20:00etara.

L.Z.

Eguenean herritarrak izango dira protagonista kafe antzokian

L.Z. | ELGETA

Zuhaitz Gurrutxagak, Mikel Pagadik eta Sebastian Lizasok *Herri txiki infernu handi* izeneko saioa egingo dute eguenean, hilak 27, Espaloia kafe antzokian. EITB ari da saioa ekoizten, eta asteon hainbat elkarrizketa grabatu dituzte dozena bat herritarrekin.

Eguenean emaitza ikusteko aukera egongo da Espaloia kafe antzokian egingo duten saioan. 20:00etan hasiko da ekitaldia eta Gurrutxagak, Pagadik eta Lizasok punta aterako diote herritarrek esandakoari. Sarrera librea izango da, eta grabatu egingo du saioa EITBk urtarrilean telebistan emititzeko.

Elgeta eta elgetarrak izango dira protagonista, eta aukeratutako herritarren artean daude, besteak beste, Jabier Bolinaga, David Peñalver, Maria Angeles Elkoro, Pedro Mari Ubera, Julian Markiegi, Fermin Iribar, eta Patxi Basauri.

Sendabelarren ezagutza, jaiegunetan *gramolia* ipintzeko ohitura, herrian aduana zegoeneko pasadizoak... nork bere istorioak kontatuko ditu eta Gurrutxaga, Pagadi eta Lizaso Elgeta eta elgetarrak ezagutzen joango dira, eta umoretik euren ondorioak ateratzen.

Euskal Herriko hamar herri txikirekin egingo dute gauza bera.

PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Mikel Beretxinaga-Ibon Untzetabarrenetxea / Iban Retolaza-Diego Cantabrana	22-11
Mikel Ormaetxea-Koldo Erostarbe / Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi	22-19
Oskar Sarasua-Iñaki Olaortua / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrieta	22-08
Jabier Bolinaga-Jose Mari Zubiaurre / Jabier Larrañaga-Iker Irazabal	22-11
Angel Ibarluzea-Alberto Telleria / Iñaki Ugarteburu-Gorka Bolinaga	22-20

GAUR, BARIKUA, 19:30EAN

Koldo Goenaga-Fernando Zenitagoia / Iñaki Ugarteburu-Gorka Bolinaga
Angel Ibarluzea-Alberto Telleria / Jabier Larrañaga-Iker Irazabal
Koldo Erostarbe-Mikel Ormaetxea / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrieta
Oskar Sarasua-Iñaki Olaortua / Mikel Beretxinaga-Ibon Untzetabarrenetxea

OHARRAK

TXERTAKETA KANPAINA

Hilaren 30ean amaitzen da gripearen aurkako txertaketa kanpaina. Interesatuek Elgetako osasun etxera jo behar dute.

GAZTEENDAKO TAILERRA

Droga-menpekotasun prebentzio tailerra egingo dute Elgetako gaztelekuan abenduaren 13an eta 14an, 17:30ean. Argibideak udaletxean.

ONTZIRATU ZAITEZ, URRIA

Zenbaki sarituak dira Goikoetxe haratega, 6.290; Amagoia arrandegia, 4.209; Ugari, 459; eta Erdiko denda, 1.756.

3. PINTXO DOMEKA

Azken aukera lehiaketako pintxoak dastatu eta botoa emateko. Sariak daude jokoan. Naiara eta Itziar trikitilariek girotuko dute eguerdiko txikiteoa.

LEINTZ GATZAGA

Tasak izoztu egin ditu udalbatzak eta zirkulazio ordenantza onartu du

Zirkulazio ordenantza jendaurrean jarriko dute, alegaziorik baleude, horiei bide emateko

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Aurreikuspena bete egin da: datorren urteko tasak izoztu egingo ditu Udalak. Halaxe onartu zuen udalbatzak joan den astean egindako osoko bilkuran. Aho batez onartu ere.

Azken urteotan bizi dugun krisi egoera izan da erabaki hori hartzeko arrazoi nagusia, Gatzagako udalbatzak duen "ezkerreko" izaerarekin bat eginez.

Hasieran, abisua

Horrekin batera, joan den egueneko osoko bilkuran hartutako beste erabaki bat izan zen zirkulazioa arautzeko ordenantzari onespena ematea. Abiadura mugak eta aparkatzeko leku egokiak errespetatzen direla bermatu gura dute haren bitartez, ikusita jendeak ez dituela arauak betetzen, bereziki asteburuetan Gatzagako jatetxeetara joaten direnek. Udalaren asmoa da hasieran abisu bitartez jakinaraztea zirkulazio arauren bat urratu dela, eta horiek ez badira eraginkorrak, azken urratsa izango da isunak jartzea. "Ertzaintzarekin berba egingo dugu isunen gainean, ze guk ez dugu-eta udaltzainik. Dena den, gure helburua ez da isunak jartzea", zehaztu du Iñaki Agirreurreta zinegotziak.

Burokrazia tramiteak bete ostean, ordenantza berria jendaurrean jarriko dute, norbaitek alegaziorik baleuka, horiek adierazteko. Udal bulegoan kontsultatu ahalko da araudia.

Udalbatza joan den eguenean osoko bilkura egiten. | U.M.

Emakumeendako autodefentsa bihar pilotalekuan

Bihar eta bihar zortzi. Bi hitzordu dituzte emakumeek autodefentsa ikasteko Gatzagan. Lehena Eskoriatzako Kenpo taldeak antolatu du. Bihar, 10:30ean hasi eta 14:00ak arte iraungo du, eta doan izango da. Interesa duenak bertaratzea besterik ez du. Eta oinarrizko defentsa landuko dute.

Bigarren hitzordua, berriz, Gizarte Ongizate Sailak antolatutakoa da, emakumeek jasaten duten indarkeriaren kontrako egunaren harira. Hori bihar zortzi izango da, doan baita ere, baina komeni da aldez aurretik izena ematea udaletxean.

AUTOMOBILISMOA

Arrasaten, Markuleten egin zen *motorshow slalom* erakustaldian Urtzi Samaniego. | IMANOL SORIANO

Autoak gurutzatuta ikusteko aukera izango da Oñatiko I. eslalomean

Oñatiko I. eslaloma puntuagarria izango da eta ez da erakustaldi soila bakarrik izango

MANOL BELOKI | OÑATI

Lehen aldiz egingo da Oñatiko eslalom proba. Domekan izango da, 10:30ean, eta autoak gurutzatuta ikusteko aukera izango da Zahorretik Berezaoko industrialdera bitartean. Udana Oñatiko Motor Taldeko Asier Samaniegok adierazi duenez: "Oñatin autoekiko zaletasun handia dago eta gogoz geunden Oñatin eslalom bat antolatzeko".

Kategoria askotariko 20 auto inguruk hartuko dute parte eta hiru kart-kros ere egongo dira. Zirkuituak hainbat kono, chicane... izango ditu, eta, Zahorretik hasita, bidea egin eta leku berera azkarren bueltatzen denak irabaziko du. Samaniegoren esanetan: "Lan gogorra dugu antolakuntzatik; izan ere, 16 pertsona behar dira komisario lana egiteko, eta, horiez gain, beste hainbaten laguntza ere behar izaten da". Hala, ez da rallysprint batean bezala; abiadura izango garrantzitsua txapelketa horretan. Autoa behar den momentuan gurutzatzea eta teknika izateak gehiago balio du. Izan ere, "autoren batek konoren bat ukitzen badu... puntuak kenduko zaizkio...".

Zahor eta Opel Berezao arteko bidea 09:30etik 14:30era itxi egingo dute eta eslaloma 10:30ean hasiko da. Lehenengo, entrenamenduak egingo dituzte parte-hartzaileek, eta gero, bi txanda izango dira txapelketan. Hala, hainbat sari egongo dira, eta, antolakuntzakoek adierazi dutenez, Oñatiko onenarentzat ere egongo da saria.

Potentzia handiko autoak

Lau motatako autoek hartuko dute parte proban: lehen motakoak 1.600 zentimetro kubikora artekoak izango dira; bigarren motakoak, 1.600 zentimetro kubikotik gorakoak; hirugarren motakoak, atzeko trakzioa duten autoak; eta laugarren motakoak, berriz, kart-krosak.

Hurrengo erronka

Domekakoa eslaloma da eta Euskadiko Eslalom Txapelketarako puntuagarria izango da; ez da Arrasaten, Markuleten, egin zen moduko erakustaldia: "Aurrerago erakustaldi bat egin gura dugu, Eteo inguruan, baina zehazteko dago. Orain, ikusleek eta pilotuek disfrutatzea eta dena ondo irtetea espero dugu".

ASIER SAMANIEGO
PILOTUA

"Nahiago ditut rallysprintak, baina eslaloma ere dibertigarria da"

ASIER SAMANIEGO

Asier Samaniego pilotua oñatiarra da, eta, lasterketetan parte hartzen duen arren, aurten, Oñatiko eslalomaren lehen edizioa antolatzen dabil.

Zer dela-eta antolatu duzue Oñatiko I. eslaloma?

Ahal dugun lasterketa guztietara joan gara kirol honetan gabiltzanak, eta Oñatin, Udanako Igoeraz gainera, beste zerbait egitea pentsatu dugu. Eslalom hau puntuagarria izango da Euskal Herriko Eslalom Txapelketarako, baina aurrerago erakustaldi bat egin gura dugu. Ea lehen edizio hau ondo irteten den.

Rallyak baino dibertigarriagoak dira eslalomak?

Nik nahiago ditut rallysprintak edo auto igoerak, abiadura... baina eslaloma ere oso dibertigarria dela iruditzen zait. Gainera, modalitate honetan ere jende asko lehiatzen da.

Afizio handia dago Oñatin?

Bai, afizio handia dago Oñatin, baina ez autoekiko bakarrik. Motorrak, goitibeherak... ikustera jende asko joaten da eta herrian bertan pilotu asko ditugu.

ESKU PILOTA

Binakako pilota partiduak izango dira Bergaran

Mendizabal III.a-Urruzola/Jaka-Larrinaga eta Retegi Bi-Rezusta/Ezkurdia-Merino II.a

I.B | BERGARA

Gaur, egubakoitza, Aspe taldeko pilotariek binakako bi partidu jokatuko dituzte Bergarako Udal Pilotalekua, 22:00etan hasita. Bada, frontoira gerturatu ezin dutenek ETB1en ikusteko aukera izango dute, zuzenean emitituko baita.

Hasteko, Mendizabal III.ak eta Urruzolak Jakaren eta Larrinagaren aurka jokatuko dute, eta gero, Retegi Bi eta Rezusta lehiatuko dira Ezkurdiaren eta Merino II.aren aurka. Bi partiduak erabakigarriak izango dira hilabete barru hasiko den Binakako Txapelketako zerrenda osatzeko. Hala, ikuskizun bikainaz gozatzeko aukera izango da.

Bergarako pilota taldearen laguntzarekin antolatutako partiduetarako sarrera 20 euro da kantxako ikusleentzat, eta 10 euro ordaindu beharko dituzte, aldiz, harmailetatik ikusi nahi dutenek.

Beñat Rezusta, azaroaren 14an, Oñatin jokatutako partiduan. | JOSETXO ARANTZABAL

Aloña Mendi azkenurrenaren aurka lehiatuko da

I.B | OÑATI

Ohorezko Erregionaleko Aloña Mendi futbol taldeak Hondarribiaren aurka jokatuko du domekan, 16:30ean, Azkoagainen. Aurkariak azken-aurrenak dira, 6 punturekin, eta etxekoak, berriz, 11 punturekin daude lau postu gorago. Etxean jokatuta, garaipena eskuratzera irten beharko dute, aurreko jardunaldian Hernaniren aurka 0-3 galdu zutela ahazteko.

Bailarako Ohorezko Erregionaleko beste taldeek ere lehia gogorrak jokatu beharko dituzte. Lider jarraitzen duen Aretxabaleta laugarren postuan dagoen Hernaniren aurka lehiatuko da. Hiru puntuak eskuratu beharko dituzte; galduz gero, eta Aurrerak irabaziz gero, lidergoa galduko lukete. Antzuolak, berriz, azken postuan jarraitzen du. Aurreko jardunaldian berdindu egin zuen Martuteneren aurka, eta zulotik ateratzea komeni zaio. Bergarak, berriz, hiru jardunaldi daramatza jarraian 0-0eko emaitzak lortzen. Horrenbestez, sailkapenean gora egiteko, Beti Gazteri irabazi egin beharko dio etxean.

EBA mailako MUk Santurtziren aurka jokatuko du etxean

Aurreko jardunaldian, MU baino gehiago izan zen Easo, eta jardunaldi honetan, sailkapeneko hirugarrenaren aurka jokatuko dute etxean, Santurtziren aurka. Arrasatearrek bi partidu irabazi dituzte denboraldi honetan. Lehena kanpoan eta bestea etxean. Bada, seigarren jardunaldia jokatuko dute, eta, denboraldia luzea izan arren, garaipenaren bila joango dira Larreategiren mutilak.

Ford Mugarri eskubaloi taldeak Trapagaran hartuko du etxean

Ford Mugarrik sailkapenean bi postu beherago dagoen Trapagaran talde bizkaitarra hartuko du etxean. Bi taldeek galdu egin zuten aurreko jardunaldian; hori horrela, biak irtengo dira garaipenaren bila. Ford Mugarrikoek ez zuten aukerarik izan aurreko jardunaldian Kantabriako Santoñaren aurka garaipena lortzeko; izan ere, 32-24 galdu zuten Gartziaren mutilek, baina jardunaldi honetan etxean jokatuta gogor lehiatzera irtengo dira.

MENDI LASTERKETA

Bi mendi lasterketa berri datozen hilabeteotan Arrasaten eta Bergaran

Bergarakoa abenduaren 31n izango da; Arrasatekoa, apirilaren 19an

XABIER URZELAI | ARRASATE

Mendi lasterketen gorakada haziz doa, eta datozen hilabeteotan bi proba berri izango ditugu gurean, Arrasaten eta Bergaran. Hasteko, urtea agurtzeko proposamen bereziarekin datoz Bergarako Hankaluzetrail taldeko lagunak, Peugeot Etormobil Sari Nagusia izango duen San Silvestre lasterketa egingo dute-eta abenduaren 31n. Korrikalariak San Martin plazatik abiatuko dira (11:00) eta 6,5 kilometroko lasterketa izango dute aurretik (izen-ematea zabalik dago *www.kirolprobak.com* webgunean).

Distantziagatik eta desnibelarengatik korrika apur bat egiten duen edonork egiteko moduko lasterketa izango da, eta hori da antolatzaileen asmoa, gainera, urtea bikain amaitzeko aitzakia izatea. Hori bai, Hankaluzekoek azpimarratu dutenez, plazatik egurrean irteten denak berotuta-di polita hartuko du.

Iñigo Altzola arrasatearra –ezkerrean–, aurtengo Aloñako Igoeran. | ARITZ GORDO

Arrasate-Udalatx, apirilean

Hurrengo lasterketaz gozatzeko 2015eko apirilera itxaron beharko da. Hala, Arrasateko hainbat mendi lasterkarik Mondraitz izeneko kirol taldea sortu berri dute, eta hori izango da talde berri horren lehenengo erronka, Arrasate eta Udalatx artean egingo duten lasterketa antolatzea.

Lasterketa hori Bergarakoa baino zorrotzagoa izango da, Arrasateko kaleetan hasiko dute eta Monterrondik gora egin, eta Meatzerrekara jaitsi ostean, atletek Udalatxetik (1.117 metro) eta Besaidetik (564 metro) joan-etorria egingo dute, plazara itzuli arte (21 km). Datorren urtean zabalduko dute izen-emate epea.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA
Zarautz-Antzuola
Zapatua. 15:45. Asti.
Aretxabaleta-Hernani
Domeka. 16:30. Ibarra.
Aloña Mendi-Hondarribia
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Beti Gazte
Zapatua. 15:30. Agorrosin.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Mondra-Getariako
Domeka. 16:30. Mojategi.
Ilintxa-Aretxabaleta B
Domeka. 16:00. Legazpi.

LEHEN ERREGIONALA
Bergara-Arizmendi
Zapatua. 17:30. Ipintza

OHOREZKO GAZTEAK
Beasain-Aloña Mendi
Zapatua. 17:45. Igartza.
Aretxabaleta-Ilintxa
Zapatua. 16:00. Ibarra.
Bergara-Urola
Domeka. 16:30. Ipintza.

EMAKUMEZKOEN ERREG.
Eibar-Arizmendi
Domeka. 16:00. Unbe.
Bergara-Ilintxa
Zapatua. 15:35. Ipintza.
Mutriku-Mondra
Domeka. 15:30. Mutriku.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA
Scalibur-Eskoriatza
Zapatua. 16:15. Basauri.

GIPUZKOAKO LIGA
Euskalduna-Aretxabaleta
Zapatua. 19:00. Andoain.

BIGARREN MAILA
Mondrate-Anoeta
Gaur. 22:30. Iturripe.

GAZTE MAILA
Samaniego-Mondrate
Zapatua. 11:15. Tolosa.

ESKUBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA
Ford Mugarri-Trapagaran
Zapatua. 18:30. Iturripe.

EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZONEKZOAK
Egia Kosko-Bergara
Zapatua. 16:00. Donostia.

EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKOAK
Ereintza-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Errenteria.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Leizaran-Izarraitz Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Andoain.

GIP. BIGARREN MAILA
Ordizia-Bergara
Domeka. 11:00. Ordizia.

SASKIBALOIA

EBA MAILA
MU-Santurtzi
Zapatua. 20:30. Iturripe.

SENIOR GIZONEZKO 2. MAILA
Astigarraga-Natra Oñati
Zapatua. 20:15. Astigarraga.

SENIOR GIZONEZKOAK
Allerru SBT-Soraluce Bergara
Gaur. 20:00. Lezo.

EMAKUMEZKO SENIORRAK
Bidasoa-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Irun.

AUTOMOBILISMOA

SLALOMA OÑATIN
Domekan, 10:30ean, Oñatiko Berezao industrialdean.

ESKU PILOTA

FEDERATUAK
Antzuolan, egubakoitzean:
Infantil: Antzuola-Olalde (19:00).
Bergaran, egubakoitza:
Senior: Bergara-Intxurre (19:20).
Oñatin, egubakoitzean:
Alebin: Aloña-Ramuntxo (19:30).
Infant: Aloña-Tolosa (19:30).
Kadete: Aloña-Gazteleku (19:30).
Arrasaten, egubakoitzean:
Infant: Arrasate-Txapa (20:30).
Infant: Arrasate-Atxurb. (20:30).
Gazte: Arrasate-Añorga (20:30)..
Bergaran, zapatuan:
*17:00etan hasita lau partidu, gomazko paleta neskena, infantilena, kadeteena eta gazte mailakoena.
Arrasaten, zapatuan:
*17:30ean hasita hiru partidu, denak alebinenak.
Aretxabaletan, zapatuan:
*18:00etan, infantil mailako partidu bat.

PROFESIONALAK, GAUR
Bergaran, 22:00etan:.
Mendizabal III.- Urruzola
Jaka - Larrinaga

Retegi Bi-Rezusta
Ezkurdia-Merino II

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Amaia DJ

Bideoklip saioa

Amaia Txintxurretak aurkeztuta

▶ Eguena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

Bertakoa eta sasoikoa

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

KULTURA

"Zure irribarreagatik, apaltasunagatik eta konpromisoagatik, eskerrik asko!"

Zapatuan Bergarako gaztetxeko agertokian hil zen Jul Bolinaga agurtu zuten Monterronen RIPeko gitarra-jolea: askotariko ekimen eta taldeen bultzatzaile, eta erreferente maitatua

The Potes taldeko kideek, herriko hainbat musikari-lagun ondoan zituztela, Jul Bolinagaren omenezko hiru kantu jo zituzten martitzenean Monterron parkean egindako agur-ekitaldian . | IMANOL SORIANO

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Ber garako gaztetxeko agertokian The Potes taldearekin jotzen ari zela bat -batean bihotzekoak jota hil zen zapatuan Jul Bolinaga Etxebarria. Gertatutakoa irentsi gabe zutela, domekan bildu ziren Julen gaur egungo zein garai bateko gertukoak, elkarrekin lagunaren azken agurra prestatzeko. Monterron parkean egin zuten, martitzenean. Txalaparta doinuak, aurreskua, bertsoa, hitzezko agurrak eta musikaz lagundutakoak batu zituzten ordubetera heldu ez zen agur-ekitaldi hunkigarri eta borobilean.

Neurri berekoa izan zen Monterron parkeko agertoki inguruak bete zituen jendearen erantzuna ere. Han zeuden RIPen garaiko Julen Arrasateko lagunak, gaur egungo lagunak, tabernariak, herriko askotariko elkarte eta ekimenetako ordezkariak... Kanpotik ere jende asko etorri zen, Juli agur esan eta eskerrak ematera. Musika arloko aurpegi ezagunak zeuden, horien artean; baina baita "anonimoak" edo aurpegi ez hain ezagunak ere; adibide batzuk aipatzearren, Bartzelonatik espresuki ekitaldira etorritako mutil bat eta Lekeitiotik bi autotan etorritako lagunak. Adinari dagokionez ere askotarikoak zeuden: Julen belaunaldikoak asko, baina baita nagusiagoak eta gazteagoak ere.

Hitzezko agurrak

"Zarata barik joan zara, ez zinen zaratazalea, baina gaur zugatik zarata apur bat ateratzera etorri gara. Gaur ez gara musikaria gogoratzera etorri; maite dugun laguna agurtzera etorri gara-eta". Hitz horiekin ekin zion Iker Barandiaranek, Julen lagunak, martitzeneko ekitaldiari, segidan etorriko zena argi irudikatuta.

Mikrofonoan lekukoa hartuaz igo ziren ondoren agertokira Arrasateko lagunartekoak, herriko musikariak ordezkatzen The Potes taldeko kideak eta Euskal Herriko musikarien izenean Iker Zubia musikaria.

Pantaila handian erakutsitako Julen askotariko argazkiak eta bideoak lagunduta, hizlari guztiek goraipatu zuten Julen irribarrea, haren "apaltasuna", "konpromisoa" eta belaunaldi berriekiko zuen lotura. Bozgorailuetatik zabaldutako mezuei txaloekin eta bestelako onespen keinuekin erantzun zieten uneoro Monterronen bildutakoek.

Musikaz lagundutako agurrak

Julek horren gustuko zituen The Clash eta Stiff Little Fingers taldeen abestiekin josi zituzten aurrez aipatutako testigantzak.

Zuzeneko musikarekin borobildu zuten ekitaldia. The Potes taldekoek, herriko beste hainbat musikari-lagun ondoan zituztela, hiru kantu jo zituzten. Asier Salak Julen banjoa eskuetan hartuta, urtebetetze opari moduan egin zioten *You will never go* kantuarekin hasi ziren. RIPen *Condenado* eta *Mondra* kantuekin jarraitu zuten gero, eta bertaratutako guztiei kanturako gonbita eginez jo zuten hirugarrena, *Ta segi aurrera!* abesti ikurra.

Oroigarriak

Askoren bihotzetan gordeta geratuko dira martitzeneko ekitaldiko uneak; horietako asko argazkietan eta *Oroimen-koadernoan* jasota daude. Asko izan ziren Julen *aldarearen* ondoan argazkia atera zutenak eta baita koadernoan agur-mezuak idatzi zituztenak ere. Koaderno hori zabalik dago oraindik; Dat eta Amaiur tabernetan izango da egunotan.

Omenaldia, geroago

Belaunaldi baten erreferente eta proiektu askoren motor izan den Jul Bolinagak merezi duen omenaldi-musikala jasoko du laster.

Bestalde, martitzeneko agurra osorik emitituko du Goienak, bihar eta etzi. (Inf. 36. orrian).

32. orrialdean, jarraipena.

Agur-ekitaldiko bertsoa

Doble Cero ta The Potes tartean hiru hamarkada belaunaldi desberdinei transmitituaz zirrara. Txus maitagariaz zenbat gira hona eta hara humila jarreran eta hurbila lagun gisara Ezagutu zaitugunok zorionekoak gara patu putan! kondena hau nahiz eta izan labankada gure bihotz barrenetan betiko biziko zara.

Garikoitz Lopez de Munain

Monterrongo agertokian jarri zuten Julen *aldarea*. | I.S

Monterron parkea lepo bete zen martitzenean Jul Bolinaga musikariaren agur-ekitaldian. | I.S

Oroimen-koadernoan agur-mezuak idazten. | I.S

Senideen izenean eskerrak eman zituen *Mac*-ek. | I.S

Juli, agur mezuak

Asko izan dira Jul Bolinagaren omenez egunotan idatzitako mezuak; horietako batzuk agur-ekitaldian irakurri zituzten. Segidan dituzue irakurgai gutun horiek eta Bergarako Gazte Asanbladak eta Txapa Irratiak bidalitakoak.

HANDIA ZARA, JUL

Oso zaila egitten jaku barrenean dauzkagun sentimenduak hitzez esatie.

Utzi gaituzu, joan zara, eta zer amorru, zelako hasarrie, zer pena, pena galanta!

Zurekin gure bizitzako istorioak joan dira, lagunok zuk kontatutako beste istorio asko gurekin gordeko dou betirako. Eta zuk musika akorde artien, zure historia propioa idatzi dozu.

Zurekin gure bizitza konpartitu dugunok badakigu zer samurra den zure aldamenean egotie. Zu beti zirikatzeko prest, baina ezin hasarretu zurekin, zu beti irribarrez... beti laguntzen, tontakeria gutxi eta maitasun handixekin.

Musika izan duzu lagun bizitza osoan, azken momentu arte, eta azken momentuan be ez duzu itxi abestixe bukatu barik. Zure gitarra eta banjo zuzenezko punteo berezixek ez ditugu gehiago entzungo, baina gure bihotzetan grabatua daukagu, ahaztu ezinik, gurekin betirako.

Eta ahaztu ezinik gelditzen jaku be bai bertako musikari gazteekin daukazun gertutasuna eta apaltasuna.

Bizitzak jarri dotzun traba guztiei zuk aurre egin dutzezu, baikor, eta nola ez irribarrez, amorerik eman gabe.

Benetan be xukua atera dutzezu bizitzari! Oin guri toketan jaku zure hutsunea gainditzea eta zure begire aurre egingo dou, zure eredua jarraituz, pozik, baikor, eta nola ez, zerbeza batzuk tartian dauzela, negar eta barre eginez.

Baina hutsunea baino askoz be haundixaue da zuk utzitako itzala eta bere babesean zure doinuak jarraituko ditugu.

Gure bihotzak maitasunez beteta daz zuri esker. Inongo harrotasun barik, egunerokoan egin duzun ibilbide horretan, zu ezagutzea zorte galanta izan da.

Handia zara, Jul! Beti lagun... beti maite... beti bihotz.

Arrasateko lagunartea

ZURE AHOTSETIK, TXUS

Zure bila joango naiz bihar edo etzi. Agian, atzo izan zen zure begiradan aparra gainezka zenuela eta gitarraren soka tenkatua balitz bezala haize apur bat zure eskuetan batuta zenuela aurkitu zintudanean. Akorde infinitu baten beste tenkatuak, seduzitu eta lasaitu egiten nauena.

Ai, Jul! Zuk nire izena buruz dakizu eta ni despistatu egiten naiz amesgaizto honetan laino artean batuta banengo moduan lokartu eta dardara eginez.

Zure zapatak handi ditut eta zure patxoak nire ahoan eta nire gorputzean kokatzen dira, aldi berean oroitzapen baketsu eta tragikoa bilakatuz.

Zure izena eta nirea nahastu egiten dira nire beldurrarekin. Nor naiz ni ez badut zure eskua nire ilean?

Guztiz iratzarturik atzeratuta eta despistatuta itxaroten zaitut eta pena aguantatzen dut zure agurra gehiago ez luzatzeko. Maite zaitut eta negar egiten dut maite zaitudala azaltzen dizudanean berriro. Agur, Jul, eskerrik asko horrenbeste urte elkarrekin egon garen bizitzagatik.

Patxo luze eta estu bat. Besarkada bat. Horrenbeste maitatu izan dugu elkar, sekula ez da gehiegi izan.

Arrasateko lagunarteak irakurrita

LEPOAN HARTU ETA SEGI AURRERA!

Mundu honetan tiroka ere hilko ez diren putaseme mordoa dago; zahartzaroan eta goxo-goxo euren oheetan hiltzen direnak dira horiek. Jul gazte joan da, eta gaztetxe baten taularen gainean; beraz, orain eta hemen, bizitza beti ez dela justua esatea absurdoa da.

Baina hitz egin daiteke ondareak uzten duen existentziari buruz, izateko eta bizitzari aurre egiteko uzten duen zintzotasuna eta konpromisoa eta adiskidetasuna opari moduan uzten duena.

Jul kide izan zen talde guztien partetik, parte hartu zuen guztien partetik.

Julek laguntza eskaini zien kolektibo, herri mugimendu, elkarte edo plataforma guztien partetik.

Baina bereziki, ezagutzeko aukera izan genuen guztien partetik, ez bakarrik taula gainean edo lokaletan, baizik eta gaztetxe, taberna eta kaleetan ezagutzeko zortea izan genuen guztien partetik, bakarrik esan, ohore handia izan dela Jul ezagutzea eta haren maitasuna jasotzea.

Galtzen den borroka bakarra bertan behera uzten dena dela dakigun moduan, badakigu, era berean, pertsonak ez direla hiltzen, horiek gogoratzen jarraitzen badugu.

Gu, musika arloko eta kale-astintzaileak, Jul ez ahaztera konprometitzen gara, bera hiltzera ez uztera, bada. Haren abestiak gogoratuko ditugu, eta haren akordeak, RIP gogoratuko dugu, haren irribarrea gogoratuko dugu, haren ostia txarra eta gugatik egin zuen guztia gogoratuko dugu.

Bukatzeko, Txusi, Txerrari eta familia osoari besarkada bat, eta besarkada hori heldu dadila haren lagun guztiendako ere, eta baita Arrasateko herritarrei ere.

Eskerrik asko, Jul.
Lepoan hartu ta segi aurrera!
Gora gu ta gutarrak

Euskal musika taldeko ordezkariak

ARRASATEKO MUSIKARIAK HARRO GAZ!

Zapatu honetan bizitzak eskaini doskun bizipen gogor eta itogarrixenetako bati aurre egittia tokau jakun Bergarako Gaztetxera hurbildu ginen danoi. Kontzertu amaierako poztasunetik errespetuz betetako ixiltasun batera.

Arratsalde hartako irudi gogorrek gutako askoren buruak zeharkatu dittuzte egunotan, ziurrenik ez dittugu ahaztuko. Baina, aldi berian, Julekin bizi izan ditugun momentu atsegin eta dibertigarrixak be ez dittugu ahaztuko.

Berakin elkarbanatutako hitzak maitagarri bilakatzen zien; izen be, bazauken dohain bat, gu danon errespetua lortu zauen. Omenaldi hau ikusterik besterik ez dau.

Musikari dagokixonez, gure erreferente izan da distortsio doinuak lehenik entzuten hasi ginenetik.

The Potes musika taldea

BAINA BIHOTZAK DIO...

Eta bihotzak esan zion azaroaren 15a zela eguna, bere gaztetako taldearen kantu hori gogoratzean, kontzertuaren amaieran, gaztetxe bateko publikoaren ipurdiak astintzen eta irrati libre baten urteurrena ospatzen.

Denok gelditu ginen hotz, mutu, siku... bakoitzak bere modura egin genion aurre gauari. Bergarako gaztetxean, Txapa Irratiko jaian, inork bizi nahiko ez lukeen gaua bizi izan genuen. Bihotzak esan zion hori zela momentua! Gure irratia testigu! Entzule eta ikusleak momentu gogorretara kondenatuak.

Hire musikak gure gorputzak eta buruak astintzen jarraituko dik! Besarkada bat hire familia eta lagunei!

Infernuan ikusiko gaituk, Jul!

Txapa Irratia eta Bergarako Gazte Asanblada

Kontu kontalarien lehiaketa abian da

- Aretxabaletako Udalak 'Ostegun kontalariak' lehiaketa antolatu du herriko tabernetan
- Azaroaren 27an hasiko da lehiaketa eta hurrengo hiru saioak abenduan izango dira

ARANTZAZU EZKIBEL | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak *Ostegun kontalariak* lehiaketa jarri du abian, Arteman Komunikazioaren laguntzarekin. Debagoieneko gazteei kontakizunak jendaurrean plazaratzeko gonbidapena egiteko asmoz sortu da ekimena. Helburua bikoitza da: batetik, kontatzaile grina dutenei bidea ematea; eta bestetik, udazkeneko eta neguko eguenetan Aretxabaletako tabernetan herritarrentzako eskaintza kulturala sustatzea.

Emanaldiak datorren eguenean hasiko dira, azaroaren 27an, 21:30ean. Guztira, lau emanaldi izango dira.

Hainbat diziplinatako kontuak

Eneko Barberena eta Manex Agirre izango dira lehenengo saioko kontalariak. Azaroaren 27an izango da hori, 21:30ean, Express tabernan. Barberena arrasatearra eta Agirre aramaioarra diziplina askotan ibili izan dira bakarka. Aspaldi, baina, elkarrekin *Kulturisten kofradia* bakarrizketa-ikuskizuna sortu zuten, eta tarteka, iragarri gabe, agertokietara igotzen dira jendeari euren kontuak kontatzera.

Oraingoan, lehiaketa zabalduko duten kontalariak izango dira. Arrasatearrak eta aramaioarrak eskarmentu handia dute agertokietan eta hori baliatuko dute ikusleak bereganatzeko.

Abenduaren 4an, Artano tabernan, Aitor Agiriano eskoriatzarraren txanda izango da. Agirianok telebistan zein film labur, dokumental eta antzezlanetan aktore moduan parte hartu izan du, eta hainbat sari irabazi ditu. Aretxabaletako emanaldian, aktore bizimoduarekin lotutako bakarrizketa-ikuskizuna eskainiko du Agirianok.

Lehiaketan parte hartuko duten kontu kontalariak. | ARTEMAN

Belen Azkarate antzuolarrak abenduaren 11n Atseden tabernan kontatuko ditu ipuinak. Azkarate umeekin zein helduekin ibiltzen da ipuinak kontatzen. Urte asko darama lan horretan. Berak sortutako ipuinak eta beste autore batzuenak kontatzen ditu; ipuinen bitartez balioak helarazten ahalegintzen da Azkarate.

Azken emanaldia Iraitz Agirre arrasatearrak egingo du. Abenduaren 18an izango da, Urbeltz tabernan. Agirrek bere burua kontalaritzat dauka. Bai jendaurreko zereginak bai bestelakoak, denak izan daitezke agertokiak arrasatearrarendako. Kontatzeko modu ezberdinak batzen dituen *patchwork*-a eskainiko du Agirrek Urbeltz tabernan.

150 euroko saria

Ostegun kontalariak lehiaketako irabazleak 150 euroko saria jasoko du. Irabazlea nor izango den publikoaren boto bidez erabakiko da. Ikusleek emanaldien ostean eman ahal izango dute botoa tabernan bertan kokatutako postontzian. Hori izango da botoa emateko modu bakarra. Antolatzaileen esanetan, originaltasunari eta interpretazioari emango zaio garrantzia.

Formatu txikiko emanaldia

Aretxabaletako Udalak hainbat urte darama formatu txikiko emanaldiak antolatzen. Dagoeneko bi urtez jarraian antolatu du *Ostegun bidaiariak* ekimena. Uda aurretik izaten da bidaien kontakizuna; eta iaz, udazkenerako, *Ostegun akustikoak* antolatu zuten.

Durangoko Azoka aurkeztu dute, eskaintza oparoarekin

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Durangoko Azokak 49. aldia izango du aurten, eta, irekiera-eguna gerturatzen ari denez, bilera nagusia egin zuten eguaztenean. Aurten ere, urtero bezala, eskaintza kultural handia izango dute bisitariek. Izan ere, 245 erakusmahai, 150 kultur ekitaldi eta horietan 500 sortzaileren parte-hartzea izango dira abenduaren 5etik 8ra bitartean.

Zortzi gunek osatuko dute Durangoko Azoka, Kulturaren Plaza Landakoguneko saleroskетarekin batera: Szenatokiak, Irudieneak, Ahotseneak, Plateruenak, Saguganbarak, Kabi@k, Azoka Telebistak eta Areto Nagusiak. 132 partaide eta 16 autoekoizle izango dira, eta aurten, lehenengoz, Gerediaga Elkarteak berezi prestatu dien gunea.

Okzitania gonbidatu

Herrialde gonbidatua Okzitania izango da, hango kultura eta hizkuntza. Euskal Herriak eta Okzitaniak lotura handia dute elkarren artean, baina, neurri batean, ezezagunak ere badira. Hala, elkarren arteko ezagutzan sakontzeko asmoz prestatu dute aurtengo egitaraua. Okzitania euskararen mugakide eta bizikide den kultura eta hizkuntza delako.

Argizaiola saria

Anuntxi Arana angeluarrak jasoko du aurten Argizaiola saria. Euskal mitologian egin ditu lan idatziak, eta haren lan nagusia *Orozko Haraneko kondaira mitikoak, bilduma eta azterketa* tesia da. Hura izan zen Iparraldean euskaraz egindako lehen tesia defendatzen. Hala, euskal kultura sustatzen egin duen lan hori aitortu nahi dio Durango Azokak.

49.a, datuetan

Urterik urte estreinaldiz beteta etortzen da Durangoko Azoka. Izan ere, 245 stand jarriko dira, 16 autoekoizle, 132 partaide, 150 kultur ekitaldi, 330 aurkeztuko diren nobedadeak, 222 liburu, 61 disko, 27 aldizkari, 14 bestelako (joko, agenda, egutegi…), 3 bideo eta 3 argitalpen elektroniko.

'Cuatro estaciones hacia la locura' Evaristoren liburu berria salgai

A.E. | ARRASATE

Evaristo Paramos Perez musikari ezagunak *Cuatro estaciones hacia la locura* liburua idatzi berri du, Desacorde Ediciones argitaletxearekin.

Idazlearen barne unibertsoan barrena bidaia da argitaratu berri duen liburua; biluztu egiten da boligrafo eta paper zuriaren aurrean. "Arrisku handiko abentura", argitaletxearen hitzetan. Gehigarririk gabeko istorioa da; zalantzatik benetako gordintasunera eramateko gauza dena. Iaz udazkenean hasi zen Evaristo Paramos liburua idazten, eta, urtebeteren ostean, salgai dago.

Egunerokoaren forma duen liburua da. Urtebetean bizi izandakoa jasotzen du, ilustrazio eta guzti. "Pertsonalitate bakarra eta paregabea" dena hobeto ezagutzeko aukera ematen du lanak. Sinopsian hauxe dakar: "Ez beldurtu momenturen batean istorioak estutu egiten bazaitu, goza ezazu".

16 euroren truke dago salgai

Liburua Desacorde argitaletxeko atarian dago salgai 16 euroren truke. Horrez gain, Donostiako Hontzan eta Bilbo, Gasteiz, Irun eta Iruñeko hainbat liburu dendatan ere eros daiteke.

Andoni Toston, goitik behera konpondu zuen ibilgailuarekin.

ANDONI MUXIKA

Andoni Toston | Ibilgailuetan aditua

"Etorkizunean, ikasketak ibilgailuen mundura bideratu gurako nituzke, oso gustuko ditut-eta"

ANDONI MUXIKA | ESKORIATZA

Andoni Toston ezin da geldirik egon. Eskoriatzako gazte horrek automobilak ditu gogoko. Hortik datorkio auto abandonatu bat hartu eta guztiz konpontzearen kontua. Gainera, horretaz gain, goitibeheretan ere aditua da; izan ere, aurtengo Gipuzkoa Challenge txapelketa irabazi du, berak egindako ibilgailu arin batekin. Beraz, gazte ekintzaile horrek gauza asko ditu esateko.

Nola erabaki zenuen automobil abandonatu bat konpontzea zure eskuekin?

Egia esan, apustu baten ondorioz izan zen. Lagun batek ezingo nuela konpondu esan zidan, eta hori nahikoa izan zen hasteko. Beraz, oso gaizki zegoen auto bat hartu nuen; IAT (ITV) pasa gabe, 3 urte ukitu barik, barrutik guztiz herdoilduta... eta 4 hilabetez buru-belarri aritu nintzen hura konpontzen. Bukatu eta gero, emaitza asko gustatu zitzaidanez, autoarekin gelditu nintzen.

Berdina egin zenuen motor batekin, ezta?

Bai. Motor batekin ere antzerako zerbait egin nuen: erdi abandonatuta zegoen motor bat erosi eta konpontzeko beharrezko piezak lortu. Horrela, eta pazientzia handiarekin, motor on bihurtu nuen. Eta askoz merkeago, noski.

Zer ikasi duzu ibilgailuez horrenbeste jakiteko?

Ezer ez. Honi buruz, behintzat, ez dut ezer ikasi. Egia esatearren, hainbat ziklo egin ditut, baina, oraingoz, ez ditut nire ikasketak honetara bideratu. Lehendabiziko aldiz, autoa garajean sartu nuen eta pixkanaka-pixkanaka konpontzen joan nintzen; ez nekiena egiten Interneten begiratzen nuen, edo, bestela, galdetu egiten nuen.

Nolatan ez duzu batzen hori zure ikasketekin?

Arraroa da, bai. Elektrizitate ziklo bat egin nuen, ondoren mendi gidaritza, eta orain, goi mailako ziklo bat nabil ikasten: Automatizazio eta Robotika Industriala, Bergaran. Beraz, oraingoz, ez dut ezer ikasi ibilgailuekin lotura zuzena duenik, baina, etorkizunean, ikasketak ibilgailuen mundura bideratu gurako nituzke.

Nondik datorkizu afizio hau?

Txikitatik asko gustatzen zait mundu hau. Uste dut, nolabait, aitak asko erakutsi zidala. Izan ere, hark ere gustuko ditu ibilgailuak. Eta, oraingoz, asko disfrutatzen dut honekin.

Zerk erakartzen zaitu gehien, abiadurak? Teknologiak?

Denak erakartzen nau. Abiadura ere bai, noski. Baina ez da azkar ibiltzeko, azken finean, ibilgailu kurioso bat izateko baizik. Izan ere, autoan gero eta estra gehiago sartzea oso interesgarri ikusten dut. Nire ibilgailuan, adibidez, motorra guztiz aldatuta dago; Berria erosi eta guztiz desmuntatu nuen, horrela nire gustuen arabera jartzeko.

Ematen du zurekin bat datorrela mundu hau. Izan ere, goitibeheretan ere aritzen zara, aurten, Gipuzkoa Challenge irabazita, ezta?

Hori ere apustu baten ondorioz izan zen. Berriro ere lagun batekin apustu egin nuen Eskoriatzako goitibeheretan parte hartuko nuela, eta hala izan zen. Arratsalde batean Gasteizera joan eta goitibehera egiteko beharrezko materiala erosi nuen; Guztira, ez nituen 40 euro ere gastatu. Eta ondoren, arratsalde berean, *gravity bike* bat eraiki nuen, goitibehera arin bat. Hori guztia Eskoriatzako lasterketa baino bi egun lehenago izan zen. Oraingoz, aurten bakarrik aritu naiz eta dagoeneko Gipuzkoa Challenge irabazi eta Euskadiko Txapelketan bigarren postuan geratu naiz.

Etorkizunean, ze ogibide izan gurako zenuke?

Autoekin lotutako zerbait. Adibidez, mekanikari izatea. Baina ez hori bakarrik; gaur egun telebistan ematen dituzten mekanikarien saioekin lotutakoak, edo halako zerbait, auto zaharrak erreparatzen dituztenak. Horrela, lanean erronkak sortzen dira eta aberasgarriago bilakatzen da lan esperientzia.

PERTSONALA

Amets bat: Amets asko ditut, ezin dut bat bakarrik aipatu.

Ibilgailu gustukoena: Autoa, esango nuke.

Goitibehera txapelketako jaitsiera gustukoena: Eskoriatzako jaitsiera.

Bizi izateko toki bat: Eskoriatza.

Kirol gustukoena: Mendian ibiltzea asko gustatzen zait.

Pelikula gustukoena: *127 hours* (Danny Boyle, 2010).

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Feliziano Aranzabalen, bi logelako etxebizitza salgai. 69,38 metro koadro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 627 59 75 38

Bergara. Etxebizitza saltzen da Matxiategi 10ean. Bigarren solairua. 115 metro koadro. Eguzkitsua. Hiru logela. Berriztua dago eta igogailua jartzen ari dira. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650 60 26 55

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza jantzia ematen da errentan. Egoera onean. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Berokuntza indibiduala, gasarekin. Andra Marin. 605 74 34 39 (M.Carmen)

Eskoriatza. Etxebizitza berria ematen da errentan. Erdialdean dago. Hiru logela eta bi bainugela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 70 08 00

104. ERRENTAN HARTU

Baserri bila Debagoienean. Bikote arrasatearra Debagoienean edo inguruan errentan hartzeko baserri bila dabil. 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

Bergara. Hiru logelako etxebizitza hartu nahi dut errentan. Gehienez 500 euro ordain ditzaket. 602 03 33 56 (Carmelo)

Bergara. Bergaran logela bakarreko edo biko etxe bat errentan hartu nahi dut. 616 39 49 91

Oñati. Logela bakarreko edo biko etxebizitza hartu nahi nuke errentan. 647 24 40 54

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Erdigunean, Juan Carlos Gerra 5ean, logela ematen da errentan. 250 euro hilean, gastuak barne. 699 78 87 36

Arrasate. Erdigunetik gertu etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dut. 678 82 69 77

Bergara. Logela ematen da errentan Zabalotegi 11n. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 07 12 06

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero deitu mesedez 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 653 74 87 51

106. BESTELAKOAK

Etxebizitza aldatuko nuke. Gasteizen dagoen etxebizitza bat aldatuko nuke Aramaion antzekoa den beste baten truke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 672 28 30 38

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Aretxabaleta. Garbitasunean edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, gauetan zein asteburutan. Eskarmentua dut eta lege paperak ere bai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 147 134

Arrasate. 36 urteko neska astelehenetik ostiralera etxeko laguntzaile moduan aritzeko gertu. Egun osoz, orduka, gauez edota etxean bertan bizi izaten ere bai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 80 96 01

Arrasate. Mutila goizetan nagusiei laguntzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 673 71 80 93

Arrasate. Neska gertu asteburuetan, orduka, nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 54 45 25

